





JOSE BASTERRETXEA *OSKILLASO*

*Kurloiak*

Kaletarren haurtzaroa Bizkaian



**JOSE BASTERRETXEA OSKILLASO**

*Kurloiak*

**Kaletarren haurtzaroa Bizkaian**

*Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita*

LABAYRU IKASTEGIA  
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA  
BILBAO  
2007

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gernika-Lumoko Udalaren laguntza izan dau

© *Obrarena eta marrazkiena*: Jose Basterretxearen oinordekoak  
Liburu barruko marrazkiak egileak eginak dira  
© *Argitaraldi honena*: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa  
Aretxabaleta, 1-1.a  
48010 BILBAO  
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58  
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Diseinua: Ikeder, S. L.  
Fotokonposizioa: Ikur, S. A.  
Silutegia: Baster S. L. L.

Lege Gordailua: BI-1677-07  
ISBN: 978-84-89816-32-9

Eskubide guztiak jabearenak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, magnetikoa, elektrooptikoa, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berea transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright* jabearen aurretiazko idatzizko baimen barik.

# AURKIBIDEA

<i>Kurloiak</i> eleberriari berbaurrekoa. <i>Adolfo Arejita</i> . . . . .	9
Sarrera . . . . .	9
Biografiako apunte labur batzuk . . . . .	11
Hizkuntzetarako zaletasuna . . . . .	16
Euskara: jatorrizkoa eta landua . . . . .	18
Euskararen inguruko irakaste, kongresu, ikerkuntza, idazkuntza eta osteangoak . . . . .	22
Ikerkuntza alorreko beste harreman batzuk . . . . .	28
Literatura . . . . .	30
<i>Kurloiak</i> obraren giltzarri batzuk . . . . .	36
Eleberriaren berehalako oihartzuna eta isilaldi luzearen ondoko berpiztea . . . . .	42
Gaurkoturiko testuaren zehaztapenak . . . . .	43
Bibliografia osagarria . . . . .	51

## KURLOIAK

Hitzaurrea . . . . .	59
I. Patxiren pozak putzura, amets zoroen modura . . . . .	83
II. Emazte onak hilerrietan dira . . . . .	91
III. Berriketa balitz ardatza, etxea bete mataza . . . . .	97
IV. Ezkila soinua entzun nahi ez duenak, ez sokari tira . . . . .	103
V. Nekez harturiko gauza nekez laga . . . . .	111
VI. Madril, Tolero... mundua ikusi eta etxera gero . . . . .	117
VII. Lan egiteko, mutiko; jateko, gizonko . . . . .	125
VIII. Otsoa aipatu eta otsoa atean . . . . .	133
IX. Jakiteak ez du ogirik jaten . . . . .	141

X.	Mila urte ez dira behar mila gauza ikusteko . . . . .	151
XI.	Adiskide du zakurra, bera izan arren lapurra . . . . .	159
XII.	Hilak lurpera, biziak mahaira . . . . .	163
XIII.	Ez dakusan begiak ez ahalgerik . . . . .	169
XIV.	Jan-edanaren gozoa, kontu-emanaren gaiztoa . . . . .	173
XV.	Deus ez dakienaren jakitatea isilik egoitea . . . . .	179
XVI.	Edale on gutxi langile on . . . . .	183
XVII.	Zerbait den lekuan begiak argi, ezer ez den lekuan eskuak garbi . . . . .	189
XVIII.	Astoa sal, zaldia eros . . . . .	193
XIX.	Patxi, kaka egin eta bertan itxi . . . . .	199
XX.	Ahaleginak zazpi dira . . . . .	203
XXI.	Zuretzat latin, niretzat jakin . . . . .	209



# KURLOIAK ELEBERRIARI BERBAURREKOA

## Sarrera

Labayru Ikastegiak kaleratzen duen bigarren eleberria da honakoa, baina Jose Basterretxea *Oskillasok* idatzi eta argitaratu zuen lehenengoa: *Kurloiak* du izenburua (laburduraz *Kurl*) eta 1962ko urte goiztiarrean argia ikusi zuen. Ordurik gehiago ez da berriz argitaratu izan, nahiz beronen aipuak idazleen eta euskara ikertzaileen eskutik behin eta berriro etorri diren.

Oskillasoren euskara ibilbidean munarri garrantzitsua dugu 1962. urtea. Berrogeita hamar urteko gizon heldu honek, orduantxe jasoko du euskal literaturan bataioa, eta *Kurl* eleberri honekin hartan ere. Urte berean argitara emango ditu bere lehen idazlanak *Egan* aldizkarian: bata sorkuntzazkoa, bestea kritikalana.

Handik lasterrera ezagutuko ditu euskal letren munduan loria eta ospina ere, bata bestearen atzean. Koldo Mitxelenak *Egan* aldizkariaren atea ireki zizkion eta, euren artean hizkuntza-auzietan izan ziren diferentziak gorabehera, elkarri begirune handia eta halako miresmena ere gorde izan zioten. Hurrengo urtean, 1963an, euskaltzain urgazle izendatuko du Euskaltzaindiak, eta Euskararen Akademiarekin lankidetzan sartuko da; harreman horrek moduren baten bere bizi guztian iraun bazuen ere, Arantzazuko Batzarrera arte (1968) izan zuen trinkotasuna.

Gerora euskararekiko arlo-adar asko jorratu eta landu bazituen ere —saioa, didaktika, ikerkuntza, itzulpena...—, *Kurloiak* eleberritari esker irabazi zuen Oskillasok literato izena eta ospea. Ondoren ia gerizpean legez egon da luzaroan beraren izena euskal literaturan, isilaldi luze bat erdian zela. Ez horraitino idatzi barik egon zelako —hainbat idatzi zuen, baina karpeta barruan gorde-rik eduki—, bere sortzapenok agerira atera barik egon zelako baino. Zahartzaroan bizkortu zela atzera esan daiteke. Orduan plazaratu zituen ingelesetik euskaraturiko obra ezagun bi —eta jatorrizko bere bizkai euskarara bihurtu zen—: Mark Twain-en narrazio luze bat, *Erregegaia ta eskekoa*, eta Charles Dickens-en *David Copperfield*. Obra bien testu laburtuak itzuli zituen, irakaskuntzarako atonduriko ingeles edizioetatik. Eta *Gabeko atorra* izeneko eleberririk sorkuntzazko bat (laburduraz *GabAt*). 1986-88 bitartean egin baziren ere argitaraldiok, badakigu obra hauen idazkuntza hainbat lehenagokoa izan zela.

Are beranduago ezagutzera etorri gara *Euskaldunak Madrilen* —laburduraz *EuskM*— izenburudun eleberria (Bilbao 2003), Labayru Ikastegiaren eskutik eta “Sutondoan” bilduma beronetan atera izan dena, baina berez, hau ere, *Kurl* argitara ondoko urteetan idatzia eta denbora hobeagoen zain argitaratzeke urteetan geldian egona.

Madrilgo euskal protagonisten kontraera errealista hori isilpeko katigariotik jaregin ondoren, bertatik hartu genuen asmoa *Kurl* atzera ere gizarteratu behar zela. Zor genion, hori eta gehiago, Oskillasori. Baina ez bakarrik hari; beraren belaunaldiari eta urte latz haietan euskararen alde adorez lehiatu ziren guztiei. Zor diegu euskal hizkuntza-literaturei eta eurok mintzo eta lantzen dituen Herriari, zeren 60ko urte antzu haietan gure literaturaren zeru hodeitsuetan ageri zen izar bakanetarikoa gertatu baitzen *Kurloiak*. Eta azkenik, zor diegu bizkaitarrok eta Gernikako uri sakratua maite dugun guztiok, idazleak Oskillaso mutikoaren ibilerak eta bizi-urratsak han finkatu zituelako, *Arrigorrieta* izenaren estalian.

Orain artean ere behin baino gehiagotan erabili ditut mintzagai idazle honi dagozkion zenbait alderdi, edo biografia dela, edo euskararen inguruko bere ikuspegiak eta lanak, eleberrri eta narrazio laburren edukiak eta estiloa, bibliografia eta beste<sup>1</sup>. Oraingo honetan, ahal dela, ikuspuntua haren aldatzen edota gauza diferenteak eransten saiatuko naiz.

## Biografiako apunte labur batzuk

1911: Jaio Madrilen, abenduaren 9an.

Gurasoak:

- aita, Juan Pedro Basterretxea Iraurgi; jaiotzaz zornotzarra, lanbidez barku-kapitaina; berbetaz euskalduna.
- ama, Pilar Matoni Parra, jaiotzaz nafarra, Corellakoa; berbetaz erdalduna.

1915-1916: Basterretxeatarren familia bizitzen Gernikara dator. Saraspe auzoan biziko dira, Asilo Calzada kalean.

1916-1928: Gernikako agustinoen ikastetxean egingo ditu oinarrizko eta batxilerreko ikasketak.

1926: Don Kixote Mantxakoren lehen edizioaren azalaren irudia marraztu zuen eta agustinoen ikastetxeak ateratzen zuen *Guernica* aldizkaritxoan agertu zuten.

1927: Ipuin bat argitaratu zuen gaztelaniaz *Guernica* aldizkarian. Izenburua: “Caso de conciencia. Cuento que oí contar a mi abuelo”. (Aitaren aita seguruen)

1928: Basterretxeatarren familia Valladolidera doa bizitzen. Jose 17 urteko zen. Amaren amamaren nebak bizi ei ziren han.

Unibertsitatean zientzia fisiko-matematikoak ikasten hasiko da.

---

<sup>1</sup> Ikus: Jose Basterretxea *Oskillaso, Euskaldunak Madrilen*, Labayru Ikastegia & BBK, 2003: Sarrera: “Biografia eta lanak”, 13-97. Baita: *Jose Basterretxea Oskillaso (1911-1996)*, Bidegileak, Eusko Jaurlaritza, 2006.



Jose Basterretxea  
umetan (1913).

1930: Juan Pedro aitak oposizioa ateratzen du “Cuerpo General de Servicios Marítimos” zeritzanean. Familia Madrilerak dator bizitzen.

Unibertsitate Complutensean matrikula egingo du Zientzia ikasketei segida emateko.

1935: Madrileko *Euzko Ikasle Batzaren* buru hautatzen dute. Ardura horrek ikasketetan atzerakuntza ekarriko dio.

1936: Eusko Jaurlaritza eraiki berriak ordezkari izendatzen du Madrilén.

1937: Bilbora dator, Eusko Jaurlaritzaren aginduz.

Bilbo jausteko dagoela, Bilbotik Donibanera doa gasolinontzi txiki baten. Handik Parisera abiatzen da, inor barik eta ezer barik.

Atzerriko Eusko Jaurlaritza Parisen eratzen delarik, han lan egiten du aldi batez.

Sorbonako unibertsitatean matrikula egiten du, Madrilen amaitu barik utzi zituen Zientzia ikasketei jarraiera emateko. Ikas sistema guztiz diferentea. Asko balio izango dio gero Madrilen lizentziatura gainditzeko.

1938 (39?): Urte-muga inguru horretan, Paris utzirik, Marcellara doa, itsasoz Filipinetara joateko usteaz. Mendieta adiskidea zuen han, lana agindu baitzion.

Arriskuakaitik asmoz aldatu eta Bartzelonara dator, seguruen itsasoz. Han lagunak ditu. Oraindino frankotarren eskuetan jausteko dago konterri-hiria.

Frankotarrak hiriaz jabetu ondoren, preso hartzen dute, baina laster askatu. Ez zen ezaguna.

1939: Juan Pedro aita giltzapean. Egoera larrian familia. Madrilerantz itzultzen dira.

1940-41: Iruñera dator lehenengoz irakasle-ordezkozta bat egitera. Ingeles irakatsiko du Principe de Viana institutuan (Vínculo plazan). Goizez mutilei eta arratsaldez neskatilei. Hauen artekoa zen M<sup>a</sup> Dolores Moreno, geroago beraren emazte bihurtuko zena.

1941-42: Zientzietako lizentziatura aterako du, artean, guda-terean etenaren ondorioz, amaitzeko utzi zuena. Matematika adarrekoa lehenengo eta Fisikakoa ondoren aterako du.

1942-1949: Lleidako Institutu Nazionalean ingeles katedraren arduradun, ingeles irakasten<sup>2</sup>.

1945: Aita Juan Pedro itsas kapitanaren erretratua egiten du eta saria irabazi.

1949-1955: Madrilen bizi da. Urte horietan finkatua dago *Euskaldunak Madrilen* eleberraren argumentu osoa.

1952-55 bitartean, estatu-hiriburuko Unibertsitate Zentralean, Zientzia Fakultatean, hiru ikasturte emango ditu irakasle-laguntzaile bezala.

---

<sup>2</sup> *Euskaldunak Madrilen* (2003) eleberrari egin genion “Biografia eta lanak” sarreran data okerrak eman genituen, urte bi beranduagokoak. M<sup>a</sup> Dolores alargunak buruz egiazko uste zituenak ipini genituen. Harrezkero idazlearen paperen bidez ziurtatu ahal izan ditugu urte zuzenak.

1954: Instituturako oposizioak aterako ditu.

1955: Iruñera dator Matematika irakasle, hango institutuko plaza atera ondoren. Zerrendetan aurrerengotarik zegoenez, aukera egiten errazago izan zuen.

1957: M<sup>a</sup> Dolores Moreno Zenoz andrearekin ezkonduko da.

1959: Ingeles oposizioetara aurkeztzen da Madrilen, emaitzarik gorenengoak aterarik. Harik aurrera ingeles hizkuntza izango du irakasgai institutuan.

Seme zaharrena jaio zen. Aitaren izena ipini zion: Juan Pedro.

1960: Aita Juan Pedoren heriotza. Bion artean maitasun eta kidesun berezia izan zuten hasieratik. Aita itsas kapitainak nahastatu zizkion euskalzaletasuna eta ingeles zaletasuna, Gernika-zaletasunaz ostean.

Urte horretan abiatzen dira Euskal Herriko eta baita Nafarroako Bertsolari Txapelketak. Epai-mahaiko ibili zen horietako txapelketa batzuetan.

1961: Alaba jaio zen. Izena ipini zioten Miren.

1962: *Kurloiak* eleberria argitaratu zuen urte horretako urrian *Oskillaso* ezizenpean. Egilearen egiazko izen-deiturarik ez da ageri obran. Kostuak bere gain hartu zituen.

“Mikel eta erdeldunak” narrazio laburra atera *Egan*-en.

1963: Euskaltzaindiak urgazle izendatzen du.

*Euskaldunak Madrilen* nobelaren lehen idazketa urte horretan egingo du. Argitaratu barik eta ezezagun iraun du oraintsura arte (2003).

Nafarroako Unibertsitateak Euskal Hizkuntzaren Katedra iragartzen du. Jose Basterretxeak curriculuma aurkeztzen du<sup>3</sup>. Aurrerago sartuko da katedra horretan irakasle.

---

<sup>3</sup> 1963ko martxoaren 27ko data boligrafoz idatzirik duen, baina makinaz erredaktaturik Iruñeko Unibertsitateko Filosofia eta Letrak Fakultateko Dekanoari zuzenduriko gutun baten bere curriculum akademikoa zehazten du, aldi berean katedra horretarako bere burua opatuz.

“The Cask of Amontillado” Allan Poe-ren ipuina ateratzen du euskaraturik *Egan*-en.

1964: “Nylonezko eritakoa” eta “Zerura joan eta atzera etorri” narrazio laburrak argitaratzen ditu *Egan*-en.

*Akatsbako gizonaren heriotza* eleberri laburra idazten du. Argitaratu hiru urte geroago egingo da (1967).

1968: Euskaltzaindiaren Arantzazuko Batzarrean parte hartzen du.

1969: Pintura-erakusketak egiten ditu, bata Bilbon, bestea Donostian.

1970: Nafarroako Unibertsitateko Euskal Katedraren barruan euskal hizkuntza irakasle izendatzen dute. Hasi berandutxoago.

*El vasco de hoy* erredaktatzen hasten da, unibertsitateko kargua hartu ondoren. 10 urte oso emango ditu buru-belarri zeregin horretan, literaturgintza eta pintura alderdiak ia bertanbehera utzita.

1971: Nafarroako Unibertsitatean euskara hizkuntza ofizial bihurtzen da lehenengoz. Hiru maila hiru urtetan ematea zen plana. Kurtso bakoitzean 5 eskola-ordu asteko, sei hilabetean. Irakasle laguntzaile bat izango zuen programa osoari erantzuteko. Hori aitortzen dio behintzat Jon Bilbaori gutunez.<sup>4</sup>

1971?: Ebakuntza gogor bat egin zioten Iruñeko Hospital Provincial delakoan, bere hitzez “hiato de esófago”ko hernia baten ebakuntza egiteko. Kezkaturik zegoela antzematen da<sup>5</sup>. Sekulako ondorio txarrak ekarriko zizkion ebakuntza horrek osasunean, eta euskarari loturiko lanetan, jakina.

---

<sup>4</sup> Gutunean (1971-10-8) hala dio: “estoy aislado en casa enfermo y ni siquiera he estado en la Universidad todavía”.

<sup>5</sup> Mitxeleneri eginiko gutun baten (1971-1-26) dio: “Un día de estos ingreso en el hospital provincial para ser operado de hernia de hiato de esófago.”

1974: “Estudios sobre entonación vasca según el habla de Guernica” ikerketaren lehen partea argitaratzen du *FLV* aldizkarian (353-393). Lan hau egina edo amaitu hurren duela 1969ko gutun baten iragartzen dio Mitxelenari (abendua 19ko dataz).

1975: “Estudios sobre entonación vasca según el habla de Guernica” ikerketaren bigarren partea argitaratzen du *FLV* aldizkarian (289-338).

1979: Amaitutzat ematen du *El vasco de hoy* metodoa, artean luzaro ikasleekin frogatu zuena, eta inprimategira bialtzen du. Handik 1981ean atera zen. Kostu guztiak bere gain hartu zituen.

1981: “Principe de Viana” institutuko irakasle jardunari uzten dio, zaharsaridun egiten delarik.

1983: Urte horretan zehar edo agian 1982ko uda ostean hasita idazten du *Gabeko atorra* eleberria. Argitaratu beranduago (1988).

1986: Nafarroako Unibertsitatean Euskal Katedran euskara irakasten hamasei bat urtez izan zuen jarduerari akabua emango dio.

1991: Euskal Itzultzaileen Elkarteak (EIZIE) omenaldia eskaini zion, euskarazko itzulpen literarioen kalitatearen alde, praktikaz eta teoriak egin zituen ekarrien meritukatik.

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) ere omenaldia eskaini zion, Txillardegik bultzatuta.

1995: Euskal Idazleen Elkarteak (EIE) omenaldia eskaini zion Zestoan.

## **Hizkuntzetarako zaletasuna**

Lehenago ere idatzia dugu jadanik gaztetarik izan zela hizkuntzazalea eta kanpo-hizkuntzak bere kabuz ikasi zituela batez ere, hurrengorik hurrengora.

Txikitan euskara eta gaztelania biak batera ikasi zituen. Gernikan hizkuntza biez baliatzen zen. Gaztela aldera bizitzen joan ondoren, euskalzaletasuna barru-barrutikoa zuenez eta gaztela-



mintzodun hutsen artean sentitzen zenez, euskara ikasteari eta lantzeari ekin zion, gutxienez Madrilen unibertsitatean zegoenetik. Frantsesa izango zuen seguruenik hurrengo hizkuntza. Beharbada Gernikako agustinoetan ikasiko zituen gramatika hastapenak. Baina gudu denboran, mugaz bestaldeko Euskal Herrian eta batez ere Parisen egiten duen urte t'ardi inguruko egotaldian sakonduko zuen, Sorbonako unibertsitatean ere matrikulatu baitzen Zientzia zehatzen adarrean<sup>6</sup>.

Ingelesarekin noiz hasi zen ziur ez dakigu. Baina aitak ingeles ondo zekien, itsas merkatal ontziko kapitaina izanik.<sup>7</sup> Gudu aurrean Madrilen ezagutuak zituen Bilbao, Galindez eta Mendieta lako gazte jende abertzalea aurrerago amerikarrekin nahasturik ibiliko ziren; ingelesa ikasia zuketean. Hizkuntza hori bere kabuz ikasi zuela dirudi eta pentsatzen dugu Madrilen bertan gudu aurreko urteetan. Gogora dezagun 1940an Iruñera ingeles-ordezketza bat egitera datorrela eta 1942an Lleidako institutuan zela hango ingeles katedraren arduradun. Handik gerora, tarte labur bat kenduta hizkuntza hori bere lanbide bihurtu zuenez, irakurriaren puruz zein Ingalaterrara egin zituen osteren bidez, maila goreia jadetsi zuela badakigu.

Katalana Lleidako zazpi urteko egotaldi luzean ikasi zuen. Hitz egiteko gai zen, nahiz, berak aitortzen duenez, fonetika gaiztoaz. Dena dela, Francopeko urte berde haietan erregimeneko institutu bateko irakasle batek Lleidan katalan ikastea ez zen gertatuko, horretarako lehia beren-beregi hartu ez balu.

Alemana eta italiera ere ezagutzen zituen, irakurtzeko bestean behintzat.

---

<sup>6</sup> Bartzelona frankotarren mendeen jausten denean (1939-01-26) hara itzultita dago. Familia, Gobernuaren esanetara zeuden funtzionario guztiekin batera, Bartzelonara aldatua zen, Errepublikako gobernuaren 1937ko azaroaren 30eko aginduaren arabera.

<sup>7</sup> Aita anglofiloa izan zen mundu gerrate denboran ere eta isilpeko berriemaile BBC-rentzat.

Kanpo-hizkuntza guztion ikasketan erabakigarriak gertatu ziren ikas metodoak. Beti egon zen kezkatu eta interesaturik irakas metodoez, eta *VascH* metodoa egiteko ere beste hizkuntzetarako ikasi zuenaz baliatu zen, neurri baten behintzat.

## **Euskara: jatorrizkoa eta landua**

Gatozen atzera euskal hizkuntzara. Basterretxeak ahozko euskara Gernikakoa zuen; garbiago esanda, Saraspe auzoan eta bere auzoko mutil-lagunekin —eta helduekin ere bai seguru— ikasi zuena lau urtetik hamazazpira bitartean han egin zuen bizialdian. Gernikako kalean ez eze, albo-herrietan ere ikasiko zuela pentsa daiteke<sup>8</sup>.

Aitak eta haren familiak ere euskara kontuan parte handia izan zuten gure idazleagan, antza dagoenez. Familian aitaren partekoak ziren euskara zekiten bakarrak, baina horrezaz gainera kontulari bikainak ei zituen aita eta aitita. Aitatatik zetorkion, bada, ez bakarrik euskalzaletasuna; baita abertzaletasuna ere. Eta kontalari sena ere bai, larri-larri. Hala aitortzen zion 1964an Bitañori, honek *Zeruko Argia*-rako eginiko elkarrizketa baten (45 znb, 1964-01-05), ordurako idazle legez ezagun bihurtua baitzen, *Kurl* argitaratu ondoren:

“Aita ta aitaren parteko aittita izugarri onak ziran gauzak eta ipuinak euskeraz kontetan. Idazle gutxi topeu dotez euren besteko gatzagaz. Baiña ez eben idazten euskeraz. Lumea busti baiño ez eta erderaz hasten ziran.”

Oskillasok aitaren geriza-itzalak behin eta berriro akordaraziko dizkigu bere literatur lanetan. *Oskillaso* ezizena bera, aitak

---

<sup>8</sup> *Kurl* obran zeharka sarri aipatzen dira albo-herriok. Batez ere udako opor sasoiari ibiltze asko egiten zuten mutil koskorrok inguru herrietan: Muxika, Mendata, Ajangiz, Forua...

berari txikitan barre-burlaz esaten ziona, literaturgintzarako beren-beregi hautatu zuen. Narrazioan aurrera egin ahala, berehala ohartuko da irakurlea aitaren irudiak eta harekiko gertaerek duten maiztasunaz eta itzalaz. Baina aitaren kontalari-dohaina berariaz aitortzen digu idazleak:

“Aita ethorten zanean, adi adi egoten zitzaizkion etxeko guztiak, belarriak zabal zabalik. Eta gauza entzungarriak benetan edesten zituan, huntzian, itsasoan, edo urruneko herrietan gerthatuak.” (VIII. atal hasieran).

Aititaren oihartzunik ez du hainbeste bere sorkuntzan. Hala ere gorago aipatua dugu 1917an *Guernica* aldikarian gaztelaniaz idatzi zuen kontu bat, azpi-azalpen honekin: “cuento que oí contar a mi abuelo”. Baina oraintsuago argitaratu dugun aspaldi idatziriko ipuin baten, “Jan-urria” izenburua duenean<sup>9</sup> irudikatzen den Mikelen aitona, herri-jakituria handiko gizona, nor izan zitekeen Joseren aitita bera ez bazen?

Hamazazpi urterekin Gaztelara bizitzen doalarik<sup>10</sup> —lehenengo Valladolidera, gero Madrilera—, nonnahi zegoela ere lagun euskaldunak bilatzen ei zituen eta euskara egiten lanetik kanpora ahal zuen guztian. Alargunari sarri entzun diogu autu hori, baina *EuskM* zein *GabAt* lanetan argiro eta zehaztasunez islatzen du zehetasun biografiko hori. Iruñera bizitzen etorri zelarik, osterara, ez ei zuen halako suerterik izan euskara egiteko. Hala aitortzen digu aipatu elkarriketan:

---

<sup>9</sup> Artean argitaratu barik zegoen ipuin hau. Cf. *Idatz & Mintz*, 39, Labayru Ikastegia-BBK, 2004, 6-12.

<sup>10</sup> 1928an izan behar zuen Valladolidera joate hori, ikasturtea amaitu ondoren seguruen. Madrila 1930ean joan zirela dirudi.

“Urten herritik hamazazpi urtegaz eta beti ibili naz euskaldunekaz. Erdal Herrian beti euskeraz egiten lane-  
tik urtendako denpora guztijen. Hau Iruñera etorri arte. Hemen ija hamar urte daroadaz, baiña hemen ezin dot egin Madriden eta Erdal Herriko toki guztijetan egiten nebana; ezin batu euskaldun kuadrilla bat. Nere lagunak euskaltzaleak eta euskal apelliduko jenteak dira, baiña erdaldunak. Hona etorri arte sekula jazo etxatena jazoten jat hemen; erderaz egiten dot lagunakaz.”

Euskara landua, literarioa, bere kabuz ikasi zuen. Gudu aurrean, Madrilen unibersitatean ikasle zela eta hango Euskal Ikasle Bazkunan ziharduela euskara lantzeari ekin ziola esan daiteke. 1933-34 inguruan Madrilgo berriak bialtzen ei zituen Donostiako *Argia*-ra. Literatur lehiaketa apal batzuetan ere parte hartu zuela aitortzen du.

Euskal gramatika kontuetan gidari Seber Altube (1877-1963) izan zuela berberak aitortzen du. Hark argitzen ei zizkion zalantzak eta zuzendu akatsak. Hau ere, jaiotzaz arrasatearra bazen ere, 1915etik gora Gernikan dugu. Ezagupide zaharra zuten ziurrenik, beharbada gudu aurretik bertatik. Eta gernikartasunaren barne-lotura sendoa zuketen seguruenik.

Zamarriparen gramatika-idatziak ere sakon eta zehero eza-  
gutzen zituen —*Gramática vasca* eta *Manual del vascofilo* izango ziren batez ere—. Ez da harritzekoa honen ekarriei miresmen handia izatea Basterretxeak, beronek islatzen zuelako haren uste-  
tan hizkera zindo berezkoaren eredurik bikainena.

Azkueren lanak, batez ere haren *Morfología Vasca*, goitik behera ikasiak eta aztertuak zituen. Heldutasunean honen gramatika-azal-  
penei behin baino sarriago oharra eta kritikak ere egin zizkien<sup>11</sup>.

---

<sup>11</sup> Cf. “Contribución al estudio de la obra de Azkue”, *FLV*, 1974, 50 znb., 143-147.

Guduaren etenak horretan ere bere eragina izango zuen dudatzeke. Baina *EuskM* eleberrian protagonista 50eko hamarkadan *Herria* ipar aldizkaria eta Lizardiren lanak irakurtzen daku-sagu. Bere kabuz eta erdaldun giroan orduan ere barne-suak bizi-rik iraun zuela esan daiteke. Gorago aipatu elkarrizketan, zirika-garri bi izan zituela aitortzen du euskara landu eta sakontzeko: bata, Axularren *Gero*-ren edizio berria<sup>12</sup>; bestea, erdaldunetan euskararen kontra ikusten zuen amorrua. Hara bere hitzak:

“Axularrek, *Gero*-ren azkeneko argitaratzeagaz biz-tu eustan zeozer euskerazko gaietako zaletasuna. Baiña lehendik berez. Uste dot ezteutsatela zor ija ezebe euskaltzaleari euskaltzaletasunaren gaindegitik; baiña biho-tzetiko eskerrik beroenak emon behar deutsedaz euske-raren arerioei, asko lagundu deustelako euren gorrotoa-gaz neure euskaltzaletasuna sendotzen.”

Axularrez gainera, beste euskal idazle batzuk ere begiko zituen. Berak aitortzen dituenak dira, esaterako, Mogel markina-rra, Kirikiño mañariarra<sup>13</sup>, Domingo Agirre ondarrutarra eta Agustin Anabitarte donostiarra.

Ez zen bere euskalkiaz bakarrik arduratu. Euskalki literario diferenteak sakontzen ekin zion. Eta jatorrizko bizkaieraz gaine-ra, gipuzkera, lapurtera eta baxe-nafarrera ondo menderatzea jadetsi zuen. Berberak aitortzen digu aurrekoa, eta beste euskalki eta hizkeren ezagupideak ere bazituela.

Euskara batuaren aldeko Basterretxearen ekimenak ere goiz-tiarrak dira oso. Idazleak berak aitortzen digunez, 1958. urte inguruan hasita euskararen batasunari buruzko egitasmo bat

---

<sup>12</sup> Manuel Lekuonak prestatuturiko 1954ko edizioa izango zen.

<sup>13</sup> *Vasch* ikas metodoan haren *Abarrak* liburuko txatal bat sartu ere egingo du, eredu osotura ekarrita: “Zerutar bat” (II, 179-182).

eskuartean ei zerabilen. Batasun bidean proposamen mamintsu bat egin nahi zuen, saio edo azterketa mardul baten gauzatu gogo zuena. 1963ko martxoan, *Kurl* argitaratu eta bost-sei hilabetera, azterlan hori oraindik hastapenetan dagoela diosku. Egitasmo nagusi horren hasikin edo aurrerapentzat argitaratu ei zuen eleberria; “froga praktiko” modura, erants genezake guk.

## **Euskararen inguruko irakaste, kongresu, ikerkuntza, idazkuntza eta osteangoak**

### *Irakaskuntza, kongresu eta beste*

Kronologia labur bat eginez gogoratuko ditugu esangura apartekoa duten batzuk.

1965: Donostian “Julio de Urquijo” mintegiak antolaturiko euskal jaien barruan hitzaldia emango du, Mitxelenak hala eskaturik<sup>14</sup>.

1968: Euskaltzaindiak Arantzazun eratu zuen Batzarrean parte hartuko du.

1969: Urte horretatik hasita Jon Oinatibiak Arantzazun udako euskara ikastaroak eratu zituen zenbait urtez ipar amerikarrentzat, euskal jatorriko eta bestetarikoentzat. Jose Basterretxeak haietan parte hartuko du; arrazoiatariko bat, ingeles ondo zekie-la, beste orduko euskal irakasle edo euskalzale askok ez bezala.

1971: Jon Bilbaok Renoko Unibertsitatera euskara irakasten urtebeterako joateko gomita egiten dio, irailetik irailera. Baietz erantzuten dio. Ez zen bete asmo hori.

---

<sup>14</sup> 1965-06-10ean idatziriko gutun baten, artean Basterretxeak bidalita eman beharreko hitzaldiaren laburpena jaso zuela adieraziz, gogorarazten dio ekain horren 30ean izango dela, iluntzeko 7,30etan, hitzaldi hori aiuntamentu zaharrean.

## *Hizkuntza eta fonetika ikerketak*

Euskal gramatikaren eremuan, morfosintaxi arloan egiten dituen ohar eta obserbazioak, aldizkarietan batzuk —*FLV* batez ere—, baina bere ikas metodoan barrena batez ere, *El vasco de hoy* obraren lehen tomo bietan ikasgairik ikasgai garantzen dituen gramatika argibideetan. Artikulu laburron artean aipagarri dira:

1987: “Contribución al estudio de la obra de Azkue”, *FLV*, 50 znb., 143-147.

1989: “La declinación indefinida vasca. Caso particular”, *FLV*, 54 znb., 183-185.

Baina euskal hizkuntzaren ikerkuntzan, bere espezialitatea ez da morfosintaxia izango, fonetika baino.<sup>15</sup> Horretan zentratuko da osterantzeko gramatika arloetan baino gehiago eta zeheago. Intonazioa eta fonetika ahozko euskaran obserbatu eta aztertze-ari gogotik helduko dio.

Hizkuntza gaiak direla-ta —literaturazkoak barne direla— ikertzaile diferenteekiko harreman jarraitua izango du. Lehenik eta luzaroan, Koldo Mitxelenarekin. *Egan* aldizkariak eta han argitaratzeko narrazio eta osterantzeko idazlanen ingurukoa izan zen lehen urteetako gutun-harremana. Errenderiarrak lan-eskeak egiten zizkion aldizkarirako, eta aldi berean idazteko zirikatu ere bai. Euskararen batasun kontuez ere mintzatuko dira Arantzazuko Batzarraren ostetxoan, baina gerora, gehienbat gramatika eta batez ere fonetika gaiez jardungo dute gutun bidez.

Fonetika-ikerkuntzak egiten 1969an hasi zela pentsatzen dugu. Mitxelenari urte horren amaieran (abenduarien 19ko gutuna) idatzi zion Cernikako hizkeraren gaineko azterketa bat egina

---

<sup>15</sup> Horrekin batera beste ikertze adar nagusia didaktikarena izan zen, baina ez gara hemen horrezaz arduratuko.

edo eginbidean zuela esanez<sup>16</sup>. Eta honek beste gutun baten (1970-01-10eko data) Pariseko Sorbonatik erantzuten dio *Fon-tes-en* argitarara dezala, eta José Esteban Uranga zuzendariagana jotzeko bere izena aipatuz.

Euskararen fonetika eta intonazioaren gaineko zaletasuna eta kezka aspalditik zetozkion Basterretxeari. Belarri fina zuen. Ez dezagun ahantz musika gogoko zuela, batez ere klasikoa. Euskararen ere ahozkotasunari sekulako garrantzia ematen zion. Euskaldunberriek ere ahoskera eta intonazio egokia ikasi behar zuten euskaldun oso izatera heltzeko. Horregatik eskaini zion *VascH* metodoan ere hainbesteko arreta alderdi horri, hemen trataera didaktikoa emanaz.

Berberak maisutzat aitortzen duen Altubegandik ikasi edo beregandu zuen agian gai honegazko kezka eta interesa. Hark gudu aurrean argitaratu zuen *El acento vasco* liburuak (Bermeo, 1932) ireki zizkion beharbada begiak<sup>17</sup>. Irakurria izango zuen duda barik, Tomás Navarro Tomásek 1922an Eusko Ikaskuntzaren III. Kongresura aurkeztu zuen ponentzia ere, “Observaciones fonéticas sobre el vascuence de Guernica”, gudu aurrean bertan argitaratua. Baita Azkuek 1931an atera zuen “Del acento tónico vasco en algunos de sus dialectos”<sup>18</sup> ere. Eta nola ez, irakurria zukeen Mitxelena 1958an Parisen argitaratu zuen gai honezako ikerlan ezaguna: “A propos de l’acent basque”<sup>19</sup>.

Gernikako azentuaren gaineko ikerketa eginbidean zuen, bada, Unibertsitateko Euskal Katedran irakasle hautatu zuten

---

<sup>16</sup> Honen erantzun-gutunetik dakigu gutun horren berri eta haretako edukien ildoaz.

<sup>17</sup> Azkueren *Morfología Vasca* obrari egin zizkion “Observaciones a la *Morfología Vasca* de Azkue” lan luzean ere atal bat garatu zuen azentuaz: “Sobre el acento”, 186-213.

<sup>18</sup> Cf. Bilbao, Editorial Vasca, 1931.

<sup>19</sup> Cf. *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris*, 1957-58, 53 znb., 202-231.



inguruan (1970) eta orduantxe aurkeztu zuen, Unibertsitateko Filosofia eta Letrak Fakultatearen babesaz, Nafarroako Diputazioaren aurrean. Fonetika alorreko ikerketa bi ziren aurrez ikusita zituenak, edota Diputazioari aurkeztu zizkionak<sup>20</sup>: bata, Gernikako berbetaren fonetikari buruzkoa eta bestea Baztango hizkeraren fonetikari eskainia. Hala ere, 1971ko urrian aitortzen duenez, ikerketok atzeraturik ei ditu; une horretan lehentasuna euskara irakasteko metodoari eman behar ei zion, hori baitzen behinagoa unibertsitatean irakatsi behar zuenerako.

Gernikako hizkeraren gainekoa, orduan segituan barik, hiru-lau urte garrenera burutu zuen, eta baita argitaratu ere, jakina denez<sup>21</sup>. Baztango euskarari buruzkoa egin zuenentz ez dakigu. Argitaratu ez zen egin behintzat, eta haren paperetan ere ez dugu ikusi.

Gutunetarikoa baten aitortzen duenez (1971-1-26), Unibertsitatean euskara hautazko ikasgai ofizial bihurtuko ei zen 71-72 kurtsoetik aurrera: lau hilabeteko —edo “semestre” bateko, terminologiaren arabera— hiru kurtso eman beharko ei zituen urtez urte. Eginkizun berri horri behar bezala eta sasoz erantzuteko, burubelari sartzen da euskara metodo hori lantzen; askoz geroago *El vasco de hoy* hiru tomoko obra bihurtuko dena (1981). Artean material horiek apunte modura erabili zituela dirudi bere eskoletan.

Gramatika kontuetara bihurtuta, badira sintagma-egitura batzuk, bere literaturgintzan aplikatzen dituenak, guk desbidetat jotzen ditugunak, baina berak jatorrago eta zaharragozat zituenak. Determinatzaile bi izen sintagma berean sartzen dituen egiturez ari naiz: *edozein* aurretik eta *bat* atzetik duten sintagma-egiturak, bere idatzietan hor-hemen isurtzen dituenak, honela justifikatzen ditu bere *VascH* obran:

---

<sup>20</sup> Hala aitortzen dio K. Mitxeleneri 1971-1-26an eginiko gutun luze baten.

<sup>21</sup> *FLV* aldizkariaren orrietan argitara eman zituen, “Estudios sobre entonación vasca según el habla de Guernica” izenburupean, atal bitan banandurik: bata 1974an (353-393) eta bigarrena 1975ean (289-338).

“Hay que advertir que la evolución de la lengua ha llevado a la supresión del artículo indeterminado *bat* en el inesivo, el elativo, el adlativo y el genitivo locativo cuando se trata del indefinido, pues ya casi nadie dice *edozein etxe batetan*, ni *edozein etxe batetatik*, ni *edozein etxe batetara*, ni *edozein etxe batetako*, sino *edozein etxetan*, *edozein etxetatik*, *edozein etxetara* y *edozein etxetako*, siendo de notar que nada ganaría la lengua ni en expresividad ni en elegancia si se pudiese hacer que retrocediese en su evolución reintroduciendo el artículo *bat* donde hoy casi ha de jado de usarse” (II 319).

Euskal hiztegi didaktiko bat egitea ere bere asmoen artean izan zuen; hala diotso Jon Bilbao adiskideari<sup>22</sup>. Irakas metodoa amaitu orduan nahi zukeen lan horri ekin, baina, dakigula, ez zen arlo horretan sartu. Ikas metodoa gehiegi luzatu zitzaion batetik, eta osasunak ere lagundu ez bestetik.

### *Euskararen auzia, batasunaren auzia*

Ez ditugu hemen berriz aipatuko Basterretxearen eritziez eta jokabideez lehenago esanak. Ez gara hemen sartuko ere *El libro negro del euskara* (1984) lan-bilduman darabiltzan azter eta gogoeta-gaiez jirabiran. Hainbat gai jorratzen du han: euskararen gizarte egoeraz eta iraupenaz, hizkuntzaren kalitateaz, batasuneko bidez eta ezinez, irakas metodologiak, itzulpenen kalitateaz

---

<sup>22</sup> Jon Bilbaori eginiko gutunean (1971-10-8) dio: “En realidad, si me encargaseis después de publicados los tres tomos del método, que os hiciese un diccionario moderno y científico, que en cada entrada dé respuesta a las dudas sobre empleo y muchas cosas que un buen diccionario debe tener, os diría que sí, a condición de que esperaseis unos pocos años. Este trabajo me permitiría escribir uno vasco-vasco que tengo en proyecto, quiero decir, el trabajo que hiciese valdría para el vasco-vasco”.

eta abar. Liburuaren izenburuak berak erakusten du euskararen egoeraz eta aldi horretako jokabideez duen ikuspegi ezkorra: *El libro negro* izena intentzio osoz ipinia da. Gainera dezagun, zahartzaroko Basterretxearen ikuspegia isurtzen dela saio-bilduma horretan, 80ko hamarkadako beste elkarrizketa batzuetan ere bere eritziei darien ikuskera beltz berbera. Dena beltz ikusten duelako mintzo zaigu garratz; bere izaera naturalaren kontra: euskararen batasunaz dela, euskal literatura modernoaz dela, euskararen irakaskuntzaz dela, 60ko hamarkadan erakusten zuen baino askoz jarrera ezkorragoa du; eta bere hitzei doinu gordinagoa eta garratzagoa darie<sup>23</sup>. 60ko hamarkadan egiten dituen adierazpenetan askozaz gogotsuago, asmotsuago eta baikorrago ageri da, bai euskal literaturaz, bai euskararen etorkizunaz orohar. Literatura-produkzioirik aberats eta ugarieneko urteak ziren haiek, *Kurl* honez ostean beste eleberri bi eta narrazio labur mordotxoa idatzi zituen urteak.

Batasunaren auzian Mitxelenarekin, Villasanterekin eta beste batzuekin, batez ere orduko euskaldunberriekin, zituen diferentziak eleberri hau argitaratu ostetxoko urteetan hasiko dira jada ageriratzen<sup>24</sup>. Aldi horretan erantzun edo “ihardespen” bana eskaini zien, lehenengo Villasanteri eta hurrengo Mitxelenari, *Egan*-en orrietan<sup>25</sup>.

Diferentziak gehiagotu egingo dira Arantzazuko Batzarraren ondoren. Hasteko, Basterretxeak ez zituen gogoko “batu” eta “batahun” hitzak; gurago zuen “osotu” erabili: euskalkien oreka egokia gordeko zuen eredia nahi zuen, hiztun egiazkoen erabile-

---

<sup>23</sup> Hala Durangoko *Txistu y Tamboliñ* aldizkari literarioak (1986, azaroa) egin zion elkarrizketan.

<sup>24</sup> Villasantek *Arantzazu* aldizkarian egin zion haren hizkerari lehen kritikaxoa (1963, XLIII, 62).

<sup>25</sup> Cf. “Ihardespen bat Aita Villasanteri”, *Egan*, XXI, 315-322. Eta: “Ihardespen bat Mitxelena jaunari”, *Egan*, XXII, 162-181.

rak eta soziologia zainduko zituen eredu bat. Inolaz ere ez lapurtera klasikoan oinarriturikoa, orduan Bilbo aldetik zenbaitek proposatzen zutena. Eta erdiko euskalkietan oinarrituriko ereduari ere, gipuzkera-lapurtera soiletan sustraituari erreparu larriak ipintzen zizkion. Euskal hiztunen portzentaia esanguratsu batek zerabilen bizkaiera baztertzearen bildur zen. Bizkaiera ere eredu batuaren morfologian islaturik ikusi nahi zuen zenbait egituraren bidez.

Mitxelenak ahaleginak egin zituen Basterretxea erakarri nahirik. “Ez du inork, nik uste, bizkaiera baztertzeko asmorik” erantzuten dio Batzarraren ostetxoko gutun baten (1968-XI-5). Diferentziok gorabehera, argi utzi behar da batak eta besteak elkarri begirune eta estimazio handia izan ziotela euren bizi guztian.

Literato legez asko estimatzen zuen Mitxelenak Oskillasoren lana. Oraindik 1967ko irailean, Donostiako “Julio de Urquijo” mintegian eta *Eganen* erredakzioan darabilen lana utzi eta Salamancako Unibertsitatera joan aurretxoan, mesedez eta arren eskatzen dio aldizkarirako zerbait bidal diezaion: “Luze izateak ez luke axola, zurea izanik” (irailaren 20ko data). Eskari horri jaramonez *Akatsbako gizonaren heriotza* nobela laburra bidaliko dio *Oskillasok*.

Gerora ere Mitxelenak eta Basterretxeak, diferentziak diferentzia, begirunezko —eta adiskidetasunezko, gehi nezake nik— harremana izan zuten, batez ere hizkuntza ikerketen ingurukoa, gutunetan dakusagunez.

## **Ikerkuntza alorreko beste harreman batzuk**

1972. urtean edo ezagutu ziren Basterretxea eta Rudolph de Rijk holandarra Arantzazun amerikar euskaldun eta osterantze-koentzat Jon Oñatibiaren zuzendaritzapean eratzen ziren udako euskal ikastaro horietako baten. Uztailen izaten ziren ikastarook. Rijk ikasle taldearekin etorri zen Ameriketatik, eta Baste-

urretxea irakasle izan zuen. Hor sortu zen euren arteko adiskidetasuna<sup>26</sup>.

Urte horretan bertan bidali zion Amsterdamera *Kurloiak* liburuaren ale bat, Rijkkek biziro eskertu ziona. Harik aurrera harreman estua eta luzarokoa sortuko da euren artean. Holandarrak aholkulari hurreneko hautatuko du Basterretxea euskal hizkuntza kontuatarako, berariaz gramatika eta lexiko kontuetan. Euren harremana gutunez gauzatzen zen sarritan, baina horrez aparte aldiro etortzen zen Iruñera eta beraren etxean egoten zen ostatuz. Egotaldi luzeak egiten zituzten elkarrekin, Rijkkek eginiko lanen gaineko zalantzak argitzen, zuzenketak egiten edo oharrak erantsen.

Estimazio handia eman zion Rijkkek Basterretxeak euskal azentuaren gainean, Gernikakoan oinarriturikoan, egin zuen ikerketari (1974, 1975). Unibertsitatean ezinbesteko langai modura erabiltzen ei zuen.

Rijk miresmenez zuzentzen zaio beti Basterretxeari. Hara haren gutun batzuen hasierak: “Agur, nere irakasle gogoratu hori” (1973-01-25), “Agur, nire Jaun ta irakasle ori” (1978-01-11), “Agur, nire biotzeko irakasle yayo ori” (1986-02-19)

Jon Bilbao (1914-1994) Basterretxearen belaunaldi berekoa zen, hiru urte gorabehera. Madrilen ezagutu zuten elkar Euzko Ikasle Batzaren inguruan gudu aurreko urteetan (1935 inguruan?). Gudu ostean luzaroan ez zuten elkarren berririk izan, harik eta Arantzazuko Batzarrean (1968) atzera topo egin zuten

---

<sup>26</sup> Euskara ikastaldiei ez ei zien behar adinako etekinik atera, nekatuegi baitzegoen. Horiak eta haren biografiako beste zertzelada jakingarriak ere aitortzen dizkio Rijkkek Basterretxeari gutunean (1973-01-25):

“Gauza bakar baten damu naiz; alegia, burua orduan hain nekatuegi nekala ta ez nintzala ematen zenituen ikastaldi jakingarriez ahalik ondoen baliatu ahal.

Oraino ere badut buruko nekadura hori, nahiz gero ta gutiago. Ameriketara zuzi urtez ikasten ibiltzea ta han bakar-bakarrik bizitzea gehiegi izan da nerezko, noski. Arantzazuko euskal ikastaro horrezkero ez dut deus lanik egin.”

arte. Harrezkero harreman jarraikoa izan zuten, batez ere gutunez, bata Renon eta bestea Iruñean baitziren.

Jakina da Jon Bilbaok Euskal Herrira euskara ikastera bialtzen zituen ikasle amerikarrak Basterretxearen ezagupideaz egiten zituela sarritan.

Joxe Migel Barandiaranekin aspalditiko harremana zuen. Juan Pedro aita eta Joxe Migel lagun minak ei ziren; etxekotasun zaharra zuten, beraz. Baina harremanori estuago bihurtu zen ikertzaile ataundarra Nafarroako Unibertsitatera etortzen zenetik, hango euskal kulturako katedran eskolak ematera; dakigunez, ostean ere sarri egoten ei ziren elkarrekin.

## Literatura

### *Literatura eta arterako barne joera*

Oskillaso ez zen literaturgintzan sartu, euskararen alde egiteagatik, edo horrek bultzatuta. Literaturgintzan abiatu zen, literatura gogoko zuelako, maite zuelako, artea orokorrean maite zuen bezala. Arte plastikoak, musika, zinea... eta letrak denaren gainetik. Letra ederren munduan, jakina da literatura ingelesa zuela gogozkoena, eta orohar ingelesezko literatura. Mahai gainean eduki ohi zituen liburuetakoa zuen Shakespeare-ren obra osoen bilduma. Gaztelaniazko literaturan urrezko mendea zuen guren; agian *El Quijote* izango zuen obrarik begikoena. Proust-en *Denbora galduaren bila* ere irakurtzen zuen. Literatura unibertsaleko lanok jatorrizko hizkuntzan irakurtzen zituen. Baina literatura itzaltsu horrekin batera, fikziozko eleberri modernoak ere gozaro irakurtzen zituen, batez ere ingelesez.

Ingelesezko literatura aipatu dugu, baina hura ez eze, haien kultura, izaera eta pentsamoldeak ere kideago zituen beste batzuk baino; frantsesa edo gaztelania baino, kasurako. Lehenago ere esan izan dugu inoiz, anglofilia hori seguruenik aitatatik zetorkiola. Juan Pedro Basterretxea, aita, marinoa zen; ingeles ondo zekiena, itsasoan merkatal itsasgintzan luzaroan bizi izana, eta lan



Oskillasok koinatuari, Claudio Penzol mediku asturiarrari, egindako erretratua (1954).

harreman hizkuntza ohikoa ingelesa izan zuena. Baina hizkuntzarekin batera, pentsaerak eta joerak ere kutsatzen baitira, politikan ere anglofiloa izan zen, gorago esan bezala. Ez da dudarik seme-ari oinordetza hori kutsatu ziola, hizkuntzari eta idiosinkrasiari dagokionez. Hainbestearaino kutsatu ere, non bere kabuz ikasi ingelesa bihurtu zuen lanbide nagusi.

Semeak behin baino sarriago gogorarazi digu euskal hizkuntzaren inguruko gaietan, berezko jitez baino inguruan ikusten zuen premia larriak eraginda sartu zela. Ikas metodoari eskaini zizkion urte luzeak, horretan hutsune handia ikusten zuelako izan zela. Baina berezko barru gozamina ematen ziotenak pintura eta literatura zirela. Obserbazio hau garrantzitsua begitantzen zaigu haren biografian: bokazioz zela ertilari eta literato, eta lanbidez edo eginbeharrak eraginda bihurtu zela hizkuntza-metodo egile.

*Literatura-lan batzuen kronologiaz eta edizioez. Bibliografia zertzeladak*

1. Sei urteren barruan argitaratu ziren (1962-67), Oskillasok idatziriko literatura-lanak. Harik eta, hemeretzi urteko etenaldi luze baten ondoren, gorderik zeuzkanak berriro argitaratzen hasi zen arte. Lehen aldikoak “euskara osotu” zeritzan ereduaz. Berandukoak, bizkaieraz: “euskara osotu” hartatik ediziorako beren-beregi bizkaierara egokiturik.

*Kurl* atera ondoren (1962), hurrengo urtean bertan idatzi zuela dirudi bigarren nobela. Eleberri honek *Euskaldunak Madrilen* izan behar zuen gure ustez. Eta hirugarren bat ere hasita ei zeukan. Hau diosku Bitañoren elkarrizketan 1964ko urtarrilean:

“Nobela bat daukat eginda argitaratu barik eta beste bategaz hasi naz”.

Hirugarren nobela horrek *Akatsbako gizonaren heriotza* izan behar zuen, nonbaiten ere. Nahiz *Eganen* orrietan 1967an argitaratu (190-239. or.), amaieran idazleak berak zehazten du idaztedata: “Iruñean, 1964garren urtean”.

Bada Mitxelenak gure idazleari bialtzen dion gutun bat, 1965ekoa (apirilaren 6ko dataz), honen nobela argitarabakoa



aipatzen duena. Berean dio: “San Martinek idatzi dit esanaz Itxaropena gertu dagoela zure nobela argitaratzeko”. Artean Mitxelenari aipatua zion seguru argitaratzearen gaineko aholkua. Nobela horrek, oker handi barik, *EuskM* izan behar zuen. Baina urte horretarako *Akatsbako* ere idatzita eta argitaratu barik zeukan. Mitxelenak gutun bidez Juan San Martinen mandatari egiten du eta gaineratzen du, Itxaropenak ipintzen dion baldintza egile-eskubideak liburutan ordaintzea dela. Gehiagorik ez dakigu honezaz; salbu ez zela argitaratu. Hirugarren nobela labor horrek handik urte bira ikusiko zuen argia, goian esan den legez.

1983an, orduko Bilboko Aurrezki Kutxak eratzen zuen Azkue narrazio lehiaketara bialdu zuen eleberri honen bertsio berritu bat —agian aldaketa gutxi izango zituen lehenengoko 63kotik—, baina ez zen saritua gertatu<sup>27</sup>.

## 2. Argitaratu barik utzi zituenez

Lehenago ere mintzatu gara inoiz Oskillasoren lan argitarabakoez. Neurriaren aldetik bat dago beste guztiek baino asmo goratuagoz idatzia: *Los gemelos de Iturriondo* eleberri luzea. Aipatuak ditugu lehenago haren idazkuntzan gertatu ziren gorabeherak: euskaraz idazten hasi zela, bertanbehera utzi zuela euskarazko idazkuntza, eta gaztelaniaz burutu zuela azkenez narrazio osoa.

Eleberri horrek duen balioa ez dago, gure ustez, ez teknika ez kalitate literarioen aldetik. Askoz gehiago dago alderdi etnografiko eta historikoen aldetik: anaia biki euskaldun biren bizitza Ekialde Urrunean, eta horren bidez pintatzen dizkigun gizarte-kuadro egia antzekoak.

---

<sup>27</sup> *Bidegileak* bildumako monografiatxoan 1984ko data eman nuen, baina ondoko gutun batek erakutsi dit aurreko urteko edizioa, 1983kora aurkeztu zuela.

Narrazio laburren bat edo beste ere argitaratu barik utzi zuen, nahiz aspaldi idatzirik eduki. Guk geuk argitaratu genuen horietariko bat orain dela urte gutxi batzuk, bere paperen artean aurkitu genuena, aurkezpen-berba gutxi batzuekin lagundurik: “Janurria”<sup>28</sup>.

Gaztelaniaz idatzirik beste narrazio labur bat badu, gutxiezez, guk dakigula: “El hijo del gran jefe” izenburua duena.

Susmoa dugu bazuela gogoan itsas merkataritza munduan giroturiko eleberri bat egitea ere. Helburu horri begira agindu zion Juan Pedro bere aitari, Madrilen bizi zenari, itsasoan ibili zeneko pasadizu eta bizipenak idatziz ipintzeko. Bai hark egin ere. Baina Oskillaso, guk dakigula, ez zen baliatu material horrezaz.

### 3. Zehar bidez argitaratuak

*Kurloiak* honen atariko *Hitzaurrea* horretan txertatu digun ipuina da horren adibide on bat: “Kopaz bethetako bendeja zilharrezkoa eskuan” hasiera duena (*Kurl*, 1962, 18-30). Ingeles umorea nonnahi darion euskal ipuin bikaina.

Narrazio laburrak direla-ta, adierazgarria da idazleak haietariko batzuei eman zien aplikazio didaktikoa. Idatzi eta hogeitabat urtera egin ere. Aspaldi *Eganen* argitaratuak zituen narrazioetariko batzuk *VascH* metodoan txertatu zituen, euskararen irakaskuntzarako baliagarri gerta zitezkeelakoan. Haietarikoak dira:

- “Mikel eta erdeldunak” (II, 440-443), barrenean data gogoratzen digula: “1962garreneko udazkenean idatzia”.
- “Nilonezko euritakoa” (II, 370-375).
- “The cask of Amontillado” (II, 248-250, 306-309), hau itzulpena.

Baina erredaktaturikoen artean badira artean ezezagunak zirenak ere, lehen tomoan txertatu dituen idatzi apalak, helburu

---

<sup>28</sup> Cf. *Idatz & Mintz*, 1994, 39 znb., 3-12.

literario aparteko bakoak eta izenbururik ere ez dutenak. Idatzioek, pasadizu antzeko kontak eta dialogoak dira, labur-laburrak. Baina umorez eta ironiaz mela-mela eginik daudenak: “Behin arratiar bi ferira joan ziran” (I, 112-113). “Euskaraz ikas-tea ezta gaitza” (I, 164-165). “Ama, noiz joango gara soineko bat erosten?” hasiera duen dialogo laburra (I, 214-215). “Mikolas eta Kospinasi” hasiera duen titulu bako kontutxoak (I, 338-340). “Joxek aspalditik darabil buruan kotxe merke bat erosteko asmoa” esaldiaz abiatzen den kontak (I, 398-399).

### *Literaturgintzako zenbait ezaugarri gain-gaineko*

Lehen ere esana dugu Oskillasoren literaturgintzan, era eta itxurari dagokiona ez dela garrantzitsuena; bai osteria gaiari eta edukiari doakiona. Pintura bezala, giza- eta gizarte-kuadroek gehiago erakartzen gaituzte; halaber gertaera eta pasadizuen kateak ere.

Beraren produkzioan darabiltzan argumentu literarioak irekiak dira, bizitza bera den legezkoak; ez borobilak, hasiera-garapen-amaiera borobildunak. Bizitzaren joanean, aldi jakin bat hartzen dute: puntu jakin baten hasi eta puntu jakin baten amaitu. Ez dio hainbeste ardura ez suspenseak ez ekintza-garapenaren osotasunak; ez du aparteko ahaleginik egingo ekintzaren amaiera borobil bat, epilogo txukun bat bilatzeari begira. Nobelak hartzen duen bizialdia gorabehera, geroa zabalik geldituko da pertsonaientzat eta euron bizimoduarentzat.

Oskillasoren narrazioetan mundu zabaleko leku diferenteetan kokatzen dira gertaerak, erdirengo pertsonaiak euskaldunak badira ere. Iturriondoko bikotzak Asiako beste bazterrean dabil-tza, baina Euskal Herriak hara joanak dira. Jaioterritik kanpora bizi diren euskaldunak dira sarri protagonista. Idazlea bera ere hala ibili zen bizitzan: Gernikatik Valladolida, handik Madrilara, gero Parisa, eta Bartzelonan gaindi atzera Madrilara; azkenean Iruñeko euskal hiriburura bihurtzeko.

Narrazioetako pertsonaiarik gehienak joan-etorrikoak dira. Bat, edo gehienez ere bi dira ekintza-ibilbide guztian ardatz direnak; beste guztiak inguruan dira, batzuk sarriago ageri direla, eta beste batzuk noiz edo behin.

Pertsonaion kanpo alderdia da pintatzen zaiguna: euren esanak eta eginak dira nagusi, eta esanon azpian dautzan eritziak eta pentsaera; pertsonaion bidez azaleratzen diren eritziak ez dira edozertarikoak, justu idazlearen intereseko diren arloetakoak baino. Pertsonaioen alderdi subjektiboari gutxi begiratzen die idazleak; pertsonaia nagusien sentiera eta bizipenei bai, hala ere.

Pertsonaioen bidez, ogibide eta lanbide diferenteak azaltzeari ere aparteko garrantzia ematen dio idazleak: medikuak, pelotariak, tabernari eta ostalariak, profesore eta ikasleak, nekazariak, itsasgizonak, elizgizonak e.a. Ogibideak funtsean gizarte baten irudi dira, bizimoduaren espilu..., eta justu hori da idazleak islatu nahi duena: gizarte kuadro errealista bat.

## ***Kurloiak obraren giltzarri batzuk***

### *Hizkuntza saioa ote?*

Hasteko eta behin, esan daiteke eleberri hau tesi-literatura motan sar litekeen obra modua dela. Bestetara esanda, idazleak, euskal literaturaz eta batez ere euskal hizkuntzaren inguruan dituen kezka eta sineste sakonak modu praktikoz erakutsi eta defendatzea duela asmotan, sorkuntzazko narrazio bat medio dela.

Ezin esan daiteke, hala ere, bere eritziok defendatzeko bitarteko edo aitzakia hutsa denik, zeren emaitza literarioak autonomia osoa jadetsi du. Idazlearen hizkuntza edo literatura usteen ekarria azpian datza gehiago, kontraeraren azalean baino. Irakurlea kontraeran barrena gustura sentitzen da Patxi eta bere lagunenek pasadizu eta okerreriak irakurriz eta dialogo gozo-arinak dastatuz.

Baina *Kurl* nobelaren kasuan, hurrengo bietan baino gehiago, baiezta daiteke, idazleak sorkuntza egitean helburu bi aparatu nahi dituela erabatera: literarioa eta linguistikoa. Asmo bikoitz hori, eta batez ere bigarrena, zehero garantzen ditu obrari aurrean ipini dion *Hitzaurre* horretan. Euskarari buruz, eta berariaz euskararen batasunari buruz idazleak duen jokabidea, edo tesia, hor ageri da islaturik.

Idazlearen *hitzaurrea* hizkuntza-saio bat da sakonean; hizkuntzaren batasunaren inguruko gogoeta. Eta ipuintxo batez borobiltzen du hitzaurre hori, hizkuntza osotua literaturarekin zubitu nahirik. Horren jarraian, teoriatzko argumentuen froga praktikoa: eleberria. Horretan baduke zelanbaiteko kidetasuna Mogelen *Peru Abarka* edota Azkueren *Ardi galdua* sorkuntzalanekin. Gauza jakina da, Mogelek *Prologo* izenburupean hizkuntzaren gaineko saio luze bat erantsi ziela aurrean bere *berbajardun* edo *dialogo* atalei. Azkuek ere berak bere kabutan eihotu zuen “gipuzkera osotua” nahi izan zuen literatura-eredu bihurtu eleberriaren bidez. Ez al zuen antzera jokatu Oskillasok guduoste antzutuan, *muttiko kaletarrak Bizkaian* protagonista harturik, bere uztako “euskara osotu” horri hezurra eta mamina eman nahirik? Euskara osotu hori, diosku, ez dela sistema gogor eta tinakoa, ezpada malgu, toles-erraz eta flexiblea. (16. or.)

Zertan datza Oskillasoren malgutasuna? Tradizio literarioen azterketa ohartu bat egin ondoren, eredu orekatu moduko bat aurkitu uste du, euskalki nagusi guztien ekarria izango duena, eta tradiziozko hizkera eta euskalkiei, gutxienez ere erregistro mailan, batez ere dialogoetan, iraupena bermatuko diena.

Azkuek gudu aurrean plazaratu zuen *gipuzkera osotuaren* bestelakoa izan behar zuen, edozelan ere, eredu horrek: euskalkietan oinarritua, eta ez euskalki jakin batean osoro zentratua; hiru euskalki nagusien morfologi-ezaugarrien osagarriez eraikia: erdiko euskalkiak ezeze, bazterrekoak ere aintzat hartu behar dira eredu horretan; hau da, bizkaiera eta lapurteraren ezaugarriak ere bere neurrian gorde behar ditu.

Idazlea jatorriz bizkaitarra eta bizitzez nafarra izanik, ez da mira egitekoa bazter-euskalkienganako sentiberatasun handia erakustea puntu horretan. *Kurl* eleberria, barruan dituen 21 kapituluuen bidez, tesi hori on egiteko ahalegin literarioa dugu, bada.

### *Narrazioaren egitura*

Zientzia-gizon baten zehaztasunaz eratu zuen aurrez idazleak obraren egitura: azalean iragartzen denez: *hogei ta bat arlo eta hitzaurre bat* dirausku barrenean.

Atal bakoitza ere ondo taiututa dago. Bakoitzaren izenburua, errefrau-atsotitz batez edo hartan oinarrituriko esaldi batez emana dago. Atal bakoitza Patxi mutikoaren bizitzako pasadizu nagusi baten ardatzean bilbatua dago, nahiz, egia esan, atal batzuk luzeagoak eta beste batzuk laburragoak diren. Atal bakoitzaren ondoren, aparteko orrialdean, aldi hartako irakurlearentzat guztiz ulergarri ez ziren hitz, hitz-aldaera edo hitz-segidekin eginiko zerrenda bat osotzen da, ondoan euren esangura dutela. Eta kapitulu bakoitzari dautsala, gaiari doakion irudi bat. Idazleak berak onduak dira liburuaren eduki guztiak goitik behera: bai testu idatzia, bai glosarioak, bai irudiak. Idazleak ondu eta borobildua da liburuaren konfekzio osoa. Artista baten eskua dago, azal eta mamin, liburu guztiaren egikuntzan.

### *Gaia eta argudioa*

Patxitxu mutikoaren seinzaroa eta mutiko-denbora kontatzen zaigu atalik atal obran barrena, berdingotasunera eta ia gizontasunera ailegatu arte. Atal edo kapituluok kronologi sekuentzia egokian eratuak daude; progresio taiuzkoa dute atalik atal, hurrengorik hurrengora.

Pikareska eleberrien antz handia du *Kurl* obrak, batez ere lehen partean. Mutikoaren okerreriak kontatzeko duen umore ironiaz beterikoak Tormesko itsu-mutila dakarkigu gogora.

Mutiko baten seinzarotik praka luzedun bihurtu arteko bidean, aldi eta jazoera esanguratsuenak hautatzen ditu idazleak. Esanguratsuen direnak idazlearen begitan: atseginenak edo gomutarik gozoena utzi diotenak, sakonean.

Hor sartzen dira, besteak beste: familiaren irudia eta nortzuk osatzen duten; emakumez inguratua sentitzen da gure mutikoa txikitan, aita itsasoan baitzen; etxe barruko eguneroko bizimodua: berriketak, amaren haserreak, aitaren kontuak...; jaunartzea ospatze-eguna, oroimenetik sekula ahaztu bakoa; mutikoen arteko errieta eta burrukak; mutikoen jolas-olgeta ugariak; kolegioko bizimodu latza; udetako oporraldiak eta udako egunen luzea; Bilboko hiri nagusiaren lilura; aitaren itsasontziaren oroimen gozoa, eta abar. Labur esanda, mutiko baten bizitzako une seinalagarriak. Hemen ez dagokigu narrazioan isuri diren gai eta gertaerak behin banan gogoraraztea. Irakurlearen pentzudan uzten dugu eurok irakurri eta gozatzea.

Bide batez aipatu barik ezin utz daitezke ekintza nagusien ingurumarian bilbaturik doazen ekandu eta ohitura koadruak, batez ere jai eta ospakizunei lotuak: aste santua, Gabonak, Aratusteak eta beste. Idazleak zertzelada handiz eta intentzio osoz deskribatzen ditu halako ohitura sakon sustraituak, bere oroimenean zigilu markatua utzi dutenak, baina aldi berean, idazlearen begitan, *Arrigorrieta* lako hiri sustraitu baten izaeran eta historian habe sendoak ere direnak.

### *Kontalaria eta biografia-zipriztinak*

Guk behin eta berriro zeharka esana ukatuz, idazleak goraki dio: “Liburu huntan agertzen diran jendeak eta bertan khondatzen diran gertakari guztiak asmatuak dira”. Eta benetako nor edo zer batekin zeozelako antza hartuko balio norbaitek, egileak apropos emanikoa dela antzori. Filme eta narrazio idatzietan sarri ageri den formula berbera edo beretsua errepikatzen digu idazleak sarreran. Eta guk erantsiko dugu: neurri bateraino egia

dioena, batez ere literaturaren tramari dagokien puntuetan, baina sakonera jo ezkeror, autobiografia-oihartzun sakonak ditugu nahinon; zenbat eta gehiago eta hurragotik ezagutu idazlea, hainbat eta oihartzun handiagoa.

Kontalaria kanpotikoa da, orojakituna, guztiaren berri dakiena, zeinda kanpotik dena ikusiko balu legez. Pertsonaien kanpo eta barru ezagutzen ditu, haien pentsamentuak barne. Lehen kapitulua honetara hasten da:

“Patxi Urrutikoaraunabeitia ezagutu nuanean, urthe asko dirala, nere adiskide handia ume ttiki bat baino etzan.”

Zenbait pasartetan idazleak Patxi protagonista bihurtzen du narratzaile, kontatera lehen pertsonan eginez.

Horrez aparte, askatasun eta malgutasun osoz jokatzen du narratzaileak, nahi duenean narraziotik irten eta irakurlarearekin dialogatuz. Narrazioak ohi dituen konbentzionaltasunak ez ditu jagoten, askatasun eta malgutasun osoz baterik bestera mugitu baino. Hori guztiori, jakinaren gainean ebatzitako narratzaile-jarrerara da; hala erosoago sentitzen delako kontaezan.

### *Aitaren irudiaz aipua*

Aitaren geriza luzea ezagun-ezagun da narrazioaren joanean eta pasarte jakin batzuetan batez ere. Idazleak bere aitari dion miresmena neurribakoa da testuari darionetik, baina osterantzean ere badakigu, etxekoen artean baturiko zidurrietatik, idazleak bere aitari begirune handia ziola. Urruntxoago joanda, euskara bera gorde izana ere, umezaroa eta gaztezaroa Gernikan bizi izanaren gainera, aitagazko harreman estuari zor diola esan genezake.

Hautatu zuen ezizena bera ere, *Oskillaso*, aitari ikasia da eta bere barne-gogoan sakon erantsitako hitza. Itsasotik osteran etxera datorrenean eta semea, aita ikusiaz batera arin-aringa hurrera-





Oskillasok aitari, Pedro Basterretxea itsasontzi kapitainari, egindako erretratua (1945).

tzen zaionean, “Hamen dator gure oskillasoa” dirautso aitak bat-batean, hitz gozo honekin laztanduko balu legez. Aita-semeak elkartzen dituen barne-hari horren lekuko sentikorra dugu *oskillaso* hitzori, semeak literaturaren ingudean hilezkortuko duena.

Liburu sarrean ipini duen eskaintza ere, euskara berak bezainbat maite izan zuen aitari eskainia dago: *Nere aitaren oroitzapenetan*, dio barruko portadaren hurrengo orri zurian.

### *Kapitulu aurreko marrazki-irudien atsegina*

Gauza jakina da, gure idazlea, beste zeregin batzuen artean, artista bikaina genuela, eta pintura izan zuela, lanbide izateraino heldu ez bazen ere, gogokoen zuen hobbyetarikoa. Lehen edizioaren kanpo-azalean ipini duen pintura-erreprodukzio bikaina berberak pintatua da: familia osoa itsasaldetik auto-ibilaldia egiten. Eta barruan, kapitulu bakoitzaren hasieran, ezkerreko orrialdean ipini dituen marrazki bikainek, lumaz eta tintaz idazleak berak onduriko horiek, kapitulu gaiari atxikiak daude; hango pasarteren batetik hartua dute gaia.

Bakarrik gaineratuko dut, literaturari darion barne-edertasuna, liburuaren paperezko euskarri dotoreaz osotzen jakin duela, berariaz kapitulu aitzineko marrazki adierazgarrioren bitartez. Euroi begira geldiro adi-adi egoteak bakarrik atsegina ematen du.

### **Eleberriaren berehalako oihartzuna eta isilaldi luzearen ondoko berpiztea**

Oskillasoren eleberriak hots eta oihartzun atera zuen argitaratu ondoko urteetan: aldeko zein kontrako eritziak berehalakoan azaldu ziren; liburu *polemikoa* gertatu zen nolabait. Baina ez bere eduki literarioagatik, azpian zekarren “euskara osotua”ren proposamenagatik baino. Hau da, guk gaur 2007an liburua argitara eman izanaren guztiz bestelako arrazoiakatik izan ziren eztabaidok.

Urte berean (1962) eta hurrengoetan egunkari-aldizkarietan —entzutezkoen zehaztasunik ez dugu orain eskura— hainbat aipu egin zitzaion obrari edo bere egileari: albisteak, elkarrizketak, kritikak, erreseinak, e.a. Egunkarietan ere izan zuen oihartzuna: Iruñeko *El pensamiento navarro* 1962-11-6an idazlantxo bat eskaini zion. *La Voz de España* Donostiakoak 1963-1-4an elkarrizketa bat egin zion idazleari, eta hurrengo egunean, 5ean, edizioaren berri jaso zuen idazlan baten. Aldizkarietan argitaratu ziren kritiken artean aipa daitezke: Mitxelenak argitaratu zen urte berean

atera zuen kritika labur bat *Egan*-en (304-305). Jose de Artetxek ere erreseina labur bat egin zion 1963an *BAP*-en (109). Aita Villasantek ere urte berean kritika bat idatzi zuen *Aránzazu* aldizkarian (62). *Zeruko Argiak* Nikolas Alzola *Bitañok* eginiko elkarrizketa bat atera zion Oskillasori 45. zenbakian (1964-01-05), non espreski idazten duen: “Agertu barria dogu *Oskillaso* gure euskal idazleen artean. Bere liburuak, *Kurloiak*, zarata aundia atara dau euskal literatura zaleen artean”.

Gerora, batez ere 70eko hamarkadatik aurrera gertatuko den isilaldi luzeaz ez dugu hemen jardungo. Mende erdi irabazteko bost urte besterik falta ez duela, hautsartetik legez biziberritu da Oskillasoren *Kurloiak*, guduosteko gure nobela goiztiarra.

Horretarako diratekeen arrazoiak harrotzen ez gara hemen hasiko. Baina bizkaitarrok, eta zer esanik ez Gernikak eta Busturialdeak, arrazoi sendoak dituzte gure meritu handiko literato zaharra ahanzturatik jaregiteko. *Arrigorrieta* uri literario bihurtu eta hilezkortu zuen idazlea, bere burua gernikartzat zuena, goratzeko eta ondartzeko arrazoi sendorik ez al dago, geure ondareari balioa ematen hasi garen aldiotan?

## **Gaurkoturiko testuaren zehaztasunak**

Testua gaurko euskara batuaren morfologiara egokitu dugu, den-denean ez bada ere, ia denean. Idazlearen bereizgarritzat jo ditugun zenbait hitz-era bere horretan utzi ditugu.

Salbuespen bat egin dugu *Hitzaurrea* atalaz. Hau lehen edizioako modu-moduan utzi dugu, faksimil erara. Izan ere, Hitzaurre horretan laburbiltzen du idazleak bere tesia. Horregatik zaindu dugu lehengoan.

Dialogoak lekuan lekuko euskara-moduan eginik daude, eta horiek ere ez ditugu aldatu. Idazlearen idazkera-ezaugarri sendoenetarikoa baita protagonistak berea duen berbetan idatzia izatea.

Edizio honetarako onartu diren aldaketak, bada, ondokoak dira.

## *Puntuazioa*

### HITZAK BATERA ALA BEREIZ?

Bereziz diren batzuk batera ekarri ditugu.

Hala izen konposatutzat jo ditugun batzuk: *artha urun*, *buru hauste*. Berdin zenbaki eta zenbatzaile batzuetan: *hain beste*, *hogei ta hiru*>*hogeita hiru*. Juntagailuetan: *ez ta*. Mailegu-hitz batzuetan ere bai: *foot ball*.

Mugatzaile hurbil argiak direnak, baina idazleak erakusle modura idazten dituenak ere bateratu egin ditugu. Haietarikoak dira funtzio bokatiboko zenbait adjektiboren kasuak, bereziki dialogoetan darabiltzanak. Esaterako: *ume geizto horrek*>*ume geiztoorrek*.

Batera direnak bereizi egin dira, ostera:

Adizkiaren aurrean diren *ez* partikulak ere loturik idatziko ditu sarri, baina fonetika-adaketarik ez dagoen kasuetan banandu egin ditugu: *eztezake*>*ez dezake* eta horretara.

Part + *arren* batera idazteko joera garbia du idazleak, gaur ohi dugunaren kontra. Hala bereizi ditugu: *izanarren*>*izan arren* eta haien sokako guztiak.

Baita hauetariko hitz batzuk ere: *behinere*>*behin ere...*

### GIDOIA

Gaur ohiturarik ez dagoen lekuan gidoia kentzera jo dugu, batzuetan hitz-osagaiak elkartuz, beste batzuetan banandu. Elkartu ditugunean, halabaina, idazleak hobetsi duen fonetika zaindu dugu.

Hala elkartu ditugu, gaur guztiz lexikalizatutzat jotzen ditugun hauetarikoak: *hur-zaro*, *arrain-untzi*, *bakar-hizketa*, *buru-hauste*, *elkar-hizketa*, *esa-mesa*, *exer-toki*, *gaitz-izen*, *gela-zain*, *hirur-ehun*, *huts-une*, *ilun-nabar*, *ikas-gela*, *irabaz-bide*, *irakur-gela*, *irri-barre*, *itsas-huntzi*, *ixil-une*, *izen-orde*, *jan-gela*, *jaun-*

*hartze, kale-alde, mutil-zahar, orhoit-gailu, sinhes-gogor, zuzen-bide...*

Era berean lotu ditugu: *ibili-arazten* erako aditz erazle konposatuak.

Banandu egin ditugu, ostera, besteok: *esku-bete, hor-konpon, lapurreta-modu* eta beste batzuk.

Hitz errepikatuen kasuan ez ohi darabil gidoirik, baina gaurko bideari men eginez txertatu egin dugu honelakoetan: *geldi geldi, gorri gorri, ixil ixilik, zeatz zeatz,...*

#### GOI-KAKOTXAK EDO TILDEAK

Hitzen ahozko itxura laburtuak adierazteko ohi darabiltzan silaba arteko goi-kakotx asko kendu egin ditugu beste barik, irakur jardunerako erosoak edo beharrezkoak ez direla ikusi dugun kasuetan behinik behin. Hala: *e`in* (egin), *e`ik*, *o`in* (oin, orain).

Elkarrizketetan ahozko hizkera dagoen-dagoenean utzi denez, aditz nagusia eta laguntzailea banatzen dituzten kakotxak utzi ditugu, ulermenerako irakurlearentzat lagungarri izango delakoan: *zikinduko`zak, jantzi`zak*.

#### KOMAK

Gaur idatziz ohi den baino askoz ugariago darabiltza komak (,) idazleak. Esaldiak halako eten edo pausa behar duen guztian edo gehienetan dauka komak ipintzeko ohitura. Guk mehatzu egin ditugu apur bat, idazketari arintasuna emateko asmoz, baina neurria jagonez.

#### *Grafia*

#### GRAFEMEN GAURKOTZEA

<h> grafiaren erabilera gaurko Hiztegi Batuaren eredura ekarri dugu.

Ondorenez, kendu egin da honakoetan:

a) Kontsonante aspiratuen transkripzioak, <th>, <ph>, <kh>, <lh>... gaurko erara moldatu ditugu. Hala:

- aiphatu, aizpha, aphain, aphez, aphur, ephe, epherdi, iphuin, iphurdi, laphitz,
- aithortu, artho, atharte, athe, athera / athara, athorra, beth, bethi, borthitz, ethen, ethorri (dathor), gathilu, gerthatu, gerthu, guthun, itho, ithurri, mathel, muthil, othe, othoitz, urthe, zathar, zathi,
- bakhe, bakhar, bakhoitz, barkhatu, ekhaitz, ikharatu, ikhuzi, khe, khendu, khondu, khontu(ratu), lakhet, makhil, nekhe, okhela, sekhula, ukhabil, ukharai, zakhu...
- belhar, belhaun, bilha(tu), bilhusik, elhur, ilhabete, ilhun, zilhar...
- erhi, erhauts, erhotu, garhaitu, orhoitu, urhats > urrats...
- lanho, oinhaze, sinhets

b) Bestelako ingurune askotan ere kendu dugu:

Hitz-hasieran: *haina, haixtur, haizkora, hamu, hatzeman, hanitz, haztun, hogerleko, hontzi, horri, humekeri, huntzi.*

Bokalartean: *hil-herrietan, leihar, nohiz, ohinaze.*

c) Erantsi egin dugu idazleak ez zerabilen beste hitz batzuetan. Hala:

Hitz-hasieran: *aize, asarre(tu), atz, au, egaz, ile, ire, odei, ori (beilegi), ots, orma, ur* ('avellana').

Barruan: *be* (> *behe*), *beatz* (> *behatz*), *lengusu, min* (> *mihin*), *zearo, zeatz, ziarduan.*

d) Gaurkotu ditugu baita ere: *behein* > *behin*, *behan* > *behean*, *huolde, lehio* > *leiho*, *mahi* > *mahai* eta halako beste batzuk.

<j> grafema ere hitz bakan batzuetan <x>. Hala *ajola* > *axola*.

<ll>, <ill> grafemak <il> bihurtu ditugu orohar. Hala: *-gille* eta *-tzaille* atzizkiak, edota hauetariko hitzak: *artille*, *astokillo*, *billete*, *botilla*, *eskillera*, *ibilli*, *ille*, *iskanbilla*, *katillu*, *korapillo*, *kuadrilla*, *kutxillo*, *lillura*, *maratilla*, *matraille*, *milla*, *mordollo*, *morokill*, *ollar*, *ollo*, *oskillaso*, *pilla*, *pillo*, e.a.

Batzuetan bestela ere bai: *milloi*, *millionario*>*milioi*, *milionario*.

<ñ, iñ> grafemak ere <in> bihurtu dugu: *ahalegiñak*, *apaiña*, *ariñ*, *bikaiña*, *erlejiño*, *giñean*, *iñun*, *iñoiz*, *ipiñi*, *otseiña*... Berdin: *aña*, *baña*, *baño*, *koñatu*... Berdin maileguzkoetan ere: *muñeco*, *engañatu*, *español*...

<ph> digrama <f> bihurtu dugu: *jeographi*, *ortographia*, *phenomenu*, *philosophi*, *photographi*, *sulphidriko*, *telegrapho*, *telephono*...

<tt> grafema bitua bakarrera ekarri dugu zenbait kasutan, <t> soilera: *muttiko*...

Beste batzuetan, ostera, <tx> bihurtu dugu. Honen adibiderik ageriena, *-tto* atzizki gutxitzailarena da —inoiz *-ttu* aldaerapean—. Atzizki hau *-txo* gaurkotu dugu, edo *-txu* zegokion kasuan, zeren uste baitugu idazleak arrazoi etimologikoakatik hautatu zuela kasu horretan grafema hori, baina *-txo* ahoskatzeko intentzio garbiaz. Grafia-aukera bat baino ez zen, beraz, idazlearentzat, atzizkiorren etimologia ageriago uzten zuena. Hala aldatu ditugu: *eltto*, *errekatto*, *gathilutto*, *gurpiltto*, *gurutzetto*, *ipuintto*, *iturritto*, *liburutto*, *mahitto*, *makiltto*, *mosuttu*, *neskatiltto*, *opiltto*, *semetto*, *tto*, *txakurtto*..., eta berdin *Patxittu* protagonistaren izena.

Bide beretik <tx>ra erakarri dugu: *ttiki*>*txiki*, hor ere *tx* ahoskera hori adierazi nahi baitzukeen idazleak *ttiki* forma zaharra-goaren azpian. Aldiz *ttipi* aldaerako digrama bere hartan utzi dugu.

<tz>, <ts> eta <tx> afrikari-digramen erabilera ere gaurkotu dugu.

Batzuetan <ts>ren alde eginez <tz> zegoen lekuan: *aldatz*, *diotzut*, *faltzatu*, *iruntzi*, *poltza*... Edota inoiz, <tx> zegoen lekuan ere: *otxin*.

Beste batzuetan <tz>ren alde, <ts> zegoen lekuan: *sentsu*.

Eta azkenez, batzuetan <tx> ipiniz, aurrekoetariko bat zegoen lekuan. Hala: *intzaur*, *tzar*.

<x> batzuk <z> bihurtu ditugu. Hala: *axal*, *errax*, *haixtur*, *ixil*, *ixter*, *xentimo*, *xurrutada*, *xut*. Beste batzuk, ostera, <s>ra ekarri ditugu: *exeri*, *ixtripu*, *ixuri*, *koxxa*, *mixterio*, *oxin*, *xalto*, *xamar*.

<z> eta <s> grafien erabilera ere gaurkotu egin dugu.

Batzuetan <z>ren alde: *gustiz*, *inusementeria*, *peseta*, *prozezio*.

Beste batzuetan <s>ren alde: *azkatu* / *azkatasun*, *egiztazu*, *ezne*, *garezti*, *haztun*, *gozaldu*, *ugelazixo*, *zazoian*.

<y> grafema, i grekoa, zenbait maileguzko hitzetan darabilena, <i> latinora erakarri dugu. Hala: *mayordomo*, *systema*... Bestelako hitz bakanen batzuetan darabilena ere bai: *sayatu*. Erabiltzen du ere dialogoetan, herriko berba-modua transkribatzera-koan, berariaz adizkietan: *yabiltzoazan*... Guk *j* bihurtu dugu halakoetan.

## MAILEGUAK

Maileguzkoak diren hitzetan, berariaz kultura-hitzetan, idazleak europar hizkuntzetan nagusi dabiltzan grafiak zaintzeko jarrera du. Guk gaurko arauetara ekarri ditugu hatarikoak; baita maileguetariko batzuk maiz kakotx artean ipini dituenen ere, hitzok gaurko irakurlearentzat ezagun edo ohiko direnean behintzat. Hala erakarri ditugu: *acento*, *acumulatore*, *aprovechatu*, *automo-*



*vil, bachillerato, catedratico, caza, circo, comprenitu, conversacio, cordoin, correo, credoa, cuchillo, comun, descantsu, descuido, documento, dollar, esclavo, esplicatu, falsificacio, financetan, invitatu, lingüística / linguistico, mantecado, marques, muñeco, paquete, scientia, secretario, sociedade, vainilla, vocacio...*

## Morfologia

### DEKLINABIDEA

Deklinabidearen alorrean, idazleak, *-e* amaieradun hitzei *e*-batez hasten den atzizkia eranstea, bokal-bakar bihurtu ohi du, idatziz gaur eta tradizioz bokale bikoitzaz deklinatzen diren kasuetan. Hala egin ohi du, esaterako: *semEEK* > *semEK*. Guk gaurko eredura, *ee* bikoitzaren aldera, aldatu ditugu halakoak. Hala: *emakumEK*, *emakumEN* (> *emakumEEK*, *emakumEEN*), *biletEKIN*, *erregek*, *frailEN* (> *frailEEN*), *ikastetxETAN*, *iletatik* (> *ileetatik*), *kaletan* (> *kaleetan*), e.a.

Inesiboan behin baino sarriago baditu *txalupean* bezalako amaierak, guk *-an* transkribatu ditugunak (ez *-ean*). Ostera beste batzuetan, guk *-ean* egingo genukeen lekuan *-an* egiten du. Hala: *txapelAN*.

Adlatibo zuzenbidezkoa, bizidunekin inoiz *ganutz* darabilena *ganuntz* egin dugu. Hala: *guganutz*.

### ERAKUSLEAK

Erakusleetan idazleak proposatzen duen jokoaren ordeaz gaur zabaldua dagoen eredu erabili dugu: *huntAN*>*honetAN*, *haUK*>*haueK*, *heK*>*haieK*...

### ADITZAK

Aditzetan ere *-n*, *-la* atzizkia hartzerakoan bokalez amaitzen diren adizkiek hartu ohi duten *-e*- lokarri-bokala kentzera egiten

du idazleak. Guk gaurko ohiturara erakarri ditugu halakoak, irakurketa erraztu asmoz. Hala *genun* > *genuen*.

Beste askotan, lotura-bokal hori *-a-* egiten du, eta ez *-e-*, gipuzkera klasikoaren bidetik. Hala: *duan*, *duala*. Halakoetan ere eredu batuko *-en*, *-ela* amaierak hobetsi dira.

Adizkiek ahalerako *-ke* atzizkia dutenean eta ondoren *-n*, *-la* erlazio-hizkia, ez ohi du lokarri-bokalik ipintzen, *-ken*, *-kela* amaiera soilak baino. Guk halakoetan ere *-keen*, *-keela* erako amaierak ipini ditugu.

Aditz-jokoak gaurko arauetara ekarri ditugu denak: *nuan*>*nuen*, *zauden*>*zeuden*, *nituke*>*nituzke*, *zitzazkioten*>*zitzazkien*, *zoan*>*zihoan*... Idazleak euskalki guztietako erabilerak dakartza, euskara eredu osoa sortzeko asmoz. Edizio honetarako eredu batuan nagusitutako formetara ekarri ditugu: *deutsudaz*>*dizkizut*, *zeramazkin*>*zemaratzan*...

Aditz-erabilera batzuk bere-bereak ditu, behin eta berriro era berean erabiltzen ditu, hala ere, gaurko joeretara erakarri ditugu: *ausiki egingo luken*>*zukeen*, *hemendik atera lezake*>*liteke*... era horretakoak askotan darabiltza liburuan zehar eta denak egokitu ditugu.

Gainerako ezaugarrietan ere berdin jokatu dugu. Aditz-izenetan, adibidez: *gordetan*>*gordetzen*, *betetan*>*betetzen*, *erorten*>*erortzen*, *erabilten*>*erabiltzen*...

### *Lexikoa*

Gure idazlea, elaberria idatziaz bide batez, hizkuntza-saio bat frogatzen ari da, batasun-eredu bat proposatzen. Horregatik hitzen itxuran euskalki guztietara eta tradizio idatzira jotzen du zein aukeratu erabakitzeko. Guk, hala ere, gaurko formetara ekarri ditugu irakurlearentzat egokiagoa delakoan, beti ere kontuan hartuta lehenengo edizioa eskura duela interes filologikoa duenak. Hona egin ditugun aldaketetako batzuk: *arkitu*>*aurkitu*, *egunal-*

*di>eguraldi, gaxua>gaixoa, negurri, negurtu>neurri, neurtu, otoitzka>otoizka, bere, be>ere, zelaparta>zalaparta, baztar>bazter, ostantzeko>osterantzeko...*

Batzuetan amaierako *-a* itsatsia jarri diogu: *axolik>axolarik, aztarnik>aztarnarik, melodi>melodia...*

Idazleak hautatu dituen hitz-formak bere hartan utzi ditugu orohar, ukitu barik. Hala, *realismu* edo *radio* hitzei ez diegu aurreko *e* epentetikorik gehitu, esaterako. Berdin jokatu dugu gaur Hiztegi Batuak onartuak dituen hitz-ereduekin ere.

Horretan ez diogu egoki iritzi, bada, idazleak hauturiko itxurei muzin egiteari, izan ere irakurle helduak ez du ahalegin gehiegi egin beharrik testuko aldaerok ulertzeko ere eta.

Salbuespen batzuk badira horraitino. Gaurko irakurlearentzat bitxiegi ziruditen hitz-itxura batzuk, gutxi batzuk, gaurko erara moldatu ditugu. Hala: *asperkarri, kepide* eta besteren batzuk.

## **Bibliografia osagarria**

### *Autorearen lan aipatu batzuk*

#### SORKUNTZAZKOAK

- 1962 *Kurloiak (Herri txoriak). Mutiko kaletarrak Bizkaian.* Zarautz, Itxaropena.
- 1962 “Mikel eta erdeldunak”. *Egan*, XXI, 220-224.
- 1967 “Akatsbako gizonaren heriotza”. *Egan*, XXVI, 190-239.
- 1988 *Gabeko atorra.* Bilbao, Ika-Ibaizabal.
- 1994 “Jan-urria”, *Idatz & Mintz.* 39 znb., 3-12.
- 2003 *Euskaldunak Madrilén.* Labayru Ikastegia & BBK Fundazioa, Bilbao.

#### ITZULPEN LITERARIOAK

1963 “The Cask of Amontillado [E. A. Poe’k] / Upel bethe amontillado”. *Egan*, 4-6, XII, 123-130.

#### HIZKUNTZAZKOAK

1974 “Estudio sobre entonación vasca según el habla de Guernica”. *FLV*, VI, 353-393.

1975 “Estudio sobre entonación vasca según el habla de Guernica”. *FLV*, VII, 289-338.

1981 *El vasco de hoy. Navarro-guipuzcoano y Euskara Batua*. Vol. I-II-III. Bilbao, LGEV.

#### SAIO, KRITIKA ETA BESTE

1962 “Ihardespen bat Aita Villasanteri”. *Egan*, XXI, 315-322.

1984 *El libro negro del euskara*. Bilbao, LGEV.

#### AUTOREAREN INGURUKOAK

1962 Mitxelena, Koldo: “OSKILLASO. *Kurloiak (Herri txoriak)*. Itxaropena argitaldaria. Zarautz’en, 1962”. *Egan*, 304-305.

1984 *Hugo Orense ezizenpean Txistu y Tamboliñ* aldizkari literarioan 1986ko azaroan azalduriko elkarrizketa. Beronen izenburua: “Oskillaso: zeresan ugeri deken euskeldun baztertikue”<sup>29</sup>. Ikus sarean: <http://andima.armiarma.com/txis/txis0425.htm>

---

<sup>29</sup> Arteragoko gure lanetan ez dugu elkarrizketa interesgarri hau euki. Neologismoei buruz-eta esan dituenak aspaldiko eritziak dira. Aldiz, euskara enboreko hizkuntzak eta dialektoak bereizteko joera hori berriagotzat dugu. Batasunaren ereduak eta mamikuntzak hartutako bideen ikusian berak hartutako jarra kritikoa eta nolabait ertzekoa islatzen dute.

2004 Arejita, Adolfo: “Jose Basterretxea *Oslillaso*” gramatikari eta literaturgile (1911-1996)”. Nafarroako Unibertsitatean, 2004ko azaroaren 16an emaniko hitzaldia, Euskal Katedra sortu zeneko 40. urteurreneko ospakizunen barruan. Cf. [http://www.unav.es/katedra/Hitzaldiak/arejitaren\\_hitzaldia.doc](http://www.unav.es/katedra/Hitzaldiak/arejitaren_hitzaldia.doc)

*Adolfo Arejita*  
Arratzun, 2007-05-03ean



# KURLOIAK

Kaletarren haurtzaroa Bizkaian





*Nere aitaren oroitzenetan*



## HITZAURREA

*Orai direla hogei ta hamar bat urthe hasi giñean euskaldunok batasunaren bilha, eta egin dugun aurrerapenaz konturatzen geranean arras laburra iduritzen zaigu denbora hori.*

*Lapiko batzuekin azalduko dizut hau irakurle.*

*Hasieran zazpi lapiko geunzkan:*



*Lapiko bakhar bat behar genuala ta bat hautatu eta beste lapikoetatik hartutako tanta batzu bota genizkion.*




*Hunela sortu zan lehenbiziko batasun-euskalgia:*



*Gero Peruk, Pernandok, eta Manexek dastatu behar zuten eltze huntan gordetan zana. Huna zer erran zuten:*

*Peruk:*



*“Etxat gustetan lapiko hau” erran zuan, “neuria gustetan yat askozaz gehiago, baña tira, beharrezkoa dogu batasuna, eta iruntzi egin beharko dogu”.*

*Pemandok:*



*“Gusto bikaiña du. Ba al dago munduan eltze hobetik?” esan zuan.*

*Manexek berriz:*



*“Eztut iresten ahal” erran zuan, “Etzait laket”.*

\* \* \*

*Hanitz liburu egin ziran lapiko bakharrarekin. Ikus dezagun orai nola egin ziran, zelako abegia egin zioten irakurleek, eta zer gertatu zan gero.*

*Buru-hauste asko eman zizkieten Peruri liburu hauek eta bizkaiera hutsezko liburuak orai ere, bethi bezela, idatzi ta irakurriarren, saiatu egin zan gipuzkera osoz idazten eta irakurten.*



*Manexek etzituan ulertzen liburu hauek*



*Baña Pernandorentzat errezak eta pozgarriak ziran.*



*Etzan gelditu Manex lan gabe eta opor egiten. Huna zer egin zuan gero batasunaren alde:*


*Lapiko handi bat hartu, Lapurdi eta Benafarroako el-tzeak osorik hustu lapiko handi huntan, eta Zuberoko lapi-koaren erdia bere, barnera bota zion.*



*Eragin ondo, eta bigarren batasun-euskalgia jaio zan hu-nela: napar-lapurdiara.*



*Artean galtzapen handi bat izan du euskarak. Zazpigarren lapikoa hautsi egin da, eta galdu barnean zuan guztia!*




*Lehenbiziko zazpi lapikoen ordeztan, lau soilik dauzkagu orai:*



*Manexek egin zuana arras egoki iruditu zitzaioala ta hartu lapiko handi handi bat —Manexena baño bi bider handiagoa— eta han sartu du lapiko haurien barruko guztia liburutto hunen egileak. Eragin ondo eta hemen ematen dizu dasta dezazun.*





*Lapiko huni Peruk gusto ona hartuko diolakoan nago, bai ta Pernandok eta Manexek ere. Bainan utz dezagun hau geroak erran dezala. Bildur naiz halaz ere, ez othe duan utzi nahi izanzen Pernandok bere bizimodu lasaia.*

*Pernando: Euskaldun guztien arte lortu behar da batasuna, eta zu ere, besteak bezela, saiatu behar zera huntako.*

\* \* \*

*Hurrengo liburu batean azalduko dizut, zer dan EUSKARA OSOTUA bataiatu dutan systema berria. Ezta systema gogor eta tinko bat GIPUZKERA OSOTUA bezela; malgu, toles-errez eta flexiblea baizik. Eta liburuetan berria bada, Matusalem baño zaharragoa da euskaldunen ezpaine-tan.*

*Urthe asko dirala, adiskide mami bat nuan nere egunoroko lagunen arte, bizkaieraz baizik etzekiena; eta beste lagunekin ginoazalarik batzutan ohartu gabe, bizkaiera hutssez egin beharrean, gipuzkera edo naparrerazko esakeren batzu erraiten genituan. Orduan nere adiskidea asarretu egingen zan. Uste izaten zuan, berak uler ez zezan mintzatzen giñeala era kartan. Gutariko batek etzekian españolez eta erderaz hasi beharrean, hau gertatzen danean ohi dan bezela, bizkaieraz hasten giñean. Hauxe egin lezake systema hunekin ere. Edozein euskalgiz ohartzen dalarik badaki idazleak noiz gogaitarazten dituan euskalgi bakhar hori baizik eztakiten irakurleak. Ahalegiñak egin ditut nik liburutto huntan, hiru literatur-euskalgietako irakurleen berdin nekarazteko.*

*Badakit nik helburu bat baño eztala EUSKARA OSOTUA delako hau, eta eztuala ulertuko edozein euskal-irakurle batek nere liburua. Bere euskalgiz idatzi banu, askoz*

gehiago irakurriko zan bere eskualdean. Baña eskualde hartan bakharririk irakurriko luketen. Dagon moduan iñun ere ez asko eta Euskal Herriko eskualde guztietan zerbait. Alde batetik galtzen dana beste alde batetik irabasten da.

Sputnik edo pioneer batzu bailirean igortzen ditut liburutto hau eta hurrengo, euskararen batasunera iritsi nahiez.

Hurrengo liburuan ikusiko duzu irakurle nola egin dezaken systema hunekin aurrerakada izugarri bat ortographiaren batasuna lortzeko. Ez uste izan enagola ni Euskaltzaindiaren esanetara. Nota labur batzutan systema hau azaldu eta bidaldu egin nien euren iritzia jakiteko. Irigaray jaunak erantzun zidan Euskaltzaindiaren izenean. EUSKARA OSOTUA izenarekin atherako dutan liburuan irakurriko duzu bidaldu zidan eskutitza. Nik uste nuan baño gehiago luzatzen da liburu hunen argitaratzea, baña ahalik ondoen nahi dut athera nere lana alperrik gal eztedin eta linguistica scientia berria ikasten ari naiz huntako.

Ez egiteko jaramonik "h" letrari eskatu behar diet sarkaldeko irakurlei. Ixila da bizkaiera eta gipuzkerazko irakurleentzat españolez bezela.

Bizkaiko kaletarren haur-zaroa pintatu dut liburutto huntan. Bertan agertzen diran euskaldunen solasak, hizlari bakhoitzaaren euskalgaiian datoz, baña ez literatur-euskalgiz, laburpenez bethetako euskalgi arruntaz baizik, kalean egiten dan bezela. Beharrezkoa iruditu zait realismurik ez galtzeko.

Eta hau erraiten dizutelarik, oharpen bat esatea ethorten zait burura: Euskal Herriaren izakeran dago, bakhoitza bere euskalgiz mintzatzea, eta hau hunela izanen da euskara irauten dueno Jaungoikoa lagun. Liburuetan, radioz guz-

*tientzat hitz egiten danean eta hola baxharrik erabiliko da euskara osotua, gure hizkuntzaren batasuna lortu ta erdietsi ezkeru be.*

*Oharpen bat esatea falta zait oraino, eta hitzaurrearen amaian erranen dizut. Bainan hobeto uler dezazun, irakur ezazu mesedez ipuintto bat.*

\* \* \*



*Kopaz bethetako bendeja zilharrezkoa eskuan, gomitatuei edateko eskaintzen ziotelarik, baztarretik baztarrera zebilen William Zerrihandi salon zabal hartan. Bukatu egin zan musikaldiaren lehen partea eta laster hasiko zan azkeneko erdia. Bitartean atseden labur bat hartzen zuten orkestrak eta entzuleek, eta etxeko morroi bezela, gomitatuei edaten eskaintzea zan Zerrihandiaren zeregina.*

*Han zauden Txirpitzorþ jaun-andre aberatsak, Zozokil eta Zozokilesia, distiratsuak sociedadean financetan bezela Mrs. Sudurluze, Mr. eta Mrs. Ilezuri, Monsieur eta Madame Moltsahandi, Señor eta Señora Ilebeltz... hitz gutxitan esateko, jende nagusi talde eder bat. Etzan luzea gomitatuen zerrendea, berrogei ta hamar izen baizik ezpaitzuan, bainan millonarioen arte nagusienak han zauden bildurik.*

*Etxeko jauna eta linguista ospetsua, Mr. Mocoty ere millonario zan. Etzuan berak ezer egin dirua irabazteko; aitak batu zuan diru pillo izugarria, eta aitak ezarriak ziran bere ola handiak ere, gastatu ezinbesteko diru sakeleratzen ziotenak. Etzekian Mocoty'k dirua gastatzen baizik eta oso trebea zan linguistican, dirua gastatzeko modu segur batean. Bere andrea be, linguistizale porrokatua zan.*

*Zerrihandik Mr. Mocoty'ren ondasunei zathi handi bat khentzea asmatu zuan. Txiro izanik aberatsen gustoak zeuzkan. Etzuan dirurik, bainan bai diruzaletasun handia. Etzekian dirua irabazten, bainan edozeini irabaziko liokean gastatzen. Morroi bat zan Mocotyrenean. Hanitzentzat aski litza ke etxe aberatseko morroi izatea: ohe epela, janari ona, lan erreza, bizimodu trankil eta ziurra, eta illeko soldata eskasa baña nahikoa, etxekoek egiten baitzioten gastu nagusia. Bainan hau etzan nahikoa Zerrihandirentzat. Millonario hutsa zan bera oinetatik bururaino. Beharrezkoak zituan lujoa, janaririk gareztienak, hotel aphainak, morroiak berari begira, nahi zuana egiteko prest... Millonarioek egiten duten guztia egiteko jaioa zan. Baña ez edozein millonario batek egiten duena, millonario batzuek lan asko egiten dute ta; gustu oneko millonarioak ordea, lanik egiten eztutenak, hek bai, hek ziran bere ereduak. Heiek bezela egitea zan bere go-goaren deia eta bere vocacioa. Bainan millonario izateko*

*jaioa izanarren, etxe txiro batean jaiotako, ziguenaren, buruaren descuido bategatik.*

*Egimahalak egiten zituaren hunez, zelan edo halan aberastasunak bereganatzeko lan egin gabe.*

*Hasieran etzuan zorionik izan. Hogeita hiru urteko adina zualarik, giltzapean sartu zuten hiru urterako. Etzan egon kanpoan beste urtebete oraino, berriz espetxeratu zutenean. Oraikoa hamar urte ezarri zizkioten baina berriz sei soilik eduki.*

*Etzuan alperrik galdu presondegian egondako denbora luzea. Ohoin handi batzuekin adiskidetu zan eta euren erakaspenean lapurreta-modurik berriena ikasi zituaren. Espetxeratu zutenean etzekian oraino ahalgea zer zan eta orduan ikasi zuan bere modura. Dotriñeko ume baten itxura zuan, bere irakasle jakitunen ondoan, eta nola arrapatu zuten azaldu zutenean, gorri gorri zituaren mathelak neskatxa lotsati baten moduan, bere jakineza eta deskuidoak agerian uzten zizkiotelarik.*

*Kartzelan bertan estudiantu zuan, Azerimaltzur eta Sugehiguigarri, bere adiskide jakintsuekin, nola khenduko zioten Mr. Mocoty'ri bere seme baxarra, diru-pilla handi bat eskatzeko, atzera emateagaitik.*

*Oso trebea zan Azerimaltzur falsificazioak egiten. Biletak, documentoak, firmak... edozer faltzatzen zuan. Berak egin zizkion Mocotyrenean sartzeko behar ziran paperak. Gure linguista ospetsuak morroi bat behar zuan, eta paperhek ikusi ta, pozik hartu zuan Zerrihandi morroitzat, enbajadore baten gela-zain zintzo sei urte eta marques baten mayordomo beste lau izan zala erakusten baitzuten paper hauek.*

*Ipuina hasten dan egunean, loretegia olgetan zegoalarik, beribil batean sartu ta txabola batera eraman zuten*

*Mr. Mocotyren semea. Musika-batzarraren iskanbil eta harat hunatekin etzuten ohartu gurasoek seme maitearen ez egoitea.*

*Ordubethe gabe, eskutitz bat ekarri zuan correoak beste batzuekin batera. Han zegoan Zerrihandiren itzaropena, handik ethorriko ziran hain luzarotik igurikitzen zituan txanponak. Irakur-gelako mahian utzi zuan maiteki besteen gainean.*

*Urduri zegoan Zerrihandi musikea amaitu orduko. Behin baño gehiagotan joan zan sukaldera tabako erretara eta ixuritegira bere beharren egitera.*

*Dana amaitu eta Mocoty jaun-andreek jendei banan bana eskua hertsu eta agur esan ostean, Zerrihandik azkeneko gomitatuei soingainekoa, kapela, ta enparauak eman, eta athea hetsi zuan.*

*“Orai konturatuko dira semea falta zaiena. Orai irakurriko dute Azerimaltzurren eskutitza” zion Zerrihandik bere baitan.*

*Mr. eta Mrs. Mocoty liburutegira joan ziran.*

*Biak beso-alki sakon banan exeri eta Mrs. Mocoty'k orpo altuzko zapatak erantzi eta beatzak eragin zituan. Mr. Mocoty'k, ukondoa alkiaren besoetako lodi biguin eta goxoan,*

*“Non othe dabil Jim? Eztut ikusi arratsalde guztian”, erran zuan.*

*Ondoko gelatik hau entzuten zualarik, Zerrihandik eskuak igurtzi zituan.*

*“Eztago etxean gizona” erantzun zion andreak, “nola uste duzu etzala ethorriko oraino gugana etxean balego? Nere ahizpak eraman du berera. Baldin nere koñatua, Harold, New York'a joaten bazan, berarekin eramanen zuala erran zidan bart”.*

“Egungo amen ajolagabea!” erran zuan harrituta Zerrihandik bere kolkorako, ezkuta-tokitik irten gabe. “Ezer ere etzait higuinarrago egungo emazte modernak baño. Ai aintzineko ama samurrak! Ai semettoak bethi gona ondoan zerabiltzaten emazte etxekoiak!”

“Klin klin klin...” egin zuan Mr. Mocotyk cordoin bati tiratuz.

“Arra:ua!” erran zuan Zerrihandik, “hau ni deituteko da!”

Eta ixil ixilik urrutiratu zan beatzen puntaz bere ezkuta-tokitik. Urrutasun egoki batera heldu zanean, bira egin zuan eta bere oinkadak entzun ziran. Liburutegiko athera heldu ta tan! tan! jo zuan.

“Aurrera!” erran zuan Mr. Mocotyk.

“Deitu egin al dit berorrek jauna?” galdetu zuan Zerrihandik.

“Bai. Ekatzu mesedez whisky ta soda pizkat andrea-rentzat eta neretzat”.

“Berehala jauna”.

Edariekín agertu zanean, Mr. Mocoty Azerimaltzurren eskutitzari estalkia khentzen hasten zan.

Bildur zan Zerrihandi, besteek entzuten othe zituzten bere bihotz taupadak. Hain sendoak egin zitzaizkion, Mr. Mocoty egiten zuana ikusi ta.

Gero atzera bere ezkuta-tokira joan eta giltz-zulotik begira jarri zan berriz.

Mr. Mocoty, irakurten zuanaz harrituta,

“Mary!” deitu zuan bere emaztea, “ikus ezazu hau! Gauza harrigarriagorik eztut inoiz ikusi! Entzun ezazu zer dion karta hunek: Idazki hau zure eskuetarát heldu orduko...” irakurri zuan.



*"Harrigarria da" esan zuan andreak, "idazki hitzarekin hasi eta gero eskuetarat? ezin lezake. Ia ia?" ta khendu egin zion eskutitza. "Holakorik!" esan zuan irakurri zuanean, "Eta egia izan gainera! Ikusi behar sinhesteko!"*

*Zerrihandi ere harrituta zegoan giltz-zuloz beste aldean. Etzuan ulertzen ahal han gertatzen zana. Ez ta hurrik eman ere.*

*"Hau da handia!" erran zuan Mr. Mocoty, "Bizkai eta Gipuzkoako garbizale porrokatuek soilik ezagutzen duten hitz berria, hitz asmatua, idazki hitza... eta eskuetarat! Lapurdi edo Benafarroan baizik ezagutzen eztan azkeneko t hori... bi gauzak elkarren ondoan esakera batean? Nungoa othe da idazlea! Ia, ia, irakur dezagun ia nola jarraitzen dan... zure eskuetarat heldu orduko gure eskuetan egonen da". Hau irakurri ta, "Eztago dudarik", gaineratu zuan, begiak eskutitzetik khentzen zitularik, "idazle hau ezta giputz edo bizkaitar bat. Ohar ezazu nola esaten duan egonen heietako batek egongo idatziko luken tokian".*

*"Bai" ihardetsi zion bere emazteak, baña Lapurdi edo Benafarroako balitz, ezluke idatziko egonen, izanen baño".*

*"Arraiua!" esan zuan gizonak, "arrazoia duzu!" eta ol-dozkor geratu zan.*

*"Linguista txotxolo madarikatuak!" erran zuan Zerrihandik bere baitan, "semearen bizitza arriskuan eta linguistacako txotxolokerietan zabiltze?"*

*"Irakur dezagun gehiago eia... eta baldin hemen esaten dan guztia egiten baduzu..." irakurri zuan Mr. Mocoty, .Ikusi! ikusi! orai azaltzen da eztala lapurtar edo baxenapar; esaten Euskal Herriko alde heietan ezagutzen eztan hitza baita... Baña egon aphur baten. Ohar dezaiogun guztia hitzari. Erraiten da Lapurdin hitz hau, bainan gure gizona lapurtar eztala esan dugun ezkerro, bizkaitar izan behar-*

*ko da, Lapurdi eta Bizkaia khenduta, beste tokietan guzia esaten da ta”.*

*“Eztut uste bizkaitar izan dezakenik” esan zuan andreak, “bizkaieraz egiten badozu eta ez egiten baduzu erraiten baita”.*

*“...etzara bildurtu behar berari jazoko zaionaz... Eztu-  
zuia ikusten?” esan zuan Mr. Mocotyk, “Horra nik niona,  
jazoko... bizkaitar dugu gizon hori, eztago dudarik”.*

*“Ezetz ezetz!” egin zion bere emazteak, “Bizkaitar ba-  
tek ezluke idatziko jazoko zaionaz, jazoko yakonaz baño”.*

*“Eztakit ba, ikus dezagun nola jarraitzen dan: ... bestela  
hil eginen dugu... Bizkaitar batek hunela gabe, hil egingo  
dogu idatziko lukela erraiten baduzu arrazoia izanen duzu,  
bainan eztakit, eztakit...” eta gogoetatsu geratu zan berriz  
eskutitzari begira.*

*Zerrihandi dantzan zebilen txizalarriz, begia giltz-zulotik  
khendu gabe.*

*“John!” erran zuan andreak, “logale nago. Utz dezagun  
hau biharko. Bihar aztertuko dugu astiro”.*

*“Goazen ba ohera. Bai, bihar aztertuko dugu eskutitz  
atsengigarri hori”.*

*Argia itzali ta joan ziranean, aho bethe haginekaz gel-  
ditu zan Zerrihandi. Gero amorratu egin zan, eta ilei nahiko  
tiratu ostean, argia biztu, ta han ikusi zuan eskutitza. Hartu  
ta irakurri zuan:*

*“Idazki hau zure eskuetarat heldu orduko, gure eskuetan  
egonen da zure semea, eta baldin hemen esaten dan guztia  
egiten baduzu, etzara bildurtu behar berari jazoko zaionaz.  
Bestela hil eginen dugu.*

*“Txarrangburg’eko bidean, 94 gn. kilometroko seinale  
harritik hamar urhats eskumara, zuhaitz handi bat dago,  
eta ondoan harri zuri bat. Bihar goizean, bederatzi bedera-*

tzietan, zu bakhar bakharrik, zure Cadillac gorrian, seinale harrian jatsi eta oinez joanen zera zuhaitz handira eta harri azpian utziko dituzu ehun mila dollar paquete batean. Hau eginda atzera bidera joan, bira egin, eta ethorri zeran bide-tik joanen zera.

“Esandako moduan dana egiten baduzu, arratsaldeko zazpiretan arkituko duzu semea zuhaitz handiaren ondoan. Baldin hau dana zeatz zeatz ezpaduzu bethetan, edo polizien bat edo nornahi erranikako zuhaitzaren inguruetan agertzen bada, eztuzu gehiago ikusiko semerik.”

*Irakurri eta gela puntatik puntara hasi zan urhats handiekin. Noizik behin, gelditu eta ukabilkadak joten zituan buruan. Gero iletatik tiratu eta ostera be harat-hunatak. Artean txizalarrria be ahantzi zitzaion.*

*Gelditu zan azkenez eskutitzari begira eta*

“Bihar bederatzitako ohean egonen da oraino. Mr. Mocoty. Sugehiguingarrik artean hil eginen du haur gaxua, lehenik erabagia genuen bezela. Mila aldiz erran diot muttikoa ez hilteko txanponak hartu arte. Muttikoa hil ezkeru agur nere txanponak. Ez, gaztigatu egin behar diot, Mr. Mocoty eskutitzak dionaz konturatu gabe, hil eztezan. Arraiua! Ezin dut galdu minutu bat ere!” eta hau esaten bukatu orduko, bazoan bere gelara. Han soingainekoa jantzi, zapa-tak eskuan hartu, eta ixil ixilik athera zan kalera atzeko athetik, iñork ikusi gabe.

*Ardantegi bateko telephonutik deitu ta,*

“Azeri!” esan zion Azerimaltzurri, “erran ezaiozu Sugehiguingarriri muttikoa ez hilteko. Mr. Mocoty ezta joanen diruarekin bihar goizean”.

“Xxxxx!” egin zioten hariz beste puntatik, “Erotuta zagoz? Ez aiphatu iñoren izenik! Zer diozu? Eztizut uler-

tzen. Etzara ibiliko tranpetan gero... Khontuz gero khontuz! Zu baño gizonago izatea behar da niri adarra joteko”.

“Ez ez, ezin dizut azaldu hitz gutxitan. Mr. Mocotyk ez-taki semea khendu diogura.”

“Zer? Eztea heldu nere eskutitza?”.

“Bai, heldu da bai, eta hartu du, baña, benetan diotzut, ez-taki oraino ezer ere.”

“Ez al du irakurri?”.

“Bai, irakurri du, baña ezta khonturatu dionaz.”

“Eztala khonturatu? Ia txotxo, koplá gutxi neri gero... Ez-taki irakurten ala?”.

“Bai, nola ez? Zuk eta nik baño obeki... Mr. Mocoty linguistico porrokatua da.”

“Ta ze ajola niri linguistico edo linguistikondo bada?”.

“Linguisticoek euren jakintzakin hasten diranean ez-tiote jaramonik egiten irakurten dutenaren mamari, esakerei eta hizkera moduei baño.”

*Ixildu egin ziran biak une labur batean eta,*

“Idatz ezaiozu” gaineratu zuan Zerrihandik, “beste guthun labur bat, lehenbizikoa baño argiagoa, eta luza ezaiozu epha.”

“Engañetan banozu egiozu agur bizitzari” erantzun zioten hariz beste puntatik, telephonus klik! eskegiten zute-larik.

Atzera lehenbiziko bidetik joan eta berriz zapatak erantzi ta eskuetan hartu, ta bere gelan sartu zan ixil ixilki.

Biharamun goizean, beste eskutitz bat ekarri zuan correoak.

“Mary” deitu zuan Mr. Mocotyk estalkia hausten ziolarik, “Huna hemen beste eskutitz bat, bartkoaren antzekoa.”

“Ia ia, irakurri irakurri!” esan zion emazteak beregana et-horri ta.



“Lapur talde baten izenean” irakurri zuan *Mr. Mocotyk*, “zure semettoaren bizitza gure eskuetan dugula esaten neuntsun atzo eskutitz batean... *Huna nik niona!* esaten neuntsun bizkaiera hutsa da. *Giputz batek* esaten nizun *idatziko luken.*”

“*Balezake balezake... baña ohart ezazu nola erraiten ditun gipuzkerazko esakera asko be.*”

“*Ez naiz harritzen gipuzkera edo beste edozein euskalgiko esakerak bizkaitar baten ezpainetan entzuten ditudanean. Beste euskaldunei bizkaierazko esakeren entzutea ordea, zailago da.*”

“*Dana dala, niretzat idazle hori giputza da. Ia irakur ezazu gehiago.*”

“Ohar ezazu eznablela txantxetan, eta semea hilterik nahi ezpaduzu, etzaite ibili linguisticako aiko maikotan eta eman ezaiozu kasu eta arreta guthun hartan erraiten nizunari... *Badakit txantxetan eta aiko maikotan khendu ezkerogola zathi huntan ezer bizkaierazko kutsu atsegingarria duenik. Halaz ere idazlea bizkaitar dala uste dut, lehenago esan dizutenagaitik.*”

“*Gizona! Egun, dantzatzen dira ezpatadantza eta beste Bizkai-dantzak Gipuzkoa, Lapurdi, Benafarroa eta Zuberoan ere, eskualde hauietakoak Bizkaian dantzatzen dirar bezela. Zuk ezin dezakezu jakin, Euskal Herriko beste tokiren batzuetan ere, bizkaiera onartzen duan euskaldunik othe dagon.*”

“*Eztakit ba, eztakit ba. Ikus dezagun ia zerbait athera othe dezaken jarraitzen danatik... Aphur bategaitik eztugu hil eta orainan bizirik dago, bainan eguerdiko hamabieta-ko, han esaten nizuna espaduzu egiten, hil eginen dugu. Ohartzen zarea? zeure semea hilen dugu. Hemen bukatzen da eskutitza.*”

*"Gutxi athera dezake hortik."*

*"Bai. Lehen bezela gaude. Idazleuri berari galdetzea baidetik eztago. Zoritxarrez ahantzi zaio izena ta zuzen-bidea ipinten."*

*Gabetik egunera argalduta, han zegoan Zerrihandi orai ere giltz zuletik begira, hortzez karraskatzen eta ukhabilak tinko. Handik alde egin, aitzaki batekin karrikara athera eta berriz Atzerrimaltzurregaz hizketan, Mr. Mocoty telephonoaz deitzeko eskatu zion. Eskutitzak hari bidaltzea alperrik zan.*

*Mr. Mocoty k artean,*

*"Hartu al zenun zuk atzoko eskutitza?" galdetu zion emazteari.*

*"Nik ez" erantzun zion emazteak.*

*"Harrigarria da. Norbaitek hartu du. Hemen utzi nuan bart eta ezta agertzen."*

*Goizeko hamaiketean inguru, telephonoaz deitu zuten.*

*"Mr. Mocoty!" erran zuan hariz beste puntako abots ikaragarriak, "Eskutitz bi bidaldu dizkitzut..."*

*"Egon aphur baten" ebagi zuan Mr. Mocoty k, telepho-nua eskuaz estaltzen zualarik, "Maryyy!" deitu zuan, "ethorri ariñ. Guthunak idatzi dituna dago telepho-nuan. Eskutitz bi idatzi ditugula esan dit. Iñork ere ezta esaten egungo egunean eskutitz bi, bi hori atzean ipiñirik, bizkaieraz izan ezik. Gainera, nik uste dut bizkaierazkoa duala acentoa", eta telepho-nutik eskua khendu ta "barkha ezadazu jauna minutu bateko ebagia. Segi segi mesedez", erran zion urrutizkiñari.*

*Baña telepho-nua ixilik zegoan.*

*"Entzun! entzun!..." eta adi adi gelditu zan. Emazteari gero, "Eztago iñor, baño ezta eskegi. Itxaron eginen dugu" erran zion.*

*"Mr. Mocoty?" galdetu zuan telephonutik beste abots batek.*

*"Bai?" ihardetsi zuan gure linguistak.*

*"Etzazu utzi telephonua. Semeak eginen dizu berba."*

*"Aizu Mary, azkenean badakit non dagon gizon hori", azaldu zion emazteari, "zure aizphanean. Jim'ek hitz eginen ei digu orai."*

*"Aita! aita!" egin zuan ume-abots negarti batek, "banoa etxera John'ekin. Joan dira gizon geizto hoik. John ethorri da polizi askogaz eta poliziek lotu ta eraman egin dituzte gizon geiztoak."*

*"Zer da diozun guzti hori? Nolako ergelkeriak dira hoik? Ametsetan egon zarea? Zer erranen du izebak etxera ethorteko negarrez zaudela ikusten duanean? Tira, tira, ez ibilli umekerietan eta utz ezaiozu telephonua, nerekin hitz egin nahi duan jaun horri."*

*Hezurretako muinetaraino ikharatu zan Zerrihandi. Giltz zulotik urrutiratzeraz zuan, esku sendo batzuek besotik oratu zutenean. Ihes egin nahirik. borthizki tiratu, eta ukabilkada gogor bat eman zion arpegian, besoa oratzen zionari, baña beste batek atzetik beste besoa oratu eta klisk! eskuurretakoak ipiñi zizkion.*

*Huna zer gertatu zan: Jhon, Mr. Mocotyren sekretarioa, goiz jeiki eta ugazabaren kartak aztertu eta erantzuten ziztuan egunoro. Egun hartan, Azerimaltzurren guthuna arkitu eta polizari erakutsi zion. Gero gertatu zana irakurleak susma dezake.*

\* \* \*

*Arrazoiarekin asarretuko zintzake, baldin Mr. Mocoty-  
rekin berdinduko bazindust. Ezta nere asmoa irakurle mai-*



tea, zu zauritzea, ez ta urrik eman ere... baña (bai, baña bat dago) arren! etzaitze hasi euskara moduak aztertzen liburua irakurri gabe. Murgil zaitze bere horrietan eta utz ezaizu hau geroko mesedez. Bestela... etzaitut ofenditu nahi, baña bildur naiz ipuineko eskutitzei gertatu zitzaiona jazoko othe zaion nere liburutto huni ere.

Zerbait ulertzen ezpaduzu, oharpenetan arkituko duzu, zure euskalgian azalduta. Eztuzu irakurriko liburutto hau lanik egin gabe. Zoritxarrez eztugu egundaino jan euskaldun guztiok, lapiko bakhar batean egositako okhela.

Ez bota errua lapiko aberats opara eder eta handiarò, idazlearen jakinezari baño, baldin irakurten duzuna ezpaizazu atsegin.

Euskal libururik gehien gehienek, zerbait irakasten dute, nahiz erlijio, nahiz ekandu onen alde. Aphezek idatziak dira ia guztiak. Erlisioea eta aphezen erakaspenak maite izanarren, ni ez naiz aphez, ez fraile. Beharrezkoak iruditzen zaizkit aphezen erakaspenak, baina Jainkoak libra nadila euren zereginetan sudurra sartu eta eurei konpetentzia egitetik.

Irakur ezazu adiskide liburu osoa mesedez eta mila esker.

OSKILLASO



# I<sup>1</sup>

## PATXIREN POZAK PUTZURA, AMETS ZOROEN MODURA

Patxi Urrutikoaraunabeitia ezagutu nuenean, urte asko direla, nere adiskide handia ume txiki bat baino ez zen. Bere laguntzaz nahi dut liburutxo hau idatzi, eta bere haurtzaroko gertakariak ipiniko ditut bertan, baina gauza jakingarri batzuk soilki, eta ez gure mutikoaz erran litekeen guztia; ezin baitira idatzi, nahi izan ezker ere, inoren haurtzaroko gauza guztiak.

Ezer ere ez duzu irakurriko liburu honetan, ikastea mereziko lukeenik; eta baldin semerik baduzu, hobe izanen duzu umeen eskuetatik urrun gordetzen baduzu. Ez dezake hartu Patxiren haurtzaroa eredutzat. Ez zen zoritxarrez mutiko on bat. Higuina ematen zion amari, eta behin baino gehiagotan oka<sup>2</sup> eta barnea ahotik hustu eginarazi zion. Eta hori, orainan jaio ez zelarik. Baina sinesten ez badidazu ere, bilatu hortik, bilatu hemendik, ezin aurkitu izan dut bera baino mutiko hoberik nere ezagunen arte-

---

<sup>1</sup> [Egilearen oharra: Liburu honetan agertzen diren jendeak eta bertan kontatzen diren gertakari guztiak, asmatuikoak dira. Baldin bizi edo hil den nor-nahirekin edo nolana hiko entitate batekin edozelako antza badute, egileak eman zion antz hori apropos].

<sup>2</sup> [Oka: goitika, artiki].

an. Nahiz hil eta zeruratu, nahiz kanporat joan, ez da gelditu Arri-gorrietan, haurtzaroan on-on izandako gizonik. Anitz dira ordea, Patxi baino okerrago izan direnak.

Jaio eta berehalaxe, inork irakatsi gabe, hau da handia!, gizon haziek bezain ongi zekien piz egiten. Okerra bazen, ezin ukatu ernea ere bazela!

San Antoneko elizan bataiatu zuten Bilbon. Elizan sartu orduko, amak sabela bete, eta patxada handiaz zegoen amabitxi-  
ren besoetan. Ez zuen erakutsi lotsa handirik aldare nagusi aurre-  
tik igarotzerakoan, orainan kristau ez zelako edo.

Berak gutxien igurikitzen<sup>3</sup> zuenean, ur hotzez busti zuen ape-  
zak. —Zer egin diot nik gizon handi horri, ur hotza botatzeko? —  
erraiten zuen Patxik bere kolkorako, garraisika hasten zelarik. Orduan apeza latinez hasi zitzaion, baina Patxik ez zion ulertu hitzik ere.

Berriz aldare nagusi aintzinetik iragan zenean, Patxi negarrez zegoen. Halaxe egiten omen dute protestanteek. Baina baketu zai-  
tez, irakurle, neuk sakonki ezagutzen dudan honek, benetan erran diezazuket: beste gauzetan akats batzuk bazituen ere, Patxi kato-  
liko zintzo bat izan da beti Jaungoikoari eskerrak.

Goseak akulatuta negarrez hasi eta amaren bularretik lotara, goseak berriz esnatu arte; hona bere zeregin guztiak.

Hile batzuz gero, oratzen ikasi eta ileetatik oratzen zuen ama. Doi-doi<sup>4</sup> askatu amak esku ttipi bat eta bestearekin oratzen zuen, lehen baino sendoago. Berak egin beharrean, amak egiten zuen negar orduan.

Ez zuen lotsarik inoren aintzinean. Behin piz egin zion gainean apez bati. Ahalgegabe zikinak, apezpiku bati ere, berdin-berdin eginen ziokeen.

---

<sup>3</sup> [Igurikitzen: itxaroten].

<sup>4</sup> [Doi-doi: osta-ostan].

Xurgatu ezkerro gauza guztiei esnea zeriotelakoan, amaren bularrari bezala, denbora hartan Patxik dena eramaten zuen ahora.

\* \* \*

Bilbotik Arrigorrietara ekarri zutenean, hiru urteko adina zuen. Amak gona ondoan zerabilen beti. Baselizetako beila eta erromerietara, inguruetakoko herri txikietara jaietan, eta toki askotara egurastu eta pasiatzera, biak joaten ziren; gehienetan beste andre batekin, amaren adiskide mamina berau, Patxiren adineko eta Edurne izeneko alaba ttipi baten ama.

Gure mutikoak arreba bat zuen, bera baino urtebete zaharra-goa, Katalin izenekoa. Beronegaz eta Edurne eta beste neskatiltxo batzuekin, maiz egiten zuen jolasean Patxik, Edurneren ama eta berea berriketan zeudelarik.

Aita itsasontzi handi bateko agintaria zen eta behin edo bi bider urtean etxera etortzen zen, hamar edo hamabost egun igarotzeko, itsasoetan zeihar, Bilbotik Anberesa, Anberesetik Bremen, Bremendik Cardiffa, Cardiffetik Saguntora, Saguntotik Genoara, eta abar, kairik kai ibili ostean.

Edurneren aita ere kapitana zen, eta itsasoetatik zebilen Patxirena bezala.

Ez zuen inork ulertzen Patxi gaixoaren arima. Ez ote zaie gertatzen hauxe bera haur gehienei?

Patxik ez zuen aurkitzen atseginik neskatilen jokoetan, eta gainera euren aginduak bete behar izaten zituen beti. Honegaitik, bakarrik ibiltzea izaten zuen nahiago, bazter batean jolas eginik, lasai eta atseginenez, mundutik urrun.

Baina nahikoa zuen amak, askatasuna gozatzen zegoela igartea, hasteko:

—Isilegi dago gure Patxitxu. Seguru barrabaskeriren bat egiten dagola.

Eta hau erraitea baizik ez balitz!... Zoritxarrez esaten bukatu orduko, bila hasi, aurkitu, eta garraisika, edo beharbada, zar-

tadaka ere, iratzartu egiten zuen bere jolasen amets pozgarrietatik.

Bera bakarrik eta zeruan zegoela iruditzen zitzaion. Ama etorri eta... ez dugu erranen infernura jeisten zenik, baina... purgatoriora bai.

Behin, esate baterako, irakurgelan, behean eserita, aizturak<sup>5</sup> eskuan, *Enciclopedia Espasako* tomo batetik santuak ebagiten, pozik zegoen mutila. Ama etorri, liburua eta artaziak kendu, eta hau gutxi bailitzan, ipurdia berotu eta negarrez utzi zuen gure Patxi gaixoa.

Zoritxarreko irakurgela hartan, erloju bat zegoen mahaiaren gainean. Behin Patxik krausk! lurrera erorrarazi zuen eta gero gurpil eta errobeda polit asko kendu zizkion. Ama etorri, gurpiltxo guztiak kendu, eta gainera ipurdian jo egin zuen.

Bazirudien susmatu egiten zuela amak zeintzu ziren jokoetarik pozgarrienak Patxirentzat. Atsegingarrienetarikoa zuen guztien artean buztinezko mendi, ibar eta erreken egitea. Honela ziharduelarik, ez zitzaion axola handirik janzkietariko berrienen zikintzea ere; hain handia zen joko honek ematen zion poza. Baina amak idoroten zuenean, ez zen Patxi guraizeekin edo erlojuarekin baino zoriontsuago izaten.

Txikia zen eta askotan beharrezkoa izaten zuen handien laguntza. Baina handiek, lagundu beharrean eragozpenak ipini, eta axola handiko gauzak ere galdu egiten zituen.

Gau batez milaka ikusi zituen izarrak, etxetik hurbil zegoen mendi batean erortzen zirelarik. Ez zekien oraindaino *izar-auria* izendatzen den fenomeno zer zen, eta izar-eskukada baten bilatzeko gogo bero-beroa sartu zitzaion bihotzean. Mari otseinari laguntzeko eskatu zionean, ez zegoela joateko beharrik erantzun zion *sehiari*<sup>6</sup>. Arras erraza ei zen izarren egitea eta jakin zekien

---

<sup>5</sup> [Aizturak: artaziak, guraizeak].

<sup>6</sup> Testuan *sehiak*, baina zentzuak *sehiari* eskatzen du.

berak, baina orduan lan egin behar zuen. Hurrengo batean eginen zizkion nahi aina.

Benetan oldozkor eta gogoetatsu ipini zuen gure Patxi ihar-despen honek. —Zerezko eginen ote ditu neskameak hain gauza ttipi eta distiratsuak? —zioen bere baitan.

Biharamunean, leihoan opor egiten ikusi zuelarik, izarrak egiteko eskatu zion neskameari.

Azkenean hasi zitzaion ba Mari izar bat egiten... baina baaa!!! paperezkoa!

—Goazen! —eskatu zion Patxik neskameari—. Goazen arin mendira, jentia izar guztixak topeu eta eroan baino lehen!

Berriz engainatu zuen otsein maltzurak. Oraikoan “gomazko muñeko harrigarri bat” ekarriko ziola sinestarazi zion. Muñekoa beheruntz bota ezker, sabairaino igonen zen, eta egun guztian gora eta behera, lurretik sabaira eta sabaitik lurrera punpaka<sup>7</sup>, gelditu gabe ibiliko zen.

Kopin<sup>8</sup> miragarri haren itxaropenarekin ahantzi egin zitzaion Patxiri izarren bila joatea. Hura izan zen bai tamala! Mariak, ganorabako aluak engainatu ez balu, ziur-ziur aurkituko zituzkeen izarrak.

Eta ez zen izan hau txarrena. Ezta kopina ere ez zion ekarri!... Arrazoiarekin esaten zuen amak, Mari ganorabako handia ezertarako gauza ere ez zela.

\* \* \*

Aita etorri eta alaitu egiten zen Patxiren etxea eguzkia ateratzen denean bezala.

Ez zegoen orduan egungo taxien antzekorik, baina bai beribil-tzainekin alogeratzen ziren automobilak. Baldin aita itsasotik etortzen zenean eguraldia ederra bazen, Bizkaiko anitz tokitara joaten zen Patxi arreba eta gurasoekin halako automobil batean.

---

<sup>7</sup> [Punpaka: boteka].

<sup>8</sup> [Kopin: panpina, muñeko].

Behin...

Baina orai jakinen duzuna, irakurle, ez ziokeen erranen berak inori orduan, munduko diru guztia eskainia izan balu ere. Uste dut halaz ere, urteekin ahalgea gutxitu eta, ez dela haserretuko belarrira esaten badizut, zuk gero inori ez esatekotan:

(Denbora hartan Patxik piz egiten zuen ohean.)

Baldin irakurlea bizkaitarra bada, jakinen du noski Gaztelugatxeko Done Ibanera eroaten dituztela ohean piz egiten duten umeak Bizkaian.

Joan ziren ba denak Bermeora behin, Gaztelugatxeko ugarte politera, baselizara igon eta Patxiri ohitura zikina ken ziezaiola santuari eskatzeko.

Ez zela bere errua, esaten du Patxik, gauaz behar zenean ez esnatzea. Baldin hau honela bada, nik uste dut barka egin beharko diogula zikinkerri hau.

Gero Elantxobera, Lekeitiora, Ondarrura, Deun Andoni Urkiolakora eta beste toki askotara joan ziren.

Alperrik galdetu diot nik Patxiri: arras lainotsu eta iluna da ibiltaldi hauetatik gelditu zaion oroitzapena. Pozik zebiltzala denak gomutatzen zaio bakarrik, eta txoferrak brusa zuria eta bisera belzdun kapela zuria zeramala, eta automobilari ezkerreko farola faltatzen zitzaiola.

\* \* \*

Gaitzizen bat atera, eta esan eta esan, neskameak amorraturazi egiten zuen gure mutila. Batzuetan, egia esateko gutxienetan, Patxik egiten zituen azkeneko irribarreak. Esate baterako behin, neguko oinetako astunak jantzita zituelarik, aipatu dugun izenordea —Ohientxiiiiize!... Ohientxiiiiize! —esaten hasi zitzaion. Hasi ostikoka Patxi, eta otseinak irriz urrats bat eskumara, ezkerrean, edo atzera, eta ihes egiten zion, mutiko gaixoari ostikadak alperrik aidean emanarazirik. Baina neskamearen zain-ernetasuna<sup>9</sup>

---

<sup>9</sup> Zain-ernetasuna: zain-erne egotea.




gutxitu zela edo, halako batean ostikada izugarri bat bernazurrean ematea lortu zuen Patxik.

—Aiii! —egin zuen neskameak, eskuaz hezurra igurtzitzen zuelarik.

Aienatu egin zen orduan mutikoaren amorrua, eta oraino negar malkoz bete-beterik zituela begiak, bera hasi zen gogotik barre egiten.

Baina zoritxarrez, neskameak egiten zuen barre bere lepotik gehienetan.



## II

# EMAZTE ONAK HILERRIETAN DIRA

Zazpi urteko adinera heldu zenean gure Patxi orainan muti-ko bakarra zen neskatiñen artean. Aita itsasoan zegoen. Eburne eta bere ama edo beste neskato batzuk izan ezik, gutxitan etortzen zen inor etxera eta han bera zen gizon bakarra.

Gero, urte batzuk igarota, gizon batek bere burua hil, eta alarguna, sei alaba eta amaginarreba uzten zituela irakurri zuen Patxik egunoroko batean. Gizon hura bosgarren estaitik<sup>10</sup> kalera salto egitera eraman zuena zer zen inori galdetu gabe zekien berak. Eguzkia baino argiago zegoen dena beretzat.

—Patxitxu! Erdu hona laztana! Ekak mosutxu bat!

—Patxitxu! Egon hadi geldi, arropak zikinduko'zak eta!

—Patxitxu! Garbitu eizak esku horreik!

—Patxi! Jantzi'zak arin zapata zaharrak, barrixak apurtu barik!

—Patxi! Etorri arpegixa garbitu ta uliak orraztera!

—Patxitxu! Ez ibili holan! Eztok ikusten zelan jabiltzoazan Katalin ta Eburne? Tira, tira, joan eurengaine ta ein olgetan eurekaz<sup>11</sup>!

---

<sup>10</sup> [Estai: pisu].

<sup>11</sup> [Ein olgetan eurekaz: egin jolasean berekin].

—Patxitxu! Mahaixan ipini bi'ok<sup>12</sup> horrelako buztin mokil<sup>13</sup> bat? Bota eik arin zikinkeri hori salara!

—Patxitxu!!!... Demoninuak daukaz mutiko honek! Beste egunian sagu higuigarri bat ekarri euskun ezkatzera eta oin lapiko baten gure deu<sup>14</sup> ipini bere usain txarreko ugelasixo<sup>15</sup> hori uretan. Txarrikeri hori botetan ezp'ok, eperdixa berotuko deuat!

Gona gehiegi prakadun bakar batentzat. Arrainak leihorrean bezain ongi zegoen gure gizona emakumeen artean. Eta nesken arteko elkartasuna sentitzen zuen gehienik. Bihotza zabaldu eta eginkizunen baten jakile edozein neskabila egin ezkeru, besteei berehalaxe esan, eta utzarazi egiten zion eginkizuna berritsu madarikatuak.

Zerbait egiteko gertu zegoela igarri ezkeru, arrebak,

—Amaaa! Ikusi Patxiuuu! —erran, eta amak jo egiten zuen besterik gabe.

Gero eta urrunago zegoen bere iritzia neskatxenagandik jolasei buruz. Neskak, bat bezala elkarturik, kontra egiten zioten, gizonari zor zaion errespetua ukatuta.

Osabek emaniko dirua zeukanean, neskameari eroslekura lagundu, eta han xahutzen<sup>16</sup> zituen txindi<sup>17</sup> guztiak.

Batzuetan kainaberazko txilibitu gorri bat erosten zuen. Txilibituak bost nota ematen zituen, baina berak bi baizik ez zituen behar.

Eska iezaiozue musikalaririk onenari, bi notaz soilik melodia luze bat asma dezala, eta ikusiko duzue nola erraiten duen ezin dezakeela. Patxik, solfeorik ikasi gabe, bi notazko serenata luze-luzeak jotzen zituen pi paa piii paaa... Zorritzarrez, etxean berari

---

<sup>12</sup> [Ipini bi'ok: ezarri behar duk].

<sup>13</sup> [Mokil: zokor, kozkor, soki, mullo].

<sup>14</sup> [Gure deu: nahi du.]

<sup>15</sup> [Ugelasixo: igel].

<sup>16</sup> [Xahutzen: garbitzen].

<sup>17</sup> [Txindi: diru].

bakarrik zitzaizkion atsegin serenata hauek. Txistuz bustiten zenean txilibituak gorriz zikintzen zituen eskuak eta janzkiak. Musika laket ez zitzaionean, hemendik hartzen zuen aitzakia amak txilibituaren kontra hasteko. Patxik akats bat aurkitzen zion: ahoan gusto zantarra uzten zuela.

Beste batzuetan globo musikadun bat erosten zuen. Tutu batetik zeihar betetzen zen haizez putz eginik, eta gero globoak tutua jotzen zuen hustu artean.

Edo tirritarrak, edo karamelu luze bat, habano baten itxurazkoa, edo burdin zurizko<sup>18</sup> helize bat, bihurkin batetik zeihar biraka irristarazi eta goruntz igotzen zena, edo goma luze batez zintzilik erabiltzen ziren pilotak, edo beste mila gauzetatik bat edo beste.

Erosle txikientzako gauzen artean tubo batzuk zeuden salgai. Tubo hauek lokarri zati ttipi bana zeukaten puntan. Patxik ez zekien zertarako ziren. Baina behin, dendan zegoelarik, mutiko batzuek bi edo hiru erosi zituzten. Gero, neskamearekin etxeruntz zihoalarik, mutikoen tuboa horma-zulo batean erdiraino sartu, lokarriari su eman, eta alde egin zuten. Laster danba! durrunda<sup>19</sup> bat entzun zen. Tubo edo hodia petardo bat zen, eta lokarri zatia, metxa edo bihurria.

Jostailu guztien artean, ziruriko edo petardoa izan zen politena Patxirentzat. Lehenbiziko *ikus-dezagun-ea* pozgarri benetan izan zuen. Ez zuen ohartu nola zuen ondoan katua sornada<sup>20</sup> bat egiten, eta batera egin zuten zirurikoak danba eta katuak ihes tximista bat bailitzan, Patxi harrituta eta pozez beterik utzirik.

Hurrengo *ikus-dezaguna* —jakina!— neskatila ohargabeen ondoan egin zuen, eta ia katuaren arineketaren besteko poza eman zion.

Larruzko ostiko pilota handi bat zeukan, eta ostikoz jo, eta lautik behin baizik ez zuen bidaltzen nahi zuen tokiruntz. Halaz

---

<sup>18</sup> [Burdin zuri: hojalata].

<sup>19</sup> [Durrunda: danbada].

<sup>20</sup> [Sornada: etzan-aldi, loaldi].

ere zorrotzegia iruditzen zitzaien etxeko oiloei bere punteria eta zuzen-igortzea, oilategiko bazter batean bildurik, bere football harat-honatak bildurrez zaintzen zituztenean, euren kontra *shoot* egin nahi zuelarik.

Ez ditugu aipatuko hemen oilategiko biztanleen artean egin zituen heriotzak. Patxiri ez zitzaion atsegin gai honetaz hitz egiterik. Berak ez zituela hil erran du beti, eta edozeinen belarriak jokatuko nituzke, berari galdetu ezkerro, baietz atera betiko leloa egun ere.

Atsegingarriak benetan ziren Patxirentzat oiloen zalaparta izugarriak. Atzetik ibili eta ia harrapatuta zeuzkanean, kar kar kar kar kakiiii! ezkerretik batzuk, eskumatik besteak, hegaz eta oinez, txinpartak bezala egiten zioten ihes, aidean luma asko utzirik.

Noizik behin Arrigorrietara etorri eta ilobentzako karamelupoltsak edo jostailuak ekartzen zituzten Patxiren osabek. Beste osaba batzuk Arrigorrietan bertan bizi ziren, eta mutikoa ikusten zuten bakoitzean dirua ematen zioten. Baina Joxe Migel, bere osaba amerikanoak, ez zion behin ere jostailu edo karamelurik ekarri, ezta xentimorik eman ere. Bere senideen artean aberatsena eta lukurreruen, emaztea eta bi alabak Ameriketara utzirik, Joxe Migel urtero etortzen zen Bilbora, bere irabazbideek ekarrita. Bilbon zeuzkan etxea, otseinak, automobila eta beribilzaina, eta maiz etortzen zen Arrigorrietara arrebarekin, hau da, Patxiren amarekin, eguna iragaiteko.

Osaba heltzen zenean Patxik jostailuren bat edo itxaroten zuen. Baina ikasi zuen azkenean inoiz ere ez zuela ezer ekartzen. Gero osaba etorri edo joan zelako, axola gutxi berari.

Amak asko maite zuen Joxe Migel eta abegi ona egiten zion beti.

Behin, osaba jangelan zegoelarik, heldu eta arrats-askaria<sup>21</sup> eskatu zuen Patxik.

---

<sup>21</sup> [Arrats-askari: berienda].

—Eztakik zer esan bihar doan (behar duk) jentie dagon lekuan sartzen hazenien? —itaundu zion amak.<sup>22</sup>

—Eskerrik asko! —erran zuen Patxik.

—Baaa! Eztakik *arratsalde on* esaten astokilo horrek? Tira, emoiok mosu bat osabari! —agindu zion amak.

Eta Patxi, astiro astiro, burua makurtuta osabagana joan eta, inoiz ume batek ezezagun bati eman dion mosurik hotzena ematen ziolarik, amak askaria atera zuen ontzitegitik.

—Eztakizu zelako biherria emoten deustan! —esaten zion amak osabari—, ikusten dozuz zelako arropak? Goizien ipini deutsataz danak garbixak. Zer egiten ete deu soloan holan lohitudeteko?

—Bai ba, nahi deuen guztixa ein deixela izten deutzazue ta... —ihardetsi zuen osabak—, neure semie balitz, zuzen ibili biherko leuke...

Eta bitartean Patxi mahai gainean zegoen kutxa bati estalkia kentzen hasten zela ikusirik, eskuan jo eta:

—Noren baimenagaz zabaltzen dok hiria eztokana? —esan zion osabak, Patxik inoiz entzun zuen abotsik agintari, hotz eta haserrearenekin.

Askaria hartu eta atera egin zen Patxi, pozik osabagandik urrutiratzeaz.

Ilunabarrean, solotik etorri zenean, ez zegoen osabaren aztar-narik.

—Ama —galdetu zuen—, zegaitik eiten deust beti agiraka<sup>23</sup> osabak?

—Zegaitik? Ba asko maite hau alako eta hire onerako, horra zegaitik esaten deuzan gustetan etxakazanak!

—Zegaitik maite nau? Nik eztot maite!


---

<sup>22</sup> *Eztakik zer esan bi'oken* (edo *bi'doan*) beharko luke hor, mendeko zehar galdera perpaus bat, esaldiak zentzua eduki dezan.

<sup>23</sup> [Agiraka egin: zentzatu, erasiatu].

—Eeee! Ez eik esan holakorik, ume geizto horrek! —erantzun zion amak.

—Hau zoritxarra! —erraiten zuen gero Patxik bere kolkorako—, osabak honenbeste maitatie be...





### III

## BERRIKETA BALITZ ARDATZA, ETXEA BETE MATAZA

Patxirenean, egunoro esaten zen ordubeteko Agurtza deuna edo errosarioa, baldin gure mutikoari iruditzen zitzaiona egia bazen.

Amak erraiten zituen misterioak eta kirieleisionak. Bera izan ezik, ezin zuen inork hitz egin errosarioa bukatu arte, ezta etxea erretzen hasi ezker ere. Amak, ordea, batzuetan zerbait agindu neskameari:

—Vas spirituale.

—Ora *por nobis*.

—Mari! Bota egixozu gatza lapikoari. Vas honorabile.

—Ora *por nobis*...

Edo, katua altzora igon zitzaiola eta:

—Zapi katua! Regina patriarcharum —egiten zuen katua eskuaz egotzirik.

Errosarioa bukatuta, denek *Aitaren* egin ostean, deadar bat bota, Ameriketako indioek botatzen dituztenak baino basatiagoa, eta bazter batetik bestera hasten zen arineketan gure Patxi.

Behin,

—Ama! Zegaitik esaten dogu ‘gure eguneroko ogixa emoizkuzu gaur’? Zegaitik eztogu esaten ‘emoizkuzu beti’? —itaundu zion amari.

Ama josten ari zen Patxik galdera hau egin zionean, eta une batean geldi-geldi eduki zuen orratza, zer ihardetsi ez zekiela. Gero,

—Hik esaik ikesi doken moduen, danok holan esaten joaguk eta —erantzun, eta ostera hasi zen josten.

Aspalditik zekizkien Patxik *Gure Aita, Kredoa* eta beste otoitz nagusiak amak irakatsita.

Aintzinean, Patxik oraino lau urteko adina zuenean, Joxe Migel osabak etxean bazkaltzen zuelarik, amak egunoro bezala jangaiak benedikatu, eta Patxik ez zuen erantzun oso ongi “Gure egunoroko ogia...”, edo behintzat hala iruditu zitzaion osabari. Orduan:

—Nire alaba bixak gaztiagoak ziela<sup>24</sup> —esan zion Joxe Migelek arrebari—, dotrine guztixe ekixen, ta pianoa jotzen be bai ganera. Arek ez zien egon ezer ein barik, denporie alperrik gal-tzen.

Eta Patxiri:

—Kredoa ikesten dokenien pezeta bat emongo deuat.

—Tira, Patxi! —agindu zion amak—, esaioek osabari *Sinisten dot...*

Orduan otoitz guztia esan zuen Patxik gelditu gabe, hasieratik azkeneraino. Jose Migelek harrituta:

—Hori be euskeraz? —galdetu zuen—. Zure semiek ezteu ikesiko erderaz sekule... Kredoa be euskeraz!...

Eta Patxiri:

—Ez, ezteuat emongo pezetie kredoa erderaz ikesi arte.

—Itxi eixozu ein deixela<sup>25</sup> euskeraz. Badeu denporie erderaz ikasteko ta —esan zion Patxiren amak.

Gero, osabak ohartzen ez zuenean,

---

<sup>24</sup> [Ziela: zirela].

<sup>25</sup> [Itxi eixozu ein deixela: utz iezaiozu egin dezala].

—Eutso<sup>26</sup> laztana pezetie —esanik, Joxe Migelek agindutakoa eman zion.

Zazpi urteko adina zuen Patxik elizara apezagana *dotrina* ikastera joaten hasi zenean, lehenbiziko Jaunartzerako behar bezala gertu egoteko.

Apezak sinismenaren misterioak irakatsi zizkion eta, batez ere, ogia eta ardoa Jesukristoren gorputza eta odola zelan aldatzen diren.

Aita etortzeko zegoen. Artean igurikitzen zeuden Jaunartzea egiteko.

Bihotzeraino sartu zitzaizkion apezaren erakaspenak. Egun haietan arras ona zela erraiten du bere amak, eta neskek bakean egiten zutela jolas, Patxiren eginkizunen bildurra ahantzirik. Oiloek ere, hitz egin balute, orduko lako bakerik sekula ez zutela eza-gutu erranen zuketen noski.

Apezek eta denek, Jaunartze eguna bere bizitzako egunik zoriontsu eta pozgarriena izanen zuela esaten zioten Patxiri.

Azkenean aita etorri eta heldu zen egun handia. Jaungoikozaletasun handiaz hurbildu zen Mahai Deunera gure mutila, eta otoizka egon zen belauniko geldigeldi meza bukatu arte.

Itxastar janzki zuria praka luzeakaz eta oinetako eta eskuetako zuriak jantzirik, errosarioa eta liburu zuria urrezko ertzakaz zeramatzan eskuetan, eta txirristilo zuria urrezko letrak eta zintzilikailuekin ezkerreko besoan.

Elizatik atera zenean pozik zegoen Patxi, sekulako egunik atsegingarriena orduantxe hasten zelakoan.

Berehalaxe hurbildu zitzaizkion bi atso, eta gurasoei berba batzuk esan ostean:

—O! zelako mutiko galanta! —hasi zitzaizkion—, liburu ta dana... ze dotore!...

---

<sup>26</sup> [Eutso: tori].

Eta musuak eman zizkioten.

Bere bizitzako egunik atsegingarrienaren hasierarako, ez zen hau Patxik itxaroten zuena. Bihotzez gorrotatzen zituen musuak. Orduan oroigailuak oroitu, eta andre bakoitzari bat eman zion. Berak igurikitzen zuen bezala, atsoek dirua eman zioten.

Orduan etxeruntz joan ziren denak gosaltzera. Minutu batean bildur izan zen Patxi, bere bizitzako egunik ederrena beste edozein egunen antzeko izanen ote zuen, baina lasaitu zen oroigailuen ordezeko dirua eman ziotenean. Beste egunetan atso batek musu bat eman ezkeru zer? Egon. Orduan ez zen bestetan legez. Oroigailua eman eta dirua hartzen zuen. Diruak musurik gabe pozgariagoak lirateke noski, baina etxerako bidean hiru pezeta kontatu zituztenean, “Ez dago txarto” erran zuen bere kolkorako.

Harrigarria da janzkiek duten indarra edozeinen ibilkerak, gogoetak eta baita izakera bera ere aldatzeko. Patxik, liburua eta errosarioa eskuan zituelarik, zuzen-zuzen egin zuen etxerako bidea. Ez zen ibili arineketan harat-honatak<sup>27</sup> egiten besteetan legez, eta ez zitzaion bururatu solora joatea buztinezko ugesien egitera; hain handia zen praka luze zuriek, urrezko zintzilakiek eta beste janzki berriek zeukaten ahalmena.

Jangelako mahaia, osokai oholek luzetua eta hamasei aulkiz inguratua, mota guztietako gozokiz estaldurik zegoen.

Gurasoen adiskideak, Arrigorrietako osabak, eta betiko neskatilak etorri ziren gosaltzera.

Neskatilantzako mahai luze bat antolatu zuten sukaldean, jangelakoa bezala hornitua, eta neskekin baino nahiago zuela eta, handiekin gelditu zen Patxi jangelan. Halaz ere, ordu erdian lau bider gutxienez joan zen sukaldera, osabek ematen zizkioten diruak neskei erakustera.

Osaba batek ogerleko<sup>28</sup> bat eman eta:

---

<sup>27</sup> [Harat-honatak: joan-etorriak].

<sup>28</sup> [Ogerleko: duro, bost pezeta].

—Hara! hara! ogerleko bat! —esan zien lehenbizikoan. Laster beste ogerleko bat eman ziotela eta, zeukan guztia erakutsirik:

—Hara! hamahiru pezeta! —erran zien.

Denak joan orduko hogeita hiru pezeta zeuzkan!

Gero fotografia baten egitera joan zen, eta goiz guztian ibili zen amagaz batetik bestera. Andre guztiekin hizketan gelditu eta bazkalordua heldu zen. Nahiz sama-korapiloa zuzendu, nahiz janzkiak konpondu, amak beti fotografia ateratzeko bezala ibilia-razten zuen.

Arratsaldean, aita eta amarekin, Jaunartze janzkiak berriro jantzirik, aitona eta amonarengana joan zen eta gero beste etxe askotara.

Atea jo, *Arratsalde on* esan, oroigailua eman, dirua hartu, eta beste etxe batera. Honela nahi zuen Patxik. Honela, etxe bakoitzean minutu bat egin ezker, diru pilo galanta bilduko zuen laster. Baina ez zen hau gurasoen iritzia, eta bere bizitzako egunik ederrenean ere Patxik gurasoen guraria egin behar izan zuen. Minutu bat egon beharrean luzaro egoten ziren etxe bakoitzean. Gurasoak Patxik ulertzen ez zituen berriketa luzeetan hasten ziren etxeetakoekin, eta mutiko gaixoa geldi-geldi eta gogaituta uzten zuten ordu asko, aulki batean eserita.

Azkenean berandu egin zen, gaua heldu, eta agur esan zieten azkeneko etxekoei. Baina oraindik beste ordubete egon ziren atean, irribarreak eta berriketak amaitu ezinik. Zurguetatik<sup>29</sup> behe-ra hasi, eta etxe hartako jendea oraino atetik:

—Etorri zaitzeze sarrixago —erraiten zieten—; urtien behin baino etzaituguz ikusten!

Eta gero Patxiri:

—Agur Patxitxu!

Eta oraindik gehiago:

—Mosu asko Katalini!

---

<sup>29</sup> [Zurguetatik: eskaileretatik].


Mut! il! aaak! Haiek ziren bai as! tu! naaak!...

Etxera heldutakoan, amak diruak kendu eta itsulapikoan<sup>30</sup> sartu zizkion. Afaldu eta laster oheratzera joan ziren Patxi eta Katalin.

Otoitz egin ostean:

—Gaur izengo zala neure bizitzeko egunik onena!... —erraiten zuen Patxik bere kolkorako—. Kaka mokordo! Kaka mokordo! Kaka mokordo!...

Bakarrizketa honetan zegoelarik, lo gelditu zen.



---

<sup>30</sup> [Itsulapiko: eltzegor, eltze itsu].

# IV

## EZKILA-SOINUA ENTZUN NAHI EZ DUENAK EZ SOKARI TIRA

Buruhauste gogorak ematen dizkiete gurasoei Patxi lako semeek. Mundura etorri baino ez eta gauza guztiak behar dituzte euren gustuz neurtuak. Egungo haurrek behinik behin, *ayuda familiar* delakoaz zerbait ekartzen dute etxera eta ez da harritzeko, txiki-txikitatik garraisika eurena eskatzen badute. Baina Patxi ez zien ekarri gurasoei buruhauste asko baizik. Baina goazen harira. Hau ez da gure arazoa. Ez dugu hartu luma honelako esamesetan hasteko, Patxiren haurtzaroa Patxiren gaindegitik idazteko baino.

Azkenean, ikastetxera joateko garaia heldu zenean, herriko kolegiara bidaldu zuen amak. Neskei agur egin eta orai mutikoe-kin ibiliko zelakoan, pozik zegoen Patxi. Baina ez luzarorako. Jantzki eta oinetako berriekin apain-apain jantzi, ileak ongi orraztatu erreten<sup>31</sup> zuzen-zuzen bategaz, eta amak neskamearekin bidaltzen zuen ikastetxera.

Ez ditugu eraman behar gurekin toki guztietara gure ohiturak, batez ere etxetik kanpoko gauzetan. Semea ikastetxera hone-

---

<sup>31</sup> [Erreten: erraia].

la bidaltzea Bilboko ohitura bada, Arrigorrietan beste ohitura bat dago. Gainera, zer daki ama batek mutikoen gauzaz edo mutikoen izakeraz? Patxi beste mutikoentzat kanpotarra zen, eta Arrigorrietako mutikoez ez diete abegi onik egiten kanpotarrei. Neskekin beti ikusten zutela eta neska-mutiltzat hartzen zuten. Ez zebiltzan eurak neskamearekin harat-honatak egiten edo apainapain jantzirik bera bezala. Pilotaka, footballlean edo burrukan prakak urratu, arpegiak zikindu, eta bost milimetro luzeko ileekin, ez ziren sekula biltzen neskekin euren jolasetan.

Patxi ez zen eurak lakoa eta inork ere ez zuen nahi beragaz ibili. Alperrik kentzen zuen erretena, amak ongi eta astiro eginiko orrazkadak nahastaturik. Alperrik ere egiten zuen negar, ikastetxera joateko neskamerik ez zuela nahi etxean esan eta, amak nahi edo nahi ez, neskamearekin joanarazten zuenean.

Amari sinetsi behar badiogu oso bihurria zen, eta ederrak eman zizkion aitak ipurdian, itsasotik etorri zenean. Aita ere bere kontra? Hor ba! Ez dugu esan ba inork ere ez zuela ulertzen Patxiren arima?

Edozer zela aitzaki, burrukan hasten zitzaizkion beste mutikoak ikastetxean. Hona lehenbiziko burrukak:

Oraindik ez zekien ongi irakurtzen. Fraileek, gaizki irakurtzen zuten mutikoak ongi zekitenen ondoan ipintzen zituzten, eta gure mutikoa, sudurluze baten ondoan jarri zuten. Sudur honen arpegia, zuri-zuria, goibela eta tristeza, Erramonena zen. Erramoni besteek *Belarri* erraiten zioten. Behin, Belarriren ondoan irakurtzen zegoela, harrituta konturatu zen lehenbizik, zelako belarriak zituen Erramonek. Zabal-zabalak, handi-handiak, izugarriak! Ia arpegi osoa estaltzen zioten!

Bere belarrietara so zegoela<sup>32</sup> ikusi zuenean Belarrik,

—Kalien itxeingo deuat<sup>33</sup>! —esan zion. Eta ikastetxetik atera zirenean burrukan egin zuten.

---

<sup>32</sup> [So zegoela: begira zegoela].

<sup>33</sup> [Kalien itxeingo deuat: karrikan itxadonen haut].



Behin mutiko batek, ea berak Saguzaharren besteko indarra ote zuen galdetu zionean, baietz uste zuela erantzun zion, ezer susmatu gabe. Mutikoak, Saguzaharregana berehalaxe joan osten,

—Txo! —esan zion—, Patxik i'paino (hik baino) indar gehiago jaukak eta errixetan irabazi eingo lajeuskik<sup>34</sup>! Halan jinok berak!

Eta hemendik sortu zen Saguzaharren kontrako burruka. Burruka honen gogorra! Patxi baino urtebete zaharragoa, Saguzahar oso indartsua zen; aitari saltegian laguntzeko, pisu astunegiak eramaten ohitua. Ez da harritzeko, burruka honetan Patxik eraman zuela parte txarrena jakitea. Maiz ikusten ziren Arrigorrietako kaleetan, orga txiki bat, asto ttipi-ttipi batek narraztua, Saguzahar orga gainean eta atzean ikatz sakuak, dena Barrabasen arima baino beltzago, Saguzaharren begietako zuriuneak izan ezik. Ikastetxera joaten zenean eginen zituzkeen noski ahaleginak atzera bere jaiotzeko kolorera etortzeko, baina ez zitzaion osoro joaten ikatzaren hauts beltza, eta agerian egoten zitzaion beti azkazaletan eta esku eta arpegiko bazterretan.

Latz eta gogor egin zitzaion bizitza. Batzuetan garaile, beste batzuetan garaitua, ez zitzaizkion bukatzen burrukak, gehienak kontra baitzeuzkan. Eta burruken gogorra!... Ukabilkadak arpegian, tripan, edonon; ileetatik edo ahal zen tokitik oratu eta, etsaia lurreratzea lortu ezker, jarri gainean eta jo, garaituak *basta* esan arte (Bakarrik okasio honetan erraiten zen hitz hau).

Behin, lau edo bost mutiko elkartu ziren bere kontra, eta astinaldi izugarri bat eman zioten. Beso bakoitzean mutiko bana zue-larik, besteek ileak belarrekin korapilatu, eta lotu egin zioten burua lurrean. Honela zegoelarik, eman astinaldia, eta jotzen nekatu orduko, esku bete txindurri sartu zioten atorratik. Nega-

---

<sup>34</sup> [Errixetan irabazi eingo lajeuskik: borrokan irabazi eginen leukik].

rrez odola zeriola, atorra kanpoan, eta prakak ia lurrean, etxera heldu zenean oinetako bat faltatzen zitzaion.

Beste egun batean, oratu eta erre kara egotzi zuten. Blai-blai eginda uretatik irten zenean, zuhaitz batzuen azpian egon zen, janzkiak lehortu arte. Uretaratzea ez zen ezer, baina zekartzan jantziak amak, neskameak-eta ikusi ezker, urtebeterako hasiko zitzaizkion garraisika. Arinago lehortzeko, flaust! flaust! flaust! hasi zen, prakak enborren kontra jotzen. Berdin egin zuen gero beste janzkiekin ere. Lehenbiziko zartadak busti-bustiak uzten zituzten enborrak; azkenean, gero eta ur gutxiago, aztarnak arin-arin lehortu eta aienatu egiten ziren.

Disimulatu eta ez zioten igarri etxean. Orduko, neskamerik gabe ibilirik, ia pozik eramaten zituen atsekabe guzti hauek.

Mutiko batzuekin agiraka ibiltzen zen.

—Nire aita forala<sup>35</sup> da, ta kartzelara eroango zaituz —esan zion batek.

—Ba nirie kapitana da, ta zuriek baino gehiago agintzen deu. Ikusiko'zu esaten bo'tzat<sup>36</sup> —erantzun zion berak.

Bazekien foralaren semeak, ez zuela sartuko giltzapean Patxi bere aitak, berak esan arren, eta Patxi ez zen ausartuko aitari eskatzen forala eta bere semearen kontra hasteko. Aitak tontotzat hartuko zukeen holako umekeri batekin joanen balitzaio. Elkarri bildurra sartzeko bakarrik ibiltzen ziren honelako inozentekerietan.

Aita etorri zenean bazekien Patxik ez zirela bukatuko burrukak honegaitik. Arazo honetan aitak hor konpon eginen zuela uste zuen. Baina ez zuen hor konponik egin, eta aita etorri zenean sekula baino gogorragoak egin zitzaizkion burrukak.

---

<sup>35</sup> [Forala: Bizkaiko foralak eta Gipuzkoako mikeletak jendarma euskaldun batzuk ziren].

<sup>36</sup> [Ikusiko'zu esaten bo'tzat: ikusiko duzu erraiten badiot].

Etorri berria zen itsasotik aita, Patxi, Txominek jo egin zuela eta, negarrez eta sudurrari odola zeriola etxeratu zenean.

—Joan hontxe atzera Txominen bila! —erran zion aitak—, hik jotzen ezpadok, ederrak emongo deudaz nik gero! Bitartian etxagok bazkaririk hiretzako!

Txomin Arrigorrietako osagile baten semea zen. Bere aita eta Patxirena adiskide handiak ziren.

Aitak esaten zionarekin, indar handiagoz eman zion negarri Patxik, baina aita, plis! plas! hasi zitzaion jotzen arpegian. Patxi arpegia estaldu, eta izterretan. Izterrak estaldu, eta berriz arpegian edo agerian uzten zituen tokietan. Arnasa bukatu eta isildu egin zen Patxi, berriz hatsa hartu arte. Hats nahikoa hartu, eta hiltera eramaten dituzten zerriak baino sendoago. Isilune laburrean, aita ere gelditu egin zen jotzen. Berriz negarra eta berriz plastadak ere.

Negar egin ezik aitak ez zuela jotzen ikusi zuenean, isildu egin zen. Orduan,

—Joango haz oin<sup>37</sup>? —galdetu zion aitak.

Patxi isil-isilik eta geldi-geldi zegoen. Orduan jotzen hasi zitzaion aita berriz. Ahantzi egin zitzaion honekin Txominen bildurra eta beregana abiatu zen. Baina ostera ere<sup>38</sup>, bera baino gehiago zela erakutsi zion Txominek. Bizkarra ematen ziolarik, aita ikusi zuen kale bazterrean zain. Orduan bazkaria bururatu zitzaion, eta hirugarrenez hasi zen Txominen kontra amorraturik. Oraingoan Txominek egiten zuen atzeruntz, baina halako batean, beronen ama agertu zen, eta semea etxera eta Patxi berera bidaldu zituen.

Zigorrik gogorrena, bazkaririk gabe gelditzea zen Patxirenztat. Behin barrabaskeri bat egin zuen, eta aitak,

---

<sup>37</sup> [Oin: orai, orain].

<sup>38</sup> [Ostera ere: berriz ere].

—Zer gure dok —galdetu zion—, astinaldi bat ala ogera<sup>39</sup> joan apaldu barik?

Ipurdiko mina gosea baino arinago pasatzen zela eta astinaldia hautu<sup>40</sup> zuenean, etxeko emakume guztiak, harrituta, asto handitzat eduki zuten, baina hurrengoan, aitak afaldu gabe ohera bidaldu zuenean, amak eman zion aparria eskupetik, aitak jakin gabe. Bazkaria ez galtzarren, ez bakarrik Txominen kontra, Uzkudunen kontra ere berdin-berdin joanen zatekeen.

—Kolejixoko mutilek jo, ta negarrez etorten hazala etxera, esan jeustak amak. Mutil bildurti ta negartixak etxatazak gustetan niri —esan zion aitak.

—Baina hareek ni baino handixagoak ziran —erantzun zion Patxik.

—Etxok ardure —jarraitu zen aita—, harri bat eskuan hartu, ta jo! buruan heu baino handixagoi. Aita edo ama izan ezik, ez itxi (utzi) inor joten. Heure bestekoa badok, jo eskuz Txomin legez. Handixagoa badok, jo harrixegaz.

Aitona eta amona Arrigorrietan bertan bizi ziren, baina beste herri puntan. Patxi maiz joaten zen eurengana ikastetxetik irten-dakoan. Amonak, intxaurreak, hurrak edo karameloak ematen zitkion beti. Zarata ez zitzaion batere atsegin, eta gure mutiko zaratsa eta zalapartaria hurbiltzen zitzaionean,

—Ixiii! Ixiii! txotxo! —hasten zen eskuekin belarriak estaldu-rik. Baina oso ona zen Patxirentzat.

Behin *guardia civil* baten semea (Arrigorrietan *gardasobillak* esaten diote *guardia civil*-ei) harrika hasi zitzaion aitonareneko atarteetan.

—Aitaita<sup>41</sup>! —erran zion aitonari—, ikusi! Mutil honek jo egin gura neu!

---

<sup>39</sup> [Ogera: ohera].

<sup>40</sup> [Hautu: hautatu].

<sup>41</sup> [Aitaita: aitona].

Patxada handiarekin irten, eta mutikoa eskua jasota harria botatzeko gertu ikusi zuenean, batere haserretu gabe:


—¿Qué traes? —esan zion aitonak erderaz— ¿Quieres la berienda o qué? (Zer dakark? askaria nahi duka?)

Orduan joan egin zen mutila isil-isilik.

Egun batzuk igarota, *gardasobillaren* semeak harrapatu eta jo egin zuen, baina Patxik, aitaren erakaspenez oroiturik, harri bat eskuan zuelarik, bera baino mutiko handiagoari indar guztiaz buruan jo eta odola atera zion. Mutikoak (*Lukainka* zuen berak gaitzizena) ez zuen igarri harri bat eskuan zeramanik, eta Patxi-  
ren ezkerkada izugarria zela erraiten zuen. Ospe egokia haxe mutikoen artean.

Mutiko oker batzuen ohitura zen, burrukan irabazi ezker, atzematen zuen bakoitzean ostikada bat ematea garaituari, eta bildurra hartu zion garaitu gaixoak erantzun gabe eramaten zuen hau isilik. Hauetariko mutiko handikote batek, Patxi erraztasun handiaz garaitu ostean, ostikada bat ematen zion ondotik iragaiten zen bakoitzean, beste kalealdetik etorri behar bazuen ere. Aitak esan zionarekin, Patxik harriaz jo behar zuela asmatu zuen. Bazegoen prest jotzeko, ostikada eman zionean, baina harria erori eta berriz jo zuen besteak. Hurrengoan sakelean zeraman harria eta ihardetsi egin zion ostikada eman zionean. Ostera ere garaitu zuen besteak, Patxik harria ateratzeko okasiorik aurkitu ezinik. Gero ez zuen erakusten lehen besteko gogoia ikusten zuenean, beregana joan eta ostikada emateko, baina bere bildur ez zela erakusteko edo, eman zion ostikada azkenean, besteetan baino indar gutxiagoz. Patxik krask! jo zuen buruan, eta harriak, beti bezala, odola atera zuen.

Ez zion gehiago ostikadarik emango.



## V

# NEKEZ HARTURIKO GAUZA NEKEZ LAGA

Baldin lehenbiziko hilabeteetan dena ahora eraman eta xurgaturik Patxi beti esne bila bazebilen, urtebeteko adinera heldu orduko, berak jakin gabe nola, hoztu egin zitzaion esnearenganako grina hau. Eta lehenbiziko bost edo sei urteak emakumeen artean bizimodu zoriontsu batean iragan ostean, berak jakin gabe nola, aspertu egin zen emakumeez, hogeigarrenean atzera euren besoetan erortzeko baino ez bazen ere. Patxiren bizitza txandaka aldatzen zen honela. Eta, emakumeen arazoan izan ezik, betiko ziruditen buruhausteak, behin joan ezkerro, ez ziren inoiz atzera etortzen. Honela ere, ikastetxera hasi zenean beti errietan ibili ostean, berak jakin gabe nola, adiskideak aurkitu, lagunekin hasi, eta berez iragan zen burruken garaia, jolasen garaiari atek zabaltzeko.

Ikastetxera sartzeko ordua itxaroten zeudela *kinkinka* jokatzeko zuten Patxik eta bere lagunak. Kinkinka jokatzeko, basa bigunez betetako lur zulo bat bilatu, eta behar bazen, oinetakoa-kaz ongi nahastatu eta zapaldu egiten zen. Jokalariek txandaka makil zorrotz bana jaurtitzen zuten puntaz behera indar guztiaz, ahalik sakonen sartu, eta bide batez beste makiltxoren bat kirtenean jo eta erorrarazteko. Makil bat amildu ezkerro, bereaz jo eta urrunera botatzen zuen. Jabea bila joaten zen arineketan. Artean

berak, *unian*, *dosian*, *tresian*, *pico*, *Juanito*, *Periko*, *itsu-lapiko* esan eta ahalik lasterren, hitz bakoitzean makila sartu eta atera egin behar zuen. Hau amaitu gabe bestea heldu eta bere makila sartu ezkerre, berea egotziko zuen eta berari tokatuko zitzaion bila joatea. Gero atzera hasten ziren txandaka lehen bezala makilak inketan, bat erori arte.

Ikastetxeko joalea<sup>42</sup> entzuten zenean, arantza arteko eta sasi azpiko baztertxo batean makiltxoak gorde, eta beste mutil askorekin batera, ate nagusitik sartzen ziren denak.

Nahiz pisu egokia zuela, nahiz erabiltzen ohitu zela eta, mila pezetako bilete bat bailitzan gordetzen zuen bakoitzak bere makiltxoa. Baina bazeuzkaten dendan erositako jostailuak ere, batez ere Errege Eguneko goizean, hausteko beta<sup>43</sup> gabe, Errege-ek ekarritakoak oraino osasuna galdu ez zutelarik.

Errege aintzineko<sup>44</sup> egunen batean, seme bakoitzari eskutitz bat egiten zion amak, Erregeei jostailuak eskatzeko.

—Queridos Reyes Magos:... (Errege maiteak) esan eta idazten hasi baino ez eta,

—Ez! Ez! —gelarazten zion Patxik—, euskeraz! euskeraz!... Erderaz ezta aittuten ondo!

Baina, bere lagunek bezala, berak aurkitutakoak eta jokoetan irabazitakoak onetsiangoak zituen beste jostailu guztiak baino. Oilategiko bazter batean gordetzen zituen Patxik bere gordailuak. Oiloek lo egiteko txabola ttipiaren teilatua, hamalau bat metro luzatzen zen bolatoki baten itxuran, horma baten gainean etzanda baratzen mugatik eta zurezko habe batzuek eutsita etxeruntz begiratzen zuen aldetik. Teilatupean, txabolaz beste aldeko puntan, osina, iturritxoa eta latsarria<sup>45</sup> zeuden. Uste dut ez dudala ikusi nere bizitza guztian toki baketsuagorik. Batzuetan emakume

---

<sup>42</sup> [Joalea: kanpai txikia].

<sup>43</sup> [Beta: asti, denpora].

<sup>44</sup> [Aintzineko: aurreko].

<sup>45</sup> [Latsarria: ikuz-harria].



bat etortzen zen janzki zurien latsatzera, baina, oiloentzat ura hartzeko izan ezik, inor ere ez zen inoiz ibiltzen handik emaztea joaten zenean. Bazter ilun hartara oiloak ere gutxitan joaten ziren, eta garbi-garbi egoten zen beti. Batez ere oiloak lotan zeudelarik, iturriaren *sass sassa* entzuten zenean, ur gaineko distirak ilunabarrean ikusten zirela, zerbait misterios eta trankil susmatzen zen alde hartako haizean. Han gordetzen zituen Patxik oholezko kutxa zahar batean bere gauzak: jostailu zatiak, iltze luze handi bat, intxaur eta gaztain ttipi-ttipi batzuk, beste batzuk handi eta motelak, eta honen antzeko gauza asko, denak balio handikoak.

Aberastasun hauen jabea izatea gutxi bailitzan, etxe aberatseko semea zen Patxi. Amak, ogia ekartzen zuen neskari, esne-saltzaileari eta beste anitz jenderi ordaintzeko dirua nola beti izaten zuen ikustea, harrigarria zen. Behin baino gehiagotan ikusi zuen Patxik zelan ateratzen zuen dirua amak zurezko kutxa batetik, eta behin, begirakada bat bota, eta *txakur txiki*<sup>46</sup> eta handiak, pezetak eta ogerlekoak, paperezko bileteekin nahasirik ikusi zituen barnean. Honegaitik:

—Etorri, etorri gurera, gurien dago ta —esaten zien eskaleei.

Behin, etxetik ikastetxerakoan, kotxorro<sup>47</sup> bat eman zion lagun batek intxaur baten truke. Lagunei ikusi zien bezala, atzeko hanka erdi bat kendu, paperezko zerrenda baten punta biak batu eta orratz batez bi edo hiru bider zehartu, eta kanpora ateratzen zen orratz-punta izterretik sartu zion kotxorroari. Orduan, zerrenda arteko hutsunetik lapitz bat sartu zuen, kotxorroa izterretik dilindan utzirik. Lapitza aurrera eta atzera eragin, kotxorroak hegoak atera, eta biraka eta biraka hasi zen hegaz, lapitzaren ingurutik. Bere mahaitxoak estaltzen zituen bira hauek, baina gutxien oroitzen zenean, aurrean agertu zitzaion frailea, eta ko-

---

<sup>46</sup> [Txakur txiki: sos bat; txakur handi: bi sos].

<sup>47</sup> [Kotxorro: ezkieta ibili ohi den mamuxka].

txorroa kendu, atzamar-txokoz<sup>48</sup> jo buruan, eta belauniko jarrazki zuen ikasgela erdian. Ukabilkadaren minak negar malkoak ateratzen zizkiolarik, beste mutikoak begira zeudela ohartu, eta negar egin beharrean barre egin, eskuaz burua igurtzi, eta mihia atera zion fraileari atzetik.

Patxik eginiko adiskiderik lehenbizikoa, Juantxu, alboko etxean bizi zen. Bere adineko izan arren, aurreratua zegoen, ez baitzuen irakurtzen beragaz, handiekin baino.

Liburu zail bat irakurtzen zuten handiek, eta harro-harro esaten zuten Juantxuk liburuaren titulua: *Don Jijote de Lilantxa*.

Patxi eta Juantxu elkarrekin joaten ziren maiz ikastetxetik etxera. Batzuetan bakoitza kalealde batetik, nahiz artilezko pilota eskuz, nahiz lurretik putzezko pilota ostikoka elkarri bota, beti aurrera eta arin-arin joaten ziren. Kilometro bateko izan arren, arras labur iruditzen zitzaaien bidea honela joaten zirenean.

Bakarrik zebilelarik Patxik batzuetan piperpote bat eroaten zuten aurretik ostikoka.

Bide luzeen laburtzeko ez dago piperpote baten antzekorik. Zarata pozgarri bat ateratzen du, tanga! jotzen duzunean, eta arin-arin joaten zara gelditu den tokira beste ostikada baten emateko gogoak bultzatuta.

Batxileratoan hasi gabe, bostetako ateratzen ziren ikastetxetik, biharamun arte ez sartzeko. Etxera arin-arin joan, arratsaskaria hartu eta kalera irteten zen Patxi lagunekin joateko.

Ogi eziztatua ematen zion batzuetan amak askaritzat, eta orduan nahiago izaten zuten begira egotea besteak olgetan<sup>49</sup> zeudelarik, jaten bukatu arte.

Irulari bat zer den ba al dakizu? Adar zati txiki bati alde bietatik zorrozten zaizkio puntak, punta biko lapitz baten itxuran. Hauxe da irularia. Jokatzeko, zotz edo harri batez, edo irulariaren

---

<sup>48</sup> [Atzamar-txokoz: eribizkarrez].

<sup>49</sup> [Olgetan: jolasean].

puntaz, zirkunferentzi bat gutxi gorabehera egiten da lurrean. Jokalari bat, makil bat eskuan duela, zirkunferentzian sartu, eta besteak barneruntz botatzen du irularia. Makiladunak aidean jotzen du makilaz barruan eror ez dadin. Huts egin eta barnean gelditu ezker, hiru bider jo dezake makilaz puntaren puntan, eta salto egiten duenean, aidean makilakada sendo batez urrutira bidaldu. Irularia makilaz hiru aldiz hunkitu eta atera ezik, bestea sartzen da zirkunferentzian eta lehen bezala hasten dira.


Arrats-askarirako intxaurrak ematen zizkiotenean, intxaurrak ziren mutikoen jostailu. Hamar edo hamabi intxaur zerrendan eta aurrean ttipi-ttipi bat ipintzen zen honetakoz. Urrats batzuk aurreragotik, jokalari bakoitzak intxaur bat botatzen zuen. Zerrendako intxaurrak jo ezker, atzean markatuta zegoen lerro batetik igarotzen zirenak irabaziak ziren. Aurreko intxaur ttipia edo *txispina* jo ezker, intxaur guztiak irabazten ziren. Intxaur handi eta motelak ziren egokienak botatzeko. Hona zertarako gordetzen zituen Patxik bere kutxan intxaur motelak eta intxaurtxo ttipi-ttipiak.

Beste batzuetan *txorro-morroka* egiten zuten. Mutiko bat eserita jarri, eta belaunen gainean burua ipintzen zion beste batek, gorputza makurturik eta begiak estalduta zeuzkala. Beronen atzetik aurrekoari gerritik oratu, eta makurtuta jartzen ziren beste bat edo bi. Beste mutikoak gibeletik arineketan etorri banan-banan, eta salto egiten zuten gainera eskuaz bultzaturik. Lehenbizikoak eri bat atera eta *txorro-morro-piko-tallo-ke* esaten zuen. Hurrengo izen hauek dituzte hatzek joko honetan: lehenbizikoak *txorro*, bigarrenak *morro*, eta abar. Begiak estalduta zeuzkanak *morro*, edo *piko*, edo... erraiten zuen. Igarri ezker, gainekoak azpira joan eta berriz hasten zen dena lehen bezala. Igarri ezik, gainekoek egiten zuten oster a ere salto.

*Pribika* edo *primika* ere jokutzen zen. Pilota joko honetan, nahi zuten beste jokalari sartzen ziren. Erortzen zen tokitik hurbilen zegoenak jo behar zuen pilota. Falta egiten zuena kanpora joaten zen, eta azken gelditzen zenak irabazten zuen, eta hurren-

go jokoan bi falta egiteko eskubidea zeukan. Ez ditugu aipatuko hemen beste anitz joko, gehiegi ez luzatzearren. *Goitiberia* oroitarazteko hitz batzuk ipini eta bukatu egingen dugu:

Goitibehera erderaz *patinete* da, baina arrigorrietarrek erderaz ere *la goitibera* esaten diote. Goitibehera mota asko dira. Ez dira ederrenak dendan erositakoak. Oholezko kutxa handi bati lau gurpil<sup>50</sup> ipini, eta hauxe da goitibeherarik ederrena. Aldapaz gora oinez eraman behar duzu, baina, barnean eserita beheruntz joaten zarenean, zarata handia ateratzen duelarik, pozgarria benetan izaten zaizu.



---

<sup>50</sup> [Gurpil: errota].

## VI

### MADRIL, TOLERO...

### MUNDUA IKUSI ETA ETXERA GERO

Aspaldian gertaturiko gauzek, joan den mundu zoriontsu eta gozo bat erakusten digute, oroimenak gogoaren begien aurrean ipintzen dizkigunean. Gertatu zirenean, aspaldia *orai* zenean, suak egun bezala erretzen zuen, bai eta hotzak ere izozten, gorputzeko edo arimako nahigabetasunak mintzen, egin beharrak artegatzen, eta gauza txikien bildurra —gizonaren madarikaziorik txikiena ez dena— gurekin ekartzen egun bezala. Ez zaizkio atsegin oroimena-ri nekeak eta oinazeak, eta handiegiak izan ezik, arin ahanzten ditu; honegaitik ez dizkigu gomutarazten ondoko nekeak gauza zaharrekin batera, urte asko beranduago *aspaldia* gogoratzen digunean; alde pozgarria bakarrik erakusten digu, eta badirudi orduko suak ez zuela erretzen, ez hotzak izozten, ez nahigabetasunak mintzen, ezta gauza txikiek artegatzen. Halan ba, barkatu egin diezaiokegu Patxiri hurrengo orrialdeetako hasieran erraiten duen gehiegikeria, liburu honetako idatzi dizkidan lerroetan.

Hona Patxik dioena:

Ez dut uste poztu naizenik inoiz nere bizitza guztian, Bilbora azterketan edo itsasontzira aitarekin joaten nintzenean beste, eta ausartzen naiz esaten, ezin daitekeela gaineratu mundu honetan orduko poza.

Hamar urteak beteta genituen Juantxuk eta biok, beste muti-koekin Bilbora, batxileratoko ikastaroan sartzeko azterketen egi-tera joan ginenean.

Aurreko gabea, gorputza jaboiaz ondo garbitu, eta behatze-tako azkazalak moztu zizkidan amak aitzurrekin ohera baino lehen. Orai balitz bezala oroitzen naiz, nola hartzen zidan oin bat eskuan azkazalak krisk-krisk ebakitzeko, nik artean biluzik — ipurdia eta dena agerian— hari bat eragin eta katuari jolas egina-razten niolarik.

Goiz esnatu, ohean ezin egon, eta eguzkiarekin jaiki nintzen. Meza entzun eta Jauna hartu ostean gosaldu, eta garagarrileko goiz argi distiratsu batean, janzki guztiak, hasi oinetakoez eta eskuzapiraino<sup>51</sup> berri-berriak eta orainan saltoki usaina nabari zutela, ogerleko bana sakelean, ikastetxeruntz hasi ginen.

Amak azkeneko oharrak bota zizkidan leihotik: —Kontuz gero, Bilbon galdu barik! Ibili beti fraileen ondoan! Kontuz auto-mobilekaz!...

Ia hutsik zegoen autobus zuri handi eta berria ikastetxe aurrean, eta leiho ondoko leku bana hartu genuen.

Hodei zuriek zeru urdinean bata bestearen atzetik itxura aldakorrak hartzen zituzten. Orai asto batena, gizona atzetik, orai astoari belarriak suntsitu, gizona aienatu, eta arpegi handi bat barrezka agertzen zen...

Halako batean, ogerlekoa hunkitu nuen sakelean; Rostchildek berak ere ez zekien noski nik baino hobeki, zer sentitzen duen aberats batek, ondasun hondargabeen<sup>52</sup> jabea dena gogoratzen zaionean.

Azkenean Billboruntz hasi zen autobusa. Gure poza Arrigorrietatik kanpora bide-zabal berri ederretik atera ginenean, aldapaz gora eta aldapaz behera, bira eskumara eta bira ezkerrera, ez da idaztekoa.

Batuetan, itsasaldetik joaten ginen zati luzetan, eta orduan, muga gabe zabaltzen zen gure aurrean itsaso urdina.

---

<sup>51</sup> [Eskuzapiraino: mokaneseraino].

<sup>52</sup> [Hondargabe: hondogabe].

—Hara! hara! ontzi bat! —erraiten zidan Juantxuk, hatz batekin apuntatzen zuelarik.

Egia. Eltxorik ttipiena baino txikiagoa, ontzi bat ikusi nuen. Ke beltza, zeruruntz zabaldua, beheko puntan zorrozten zen, eta azpian zegoen ontzi txiki-txikia. Bazirudien han urrun, ontzia eta kea, geldi-geldi zeudela.

Beste batzuetan, mendi tartean ibiltzen ginen; nahiz mendi handi baten ondotik, eta goruntz begiratu, eta amaigabe zuhaitz menditik gora ikusten genituen; nahiz mendi gainetik, eta behean, baserri txikiak agertzen ziren sakabanatuta; nahiz alde guztietatik mendiz inguratuta, eta batzuk besteen atzean, eguzkiak argitutako mendietatik hodeien itzala ikusten genuen mendirik mendi.

Besoak aitzur kirtenaren gainean, atsedean labur bat hartzen zuten nekazariak autobusari begiratzeko, guk eskuaz agur egiten genielarik, eta herri txikietatik igarotzen ginenean, zarata handia egiten zuen autobusaren tutuak.

Herri ttipi eta handi guztietan, gero eta gehiago ikusten ziren ola handiak, buztinerrezko kebidu luzeekin.

Dena zen guretzat berri eta ikusgarri, munduak bere gauza miragarri guztiak gure aintzinean zabaldu balitu bezala.

Anitz urte hiri handietan igaroz gero, hango zarataz aspertuta, ikasi dut herri txikien edertasunak ezagutzen, baina haurtzaroran, Arrigorrietan bizi nintzelarik, parabisuan nengoela iruditzen zitzaidan Bilbora joaten nintzen bakoitzean, batez ere, hamar urtetik hamaseirako ibiltaldietan.

Bilbon sartu ginenean, zabal-zabalik nituen begiak gauza guztien aztertzeke, guztiak baitziren ikusgarriak nerretzat: jendearen ugaritasuna eta ibilera azkarrak, automobilen, motorren, kamioien, tranbien eta burdien harat-honatak, kale luzeak, etxe handiak, zarata...

Harrizko etxe handi baten ondoan gelditu, eta ume guztiok eta gurekin zetozen fraileak, autobusetik jatsi ginen.

Atarte handian harroin batzuk, aurrean estatua handi bat, harrizko mailak atartera igotzeko, eta ondoan, zuriz jantzirik,

kapela zuri handi batekin, gizon bat zegoen eskorga<sup>53</sup> baten ondoan, eta denok joan ginen harengana, mantekadozko edo bainilazko helado bana erostera.

Igarri du irakurleak, noski, harrizko etxe handia Institutua zela.

Bi ordu itxaron behar izan genituen Institutuan, eta ez zait ahaztu oraindino, ordu luze-luzeak iruditu zitzaizkiguna.

Aztertzaileak gure ondotik iragan, eta zainetaraino sartu zitzaigun bildurra.

Orduko bildurraz oroitzen naizenean, zoriotsuak iruditzen zaizkit egun, ikastetxeetan bertan azterketak pasatzen dituzten umeak. Egun ere, Institutura bidaltzen dituzte euren ikasleak ikastetxe batzuek azterketen jasaitera. Baina ez daramatzate bizar luzeak egungo katedratikoeak, orduko gehienek bezala, eta ez da ezer honegatik egungo ikasleen bildurra, ordukoenaren ondoan. Halaz ere, bizarrak eta guzti, uste dut nahiago genukeela guk orduan kanpora urtetea azterketen garaian, Arrigorrietan gelditzea baino.

Larri ibili ginen, eta estu xamarra iruditu zitzaigun bidea, baina azkenean denak pasatu ginen.

Gero, pozik eta zarata askogaz joan ginen ostera autobusera, beste helado bana erosita. Autobusak Plaza Barrira eramán gintuen, hango errestaurant batera.

Alaitu zitzaidan bihotza mahai luze-luzea ikusi nuenean. Oihal zuri-zuria, lorontzi txikiak lore gorritz beteak, zapiekin egingako txano zuriak plateren gainean puntaz gora, edontzi, platera, koilara, sardeska eta aiztoetan, troskaki<sup>54</sup>, berina eta zilarraren distirak... dena zen ikusgarri neretzat.

Ez zegoen orduko nere sabelean, goiz-goizetik hartutako gosariaren hondakinik ere. Heladoak isuritegitik<sup>55</sup> joan ziren.

---

<sup>53</sup> [Eskorga: esku-burdi].

<sup>54</sup> [Troskaki: portzelana].

<sup>55</sup> [Isuritegitik: komunetik].



Honen ordez, autobuseko leiho zabalduak gosea utzi zuten sartze-  
ra haizearekin batera.

Ez dakit on-ona ote zen bazkaria (jaketxea egun ere ospetsua da), baina bai oraingo bazkaririk garestienari orduko besteko gozamina ateratzeko, urtebete baraurik egon beharko nintzateke-  
ela.

Alaitasun handiko bazkari hartan, edozertan deskuidetan zana galduta zegoen. Nolako pozaz jotzen genion adarra denok! Bati okela aitzoz ebakiten ez zekielako, beste bati ardoa mahai gainean erortzen utzi zuelako eta abar. (Ez du esaten hemen Patxi egia osoa, berari erori zitzaion edontzi bete ardo mahai gainean, eta bere lepotik, inorenetik baino gehiago egin zuten barre denek).

Amaitu egin zen bazkaria zoritxarrez. Orduan, arrainontzi batean zeuden arrain gorriekin olgetan hasi ginen. Hatz puntarekin berina hunkitu, eta zuzen-zuzen etortzen zitzaizkigun arrainak musturrekin berina jo arte. Baina hau egitea ugazabak debekatatu, eta karrikara joan ginen.

Ez zegoen autobusik ate aurrean. Gero etorriko ei zen gure bila Institutu ondora.

Bilbotik zeihar oinez gindoazelarik, denok erosten genuen *txakur handi bateko helado* bana, helado-saltzaileren bat agertzen zen bakoitzean. Arrigorrietarrak etortzen zirenean, besteetan baino lan gehiago egiten omen zuten helado-egileek Bilbon.

Hogeita hamar mutiko gindoazen fraile batekin. Barreatu eta sakabanatuta geundenok batu arte, zain egoten zen frailea, eta gero,

—Bat, bi, hiru, lau,... hasten zen erderaz, hogeita hamarrok zenbatu eta aurrera joateko.

Kalerik kale besteen atzetik ibiliaz gogaituta, urrats batzuk atzeratuta gindoazelarik, Juantxu eta biok zeihar-karrika batetik eskumara jo, eta bost minutu azkar-azkar ibili ostean, gibeletik inor ez zetorrela ikusirik, lasai-lasai hasi ginen saltokietako era-

kusleihoak astiro ikusten, zineetako fotografiak zeharo aztertzen eta *tebeoak* erosten.

Gero, bilbotar muttiko anitzekin, ijito batzuen atzetik ibili ginen. *Praaa! praaa!* egiten zuen ijito batek tronpetaz, eta euretako emakume batek *pun! pa, pun! pa, pun! pa,...* jotzen zuen bonboa<sup>56</sup>. Ijitoak eurak baino zikinagoak (zikin izatea da hala Jainko!) hartz batek dantzan egiten zuen atzeko hanka bien gainean, sudurretik eraztuna eta katea zintzilik, eta tximino batek hazka egiten<sup>57</sup> zuen zorrien bila.

Gauza polit asko ikusi genituen saltokietan. Batez ere, bi metroko itsasontzi zoragarri bat. Hura izan zen bai gauza polita!

Azkenean, bidea galdetu, eta Instituturuntz hasi ginen. Karrika batzuk igaro eta berriz itauntzen genuen. Eta honela heldu ginen Institutu aurrera. Han zeuden denak, han ikusten zen autobus zuri handia, eta azkeneko zatia arineketan egin genuen.

Fraileak agiraka egin zigun. Nik arras ongi esplikatu nion nola galdu ginen ohartu gabe, baina berak belarritik oratu, indar askogaz tinkatu estu-estu *Ai! ai! ai!...* egiten nuen nik eta jo egin ninduen buruan atzamar-txokoz. Berdin egin zion iheska hasten zen Juantxuri.

Indar handia zuen fraile zantarrak eta min egin zidan buruan ukaraiko hezurgiltzaz<sup>58</sup>.

Autobusean sartu, eta Arrigorrietaruntz hasi ginen.

Sartzeko gutxi falta, eta argi gorrixka ematen zuen eguzkiak. Autobusaren itzal dardarakor luze-luzean, umeen eskuak ikusten ziren.


---

<sup>56</sup> [Bonboa: atabal handia].

<sup>57</sup> [Hazka egin: barrakatu].

<sup>58</sup> [Ukaraiko hezurgiltzaz: atzamar-txokoz].

Gero mendi tontorretan bakarrik jotzen zuen eguzkiak, eta Arrigorrietara heldu orduko, ilunabarra zen eta biztuta zeuden argiak.



## VII

# LAN EGITEKO, MUTIKO, JATEKO, GIZONKO

Hamar urteko adina zuelarik Patxiri nekazari izatea bururatu zitzaion eta ikastetxera gehiago joan ez zuela nahi etxean erraittea erabagi zuen.

Arrigorrietatik Bilbora joaten delarik hirugarren kilometroan eskuin aldera, basetxe bat dago, Errekondo deritxena. Han bizi zen Patxiren izeba bat, Erritta, amaren ahizpa, senarra eta seme bakarrarekin, edo beste era batean esateko, Basilio, Patxiren osaba, eta Antton lehengusuarekin. Luis eta Patxi, beste osabak ere, mutilzaharrak biak, Errekondon bizi ziren.

Hara joaten zenean ez zuen atzera Arrigorrietara etorri gura izaten. Honegaitik, azterketatik ondo atera zenean, osaba-izebekin nahi beste denporaren iragaitera bidaldu zuen amak.

Zelako bizimodua zeraman Errekondon irakurleak ulerdezan, gauza batzuk azaldu behar ditugu.

Lehenik: Inork ere ez zion esaten jaiki ostean arpegia eta eskuak garbitu behar zituenik. Praka zahar batzuk eta abarketak jantzi, eta beste zereginik gabe, katilu bat esne morokilarekin ematen zion izebak.

Bigarrenik: Pikondo zahar handi bat zegoen etxe aurrean eta, piku ezti ederrak jateko, aski zuen adarretik gora igon eta han gerizpetan eseri.

Hirugarrenez: Hamaiketako bat egiten zuen izebak soloan lan egiten zutenentzat, eta alperra zer den ere ez zekiela, Patxi prest egoten zen beti langileei laguntzeko, arrautza prieduak lukainka eta piperragaz jaten.

Laugarren: Nahi zuenean, ukuilu edo kortatik astoa atera eta gaimean ibiltzen zen.

Bukatzeko: Baserrietako mutikoak ez dira kaletarren antzekoak, on-onak baizik. Lehenbiziko egunetan ez zitzaizkion hurbiltzen Patxiri lotsarren, baina laster egin zitzaizkion munduko lagunik onenak.

Ez zen ergela Patxi. Jan eta lo eta olgetan ibili baserrian udan eguraldi onaz... Baserrian betiko bizi nahi izatea ez da kokolokeria, eta baldin honelako nekazaritzarik badago, nekazari izatearen erabagia, jakitun baten asmoa da.

Baina bazekien Patxi nekazariak lan egin behar duela, eta eskua ebagi zuen igitaiaz, belarra ebagi nahiez, eta aizkoraz ere saiatu zen. Baina jo indar guztiaz, eta ez zen sartzen milimetro bat egurrean, eta hurrengo aizkorakada zentimetro bat edo bi eskuma edo ezkerrera joaten zitzaion.

Indar askorik gabe Anttonek jotzen zuelarik, aidean zebiltzan zozpalak. Milimetro bat ere ez zitzaizkion alboratzen aizkorakadak, eta zentimetro bat edo bi sartzen zitzaizkion beti egurrean.

Patxi osabak, zurezko txalupa txiki bat egin zion Patxitxuri, eta beronek alde batetik bestera erabiltzen zuen errekan. Erdian gelditzen zenean harrika egiten zion. Txalupa alde batera okertuta gelditzen zen uretan. Osterantzean ez zegoen gaizki. Han bai egiten zituen inoren bildurrik gabe eta lasai-lasai buztinezko errekatxoak, ura nahi zuen tokira eroan eta ugesi edo presak egiteko.

Harro-harro ibiltzen zen asto gaimean, baina taka-taka hasten zenean, atzeruntz xaltoka-xaltoka, buztanetik erortzen zen hurre-ra. Zorionez ez zuen ikusi hau Anttonek, bestela ez zuen barre gutxi eginen. Astoa kortatik ez zela atera behar alperrik erraiten zuen berak.

Basilio, Luis eta Patxi osabak, ehiztari porrokatuak ziren, eta inguruetan ihizi<sup>59</sup> gutxi egon arren, ez ziren inoiz hutsik etxeratzten ehizketan joaten zirenean, eta tiro bat ere ez zuten alperrik botatzen. Eurekin joaten zenean, ez zen ausartzen Patxiren aita tirorik botatzen, euren trebetasunaz ahalgeturik<sup>60</sup>.

Baina Patxirentzat edozertan zen aita beste edonor baino gehiago.

—Neure aitak dauko bai punterixe! —esan zion behin lagun batek—, ehun metrotik emoten deutso tiroa buruan uso bati.

—Ba neuriak —ihardetsi zion Patxik—, kilometro batetik begi-begixen.

Behin, ontzia Bilbon zegoelarik, igande batez goizean, Patxi, aita eta osabak ehizatzaera joan ziren. Patxi aitaren ondoan ibili zen goiz guztian handikorik hortikora eta hortikorik handikora. Gehienetan ez zituen ikusten osabak, baina pin! pon! eskuinetik eta ezkerretik tiroka zebiltzala entzuten zuen. Hegazti bat geldituta ikusten zuenean aitak astiro-astiro apuntatzen zuen, baina azkenean txoriak ihes egiten zion. Jatsi orduan eskopeta tirorik bota gabe, eta aurrera joaten zen Patxirekin. Hogei bider gertatu zen hau gutxienez.

Errekondora heldu zireneko, berrogei eta hamar bat txinbo zekartzaten osabek.

Patxiren ustez, ehizketan osabek baino gehiago jakinik, aitak ez zituen txoriak hil gura. Honegaitik atsekabetuta egon zen ibiltaldi guztian.

Errekondon, denak txinboei begira zeudelarik,

—Aitak ondo-ondo apunteta euki, eta ezteu gure izan tirorik bota. Bestela hogei baino gehiago hilgo zeituzan —erran zuen Patxik.

---

<sup>59</sup> [Ihizi: kaza].

<sup>60</sup> [Ahalgeturik: lotsaturik].

Aitari begira, irriz zeuzkaten begiak osabek, Patxik hau erraiten zuelarik. Hala iruditu zitzaion behintzat, gorritzen hasten zen aitari, eta:

—Hago isilik kokoluori! Beti habil umekeriak esaten! —erran zion Patxiri haserretuta.

Errekondoko janari guztiak gozo-gozoak zirela erraiten du Patxik. Ogia, arrautzak, piperrak... dena. Ez zen ogia Arrigorrietakoa bezain zuri, baina bai askoz hobe. Esnea, barazkiak eta abar, bikainak, beste gozamen hobe batekoak. Bazeuden sagarrak, madariak eta kerizak ere, baina beretzat pikuak ziren onenak. Eztiak, bigunak, ederrak ziren benetan. Eta taloak? Inork ere ez ei ditu egiten taloak izebak bezain ondo. Mehe-meheak eta ongi erreak, Patxirentzat ez zegoen gauza hoberik. Hogei urte harrezkero, Euskal Herritik urrun zegoelarik, adiskide batek,

—Zer nahi dozu Arrigorrietatik ekartzia? —galdetu zion.

Eta Patxik:

—Ba, ekarri egistazu artourune, taloak egiteko —eskatu zion.

Axola gutxiko gauza zelakoan edo, ahaztu, eta besteak ez zion ekarri.

—Eztozu ekarri artourune?

—Bai zera!... Hori da bai kasketaldixe!... Artourune? Beste gauza bat eskatu bazeunst...

Gauza jakina da, bakoitzak bere zaletasunak dituela mundu honetan. Baina ezin dute jasan hau, nik ezagutu ditudan jende askok.

—Mozkortixori! (mozkorti hori!) —esaten zion nere herrian gizon batek edale bati.

—Izen hadi heu be! —erantzuten zion besteak.

Eta ardozale batek ardantegi batean:

—Gaseosie? —erraiten zion ur edale bati—, etzara gaseosie eskatzen lotsa?

Batzileratoko azterketa batzuetan, noiz deituko zuten Patxi zain zegoelarik, sulfidriko azidoaren itxura eta izakera berezia



esateko galdetu zioten ikasle bati. Gauza jakina da dakitenentzat, azido honek arrautza ustelena lako usaina duela. Honegaitik, harritu zen aztertzailea, ikasleak usain ona duela erantzun zionean, eta: —U-sain o-na? —galdetu zion. Baina ikasleak, —Ba... neri gustau egiten zait —ihardetsi zion, eta nahikoa izan zuen hau *catedraticoak*. —A! Orduan ondo dago —erran zion—, jarrai, jarrai aurrera. Bakoitzak bere zaletasunak ditu.

Patxiren adiskideari ez zitzaizkion atsegin taloak, eta ezin zuen ulertu nola izan zitekeen gauza on bat inorentzat.

Honen antzekoa baino gogorragoa gertatu zitzaion indiano bati.

Artoa jaten aspertuta, hamasei urte zituelarik Ameriketara joan zen. Hirurogeigarrenera heldu orduko, diru asko zeukan irabazita. Orduan, nahi zuena jaten zuen, baldin nahi zuena diruz erosi ahal zuen gauza bazen. Baina laster asetu zen aberatsen sukaldez, eta hamasei urteko adinaz zelako gozamina ateratzen zion artoari gogoratu zitzaion. Orduan gutxiesten zuena, oraingo janari guztiak baino hobea zelakoan, taloa eskatu zuen. Baina han ez zegoen talorik. Bere diruaren erdia emanen zukeen pozik, mutiko bat zelarik jaten zituen taloren bategaitik. Ontziratu zen beraz, eta bere herrirat abiatu. Han, diruduna eta zaharra zelako edo, abegi ona egin omen zioten bere ahaideek. Janari onak atondu zizkioten, eta taloa eskatu zuenean:

—Taloa! Zu bezelako jaun aberats batek taloa jan? Ez, ez. Orai ez duzu taloaren jateko beharrik Jaungoikoari eskarrak —esan zioten.

—Baina nik ta...

—Ez! ez!

Eta ogi zuri-zuria ekartzen zioten. Amerikanuak lotsatuta, ez zuen gehiago ezer erraiten, eta berdin gertatzen zitzaion beti, taloa eskatzen zuen bakoitzean.

Arratsalde batez, iloba gazte bat talo jaten ikusi zuen, eta zati bat eskatu zion. Ez zen oraindik hasi jaten, bere lehengusina agertu eta:

—Kendu, kendu! Etzatzu jan zantarkeri hori! —esanik, taloa kendu zionean.

Gero taloaren orde, askari on-on bat atondu zion.

Hau ez zen luzaro jarraitu honela. Amerikanua gaixotu egin zen. Ameriketako beroaz ohitua, hezurretaraino sartzen ziztaion hotza udan ere. Bere azken ordua hurbil zegoela ikusi zuen. Hilteko zegoelarik, taloa eskatu zuen, eta ez zen baketu ekarri arte.

Zati bat ahora eraman, haginez hunkitu, eta hil egin zen gai-xoa talorik jan gabe.

Ez dakigu egia ala gezurra ote den amerikauaren ipuina. Baina baldin ez badago munduan hain gizagaixo handirik, bere ahaideen antzekoak, besteen iritziak ezesten dituzten jende agintariak ugari-ugariak dira mundu honetan zoritxarrez.

Baina goazen harira, adarretatik ibiltzeko nahikoa da eta.

Hilabete iragan gabe, aita etorri zen itsasotik etxera, eta gero amarekin Errekondora Patxiren bila.

Zakurraren zaunkak entzun, eta berehala igarri zuen Patxik kanpotarren batzuk zetozela baserrira. Baina ez zuen susmatzen bere etxeakoak zirenik.

Minutu bat eta,

—Patxikooooo! Paaaaatxiko!... —hasi zen Basilio osaba—, nun sartu ete da gure mutikoa?

—Banoa! —esan, eta pikondotik behera hasi zen Patxi.

Gogotik egin zuten barre gurasoek pikondotik jeisten zen nekazaria ikusi zutenean.

Ijitoak baino zikinago, prakak urratuta, ba omen zirudien urteak iragan zirela bizar-kentzailearen aitzurrek bere ilea azkenez hunkitu zutenetik.

Arineketan joan zen, besoak zabalik zegoen aitarengana, eta gero amarengana. Aitarengana lehenik, aspaldian ez zuelako ikusi.

—Hamen dator gure oskilaso —erran zuen aitak barrezka, beregana zolarik.

Minutu batzuk geroago, ongi garbitu, eta igandeetako arropakaz jantzirik, prest zegoen etxera gurasoekin joateko.

Eta honela bukatu zen bere egonaldia Errekondon uda hartan.



## VIII

### OTSOA AIPATU ETA OTSOA ATEAN

Aita etortzen zenean, adi-adi egoten zitzaizkion etxeke guztiak, belarriak zabal-zabalik. Eta gauza entzungarriak benetan edesten<sup>61</sup> zituen, ontzian, itsasoan edo urruneko herrietan gertatuak.

Bide-kutxa<sup>62</sup> zabaltzen zuenean, Patxiren begiak eta bere arrebarenak, zuzen-zuzen egoten ziren, handik ateratzen zuenari so. Orduko etxeratze hartan, panpin bat ekarri zion alabari Deutschlandetik, eta Patxiri *putzezko pelotea* eta tiroak botatzen zituen eskopeta bat.

Eguneroko hartu-emanetan milioika zenbatzen ziren orduan markoak Alemanian, eta egunetik egunera gutxiago balio zuten. Aitak zioenez, jostailuen ordaintzeko, zaku bete diru eraman behar izan zuen marinel batek. Ez da oroitzen Patxi aitak panpinagaitik zenbat milioi marko ordaindu zirela esan zuen, baina bai egunoroko baten erosteko bederatzi milioi behar zirela.

Lehenbiziko egunetan beti aitaren atzetik, bizarrak kentzen zituenean ere, begira egoten zitzaion Patxi.

Minutu batzuetan labaina ugela leuntzen ari zen aita, arpegia bitsaz zuri-zuri zuelarik. Gero arpegiko larru zati garbi-garbia

---

<sup>61</sup> [Edestu: kontatu].

<sup>62</sup> [Bide-kutxa: baule, mala].

agerian utzirik, haguna<sup>63</sup> eta bizarrak batera kentzen zituen labainaz. Paper zati bat zeukan gomazko katilu baten gainean ipinita, eta hau, beste zilarrezko katilutxo batean erdiraino sartuta. Elurra bezain zuri eta azpiko aldetik ile zatitxoek belztua, aparra paper gainean uzten zuen poliki-poliki.

—Aita! Noz urtengo jataz niri bizerrak? —itaundu zuen Patxik.

—O! —esan zuen aitak—, urte asko falta dozak horretarako oindino.

—Da ezin leike egin ezer be arinago urtetako? —Patxirentzat bizarrak irtetea zen munduko gauza guztien artean meriturik handienekoa.

Gelditu zen aita, eta labaina eskuan zuelarik,

—Bai —erran zion Patxiri—, bizerrak urtetie gura badok, pintau egizak bibotie ta bizerrak oilar-korotzez ondo-ondo. Euki holan lau edo bost egun ta segituen urtengo jazak bizerrak—. Hau erran eta bazihoan herriz lehen bezala bizerrak kentzera, baina ostera ere geldituta:

—Oso erraza dok —gaineratu zuen—, joadi<sup>64</sup> oilotegira ta batu egik oilarraren korotza. Ez hartu gero oiloena, etxok balixo ta.

Patxi isilik gelditu zen. Igarten zuen aita adarra jotzen zebilela, eta ez zion sinestu. Ez zuen beronek ordea barrerik egin, eta edozeinek sinets zezakeen bene-benetan ari zela, baina sudur zilok ohituraz baino zabalago zeuzkan, eta honetan ezagutzen zuen Patxik, barregura aguantatzen mintzatzen zela.

Aitak egunoro kentzen zituen bizarrak, eta zazpi labaina zeuzkan, bat aste egun bakoitzerako. Labaina bakoitzean asteko egun bat ingelesez idatzirik zegoen kirtenean eta kutxatxoan.

Bukatzen zuenean, tresna guztiak arras ongi txukatu, oso garbi utzi, eta kontuz-kontuz gordetzen zituen, labainaz betetako

---

<sup>63</sup> [Haguna: bitsa, aparra].

<sup>64</sup> [Joadi: joan hadi].

kutxatxoa besteen ondoan ipinirik. Artean Patxi aurrean egoten zen aitaren zereginak zaintzen.

Ez zaio ahantzi oraino zelan estimatzen zituen aitak Solingen markako labainak, eta ulertzen du orai, orduan konprenitzen ez zuena: arrazoiarekin berotu ziola ipurdia, lapitzari punta zorrozten ibili eta labaina bati klask! zati handi bat kendu zionean.

Patxik berehala gorde zuen labaina kutxatxoan besteen ondoan aitak egiten zuen bezala, eta bazirudien dena lehen bezala gelditu zela. Egun batzuetan aitak ez zuen ezer igarri, eta Patxik berak ere, ahaztu egin zuen labainaren zoritxarreko arazoa. Baina aste egun egokia heldu zenean, agertu zen labaina hautsia, eta hasi zen aita:

—Zeinek ibili deuz<sup>65</sup> neure labainak?

—Nik ez —ihardesten zuten denek, baina Patxi baratzeruntz hasi zen isil-isilik.

Beregana joan, besotik oratu eta:

—Nok apurtu jok labaina hau? —itaundu zion aitak labaina erakutsirik.

—Ni e'naz izen —erantzun zuen Patxik. Baina hau erraiten zuelarik, gorri-gorri zegoen, eta ez zen ausartzen aitari arpegira begiratzeko. Aita, gehiagorik gabe, utzi labaina aulki baten gainean, eta Patxiren ipurdia astintzen hasi zen.

Astinaldia amaitu zenean eta Patxi negarrez zegoelarik:

—Joxe Migel osabie lako bat biher heunkek hik —erran zion amak—, heurie eztokana ez ukututen ikasteko!

Amak hau erraiten bukatu baino ez, eta osabaren automobila etxe aurrean gelditu zela esan zuen neskameak sukaldetik.

Beti zegoen neskamea leihoan karrikara begira. Ez dakigu bere zereginen artean ote zegoen leihotik zaintzea. Baldin hala

---

<sup>65</sup> [Ibili deuz: erabili ditu].

bazen, erran liteke ez dela inoiz ikusi inor bera baino zintzoagorik beharrerako.

Orainan negarrez eta ipurdia eskuaz igurtzitzen zuela, leihora joan, eta beribilzainak kapela kendu eta atea zabaldu, eta Joxe Migel automobiletik ateratzen zela ikusi zuen Patxik.

Negar egitea ahantzi eta eskuaz malkoak kendu zituen hobeto ikusteko. Osabak pastelak zekartzan. Eguzkiak itzalak suntsitzen dituen bezala, Patxiren bihotzeko goibeltasun guztiak aienatu<sup>66</sup> zituen pastelen ikusteak.

Zerbait zegoen haizean bazkalordua heldu zenean, Patxik ohartzen ez bazuen ere. Bera eta Kattalin izan ezik, mahaikideak ez ziren ari naturalki. Ia nahi zuena egiten zuen bazkari luze hartan. Berak jan zituen lukainka zatien, kontserbutako sardinen, eta beste *hors d'œuvre* guztien erdiak. Inork ere ez zion esaten ezer, eta ahal beste baliatu zuen garaia. Batzuetan ordea, gehiegi tiratu eta eten egiten zen haria; Katalinen edontzia berea baino beltzago zegoela eta ardo gehiago urari botatzeko eskatzen zuenean edo berriz eskatzeko arin-arin jaten zuenean bezala. Ama urduri-urduri zegoen, eta zerbaiten bildur zela susma zitekeen. Honelako gauzak ohartu ezker, jo egiten zuen beti, baina orduan sekula baino sendoago.

Arratsaldeko hirurak edo ziren, aita eta osabak puro bana biztu, eta neskameak kafea eta kopak atera zituenen.

Aitaren ondoan eserita Patxik habanoaren keari gustu ona ateratzen zion. Gizon-arroan puro erretzen ikasi eta ez zion ateratzen hainbeste, berak dioena sinetsi behar badugu.

Aita eta osaba mahaiondotik jaiki eta irakurgelara joan zirenean Patxi, ama eta arreba, tebeoak irakurtzen hasi ziren.

Ordu erdi edo igarota, osabaren abotsak entzun ziren. Gero eta sendoagoak egiten zirela ikusirik, amak tebeoak gorde eta Patxi eta Katalini Edurnenera joateko agindu zien.

---

<sup>66</sup> [Aienatu: suntsitu, desagertu].



Kalera irteteko neba-arreba biak sukalde ondotik iragan zire-larik, neskame eta beribilzainaren berriketa eta barreak entzuten ziren. Katalin Edurnenera, baina Patxi lagunengana joan zen.

\* \* \*

Arratsalde hartan Patxi eta Juantxu, XXko harrobira joan ziren, auzoko harategiko semeekin, Seberino eta Krispin anaiekin.

Kilometro bat eta erdi etxetik aurkitzen da harrobi hau, bide nagusian, Bilbotik urruntzen garela ezker aldean. Arrigorrietatik irtendakoan, harrobia ikusten denean, erdia falta zaion mendi bat ematen du. Mendi bat izateko, mendi ttipi baten erdia baino ez da, baina harrobi bezala handi-handia dirudi. Arras erraza da atzeko aldetik tontorrera igotzea. Hogeitabat metro daude goitik behera; hogeitabat metro latz eta harri zati handi eta ttipiz beteak; puntak hemen eta arrakalak han. Ertzeraino joan eta beheruntz begiratu ezker, biraka hasten da burua, eta harri txiki askoren artean, neurri guztietako harkaitz zatiak ikusten dira behean, kilo batzuetakoetatik anitz toneladarainokoak.

Lau lagunak, harrobi gaineko belardietan *temaka* jokatu ostean, kirkirren bila hasi ziren, bakoitza bere aldetik.

Zulo biribila aurkitu eta lasto mehe luze bat sartu eta eragiten zuten bira-biraka, kirkirrari kili-kili egiteko. Barnean zegoe-larik, gehienetan ezin zuen jasan hau eta laster ateratzen zen kanpora. Anitz kirkir harrapatu zituzten honela.

Batzuetan, ordea, nahiz bere zereginetara joan eta kanpoan egon, nahiz etxean egon eta irten gura ez, ez zen agertzen kirkirra. Orduan zuloa zabaldu eta hautsi egiten zuten. Baina hau alperrik izaten zen, eta orduan piz egiten zioten. Ba ei da agertu honela noiz edo noiz kirkirren bat, baina ez Patxik, ezta bere lagunek ere, ez dute sekula kirkirrik harrapatu garnuaren bitartez.

Txapelan sartzen zituzten harrapatutako kirkirrak, eta pozgarri izaten zitzaaien, buru gaineko ileen artetiko harat-honatekin kili-kili egiten zieten, eta areago *kri kri kri* hasten zirenean musika entzunarazten txapela barnetik.

Bi bider egin zien kontra Patxik lagunei etxerako bidean. Lehenbizikoan, haginekaz azkazalak ausikitzen zituelarik.

—Txo! —erran zion Krispinek—, atzaskol zati bat jaten b'ok (ba dok) zoratu ingo haz!

—Baaa!... guzurre! —ihardetsi zuen Patxik—, askotan jan xoat eta (diat).

Seberino eta Juantxu Krispinen iritzikoak ziren.

—Kutxilo bategaz atzaskol hauts apur bat atara, uregaz baso baten ipini eta ezetz edan —esan zion Krispinek Patxiri.

—Posture ingo deuat gure doken beste baietz edan! —erantzun zion Patxik.

Baina holakorik ez egiteko erran zioten Juantxuk eta Seberinok.

—Halan ein xuan mutil batek eta Bermiora eroan xuen, eta han xauk oindino manikomixuan —esan zioten.

Hasi bezain arin bukatu eta ahantzi zen eztabaida. Ezin zuten egon geldi luzaro, elkarrizketa luzeak egiteko beharrezkoa izaten den bezala.

Salto egin zuten laurak banan-banan erreka batetik zeihar. Igon ziren gero aldapa gogor batetik, oinak eta eskuak lagun, bide batez eta ohartzeke harriak erorrarazten eta janzki eta oinetakok lohitzen eta urratzen, baina kirkirrik galdu gabe.

Goian txapela eraman zion haizeak Patxiri, eta harat-honatak arin-arin egin ostean, ez zituen galdu kirkirrak, ezta txapela ere. Gero Juantxuk eta Seberinok, kirkir bana atera eta elkarren kontra ipini zituzten gudukatzen. Eddie Polo bataiatu zuen bere kirkirra Juantxuk. William Duncan berea Seberinok.

—Animo Eddie Polo! Hori'ok eta! —erraiten zuen Juantxuk.

—Oratu eiok hortxe William Duncan! —zion Seberinok.

Eddie Polo, munduko gizonik kementsu eta indartsuena zela erraiten zuen Juantxuk. Seberinorentzat, William Duncan zen lehenbizikoa eta Eddie Polo bigarrena baino ez. Baina Patxiren iritziz, Dempsey zen biak baino gehiago.

Beste eztabaida bat sortu zen hemendik, eta lehenbizikoan bezala, Patxi guztien kontra egon zen.


Gogorra zuen burua gure mutilak, gero!

William Duncan eta Eddie Polo, zaldi gaineko ginbail zabalak, beti tiroka edo ukabilka eta beti garaile agertzen ziren zinean. Dempsey, munduko txapelduna zen boxeo delako ukabilketa jokoa. Hau zerbait zen. Baina Carpentier izeneko gizon bat garaitu zuela eta, hainbeste harrokeri? Milaka garaitu zituzten Carpentier baino gizon indartsuagoak besteek, eta askotan eurak bakarrik bakoitza bi edo hiruren kontra.

Ilunabarra zen etxeratu zenean. Amaren sudurra eta begiak gorrituta zeudela ohartu zuen. Agerian zegoen negar egiten egon zela. Aita isil-isilik eta kopeta ilunarekin zegoen. Neskamea, ordea, beti bezala.

Patxi eta Katalini afaria sukaldean eman, eta laster biak ohera bidaldu zituzten.

Patxi etorri orduko oren batzuk ziren Joxe Migel osaba joan zela.



## IX

### JAKITEAK EZ DU OGIRIK JATEN

—Gur'ok etorri ontzira aitagaz? —itaundu zion aitak Patxiri biharamun goizean.

—Bai! Bai! Bai! —ihardetsi zuen Patxik saltoka.

—Neu'pe bai gur'ot! (Neuk ere bai gura dut) —erran zuen, prest negarrez hasteko, Katalinek.

—Ezin jitunak bixek eroan. Hurrengoan etorriko haz hi —erantzun zion aitak.

Katalin negarrez gelditu zen eta Patxi poz-pozik. Baina utz dezagun Patxik berak esan diezagula zelakoa izan zen ibilaldia.

Baldin urte batzuk lehenago Bizkaitik zeihar egin genituen ibilaldiak atzendu<sup>67</sup> bazaizkit, Bilbora eta ontzira aitarekin egin nuena ez zait ahantziko bizi naizelarik.

Goizeko hamarrak edo ziren, geltoki barneko leiho txikian txartelak erosi eta trena zegoen tokira joan ginenean. Azterketara gindoazenean bezala, pozez beterik nengoen, eta miragarri iruditzen zitzaidan ikusten nuen guztia: burdinezko txirringa<sup>68</sup> handien arteko lurrin zuria, makinaren hots izugarria, kebidetik zerion ke beltza eta txinpartak... Ikatz errearen usain higuingarria bera ere, ederra iruditzen zitzaidan orduan.

---

<sup>67</sup> [Atzendu: ahantzi, ahaztu].

<sup>68</sup> [Txirringa: gurpil, errota].

Trenera igotzeko mailak ia nere bururaino zeuden goraturik. Aitak atea zabaldu eta barrura sartu ginen. Hutsik zeuden tokirik gehienak tren-burdi luzean. Aita eta biok elkarren ondoan eseri ginen trenaren aurreari arpegia emanez, leihoa nere eskuman zegoelarik.

Minutu batzuk eta makinaren deadar garratz luzea entzun genuen, eta zras... zras... zras... aurreruntz hasi zen trena astiro-astiro.

Geltokitik irten eta laster hasi ziren atzeruntz Arrigorrietako etxeak.

—Hara! ama ta Katalin! —erran zidan aitak eskuzapia ateratzen zuelarik.

Egia. Han ikusten zen gure etxea, eta ama eta Katalin leiho batean, eskuzapi bana gora eta behera eragiten. Guk ere, gora eta behera eragin gureak, eta etxea, gero eta ttipiago, laster gelditu zen atzean.

Bide-zabala zeharka igarotzerakoan, idi burdi bat, gizona alboan eta katea aurrean, geldi-geldirik zegoen trenaren iragaitea igurikitzen. So zorrotz batez, gizonak begiekin erakutsi zigun, gu arin-arin ikusteak ematen zion inbidia, bera geldi-geldi zegoelarik.

Orai mendi berdeen artean zebilen trena. Telegrafoaren hariak gora eta gora hasi, tantai<sup>69</sup> bat tximista bat bailitzan igarro, eta beheruntz hasten ziren hariak. Laster ostera goruntz goruntz, eta abar.

Honako batean, bost bider handiagoak egin ziren hotsak. Minutu batean horma baten ondo-ondotik ibili ginen. Gero berriz zabaldu ziren zelaiak begi aurrean, eta lehenago haserre zegoen trena ostera ere baketu zen, baina beti aurrera arin-arin.

Baserritar batzuk aitzurraz ziharduten baratze batean. Lurlangileak ikusirik, ez nuela esan etxean bururatu zitzaidan, neka-

---

<sup>69</sup> [Tantai: poste].

zari izan nahi nuela. Ez zuen ontzat hartuko aitak ikastetxera ez joatea noski. Hau zela eta, hitzak nahi nuen tokira zuzentzen ausartu ez, eta inguruka hasi nintzen mintzatzen.

Elkar entzun ahal izateko, ia deadarka egin genuen aitak eta biok hurrengo solasketa<sup>70</sup>, trenak tarra-pa-ta-tan, tarrapa-ta-tan, tarra-pa-ta-tan... gelditu gabe egiten zuelarik denbora guztian.

—Nekazarixak eztira joaten kolejixora, ez aita?

—Zegaitik ez? Ikastia ona dok guztixontzat.

—Ba... Antton ezta joaten.

—Anttonek baxakik leiduten da eskribiduten, eta ibili dok hiru urte ikastetxean.

—Orduen, leiduten da eskribiduten ikesi ezkerro, eztabe nekarixek gehixao ikastetxera joateko biherrik?

—Zoritxarrez, horixe dok Anttonen aitaren eritxixa, eta Anttonek etxok gehixao ikesiko, gizajoak.

Bukatu zen honekin gure solasaldia. Gu isildu, eta tarrapa-ta-tan, tarra-pa-ta-tan egiten zuen trenak bere leloa utzi gabe.

Ebanjelioa bezala sinesten nuen nik aitak erraiten zuen guztia, baina ikastetxera ez joateagatik nere lehengusua neretzat ez zen gizagaixo, zoriontsu baino. Hau zergaitik esaten zuen aitak susmatu ezinik, gogoetatsu gelditu nintzen leihotik begira.

\* \* \*

Bego Patxi bere oldozmenekin. Ez gaitezen izi buruak leher eginen ote dion bildurrarekin. Laster aienatuko dizkio buruhauste guztiak leihotik ikusten duenak. Guk, bere aitak bidaide batekin egin elkarrizketa entzunen dugu artean.

\* \* \*

—Barkatu, jauna —erran zion Patxiren aitari, beste aldean eserita zegoen bidaideak—, entzun det nola esaten zenion semea-

---

<sup>70</sup> [Solasketa: hizketa].

ri ona litzatekela nekazari batentzat leitzen, eskribitzen eta kuentak baino eskola gehiyo izatia. Ona da ikastetxia haurrentzat edo lan egin behar eztutenentzat, baina ezin det konprenitu nola lagun dezaioketen liburuak nekazari bati lur langintzeko zereginetan.

Pedro Urrutikoaraunabeitia jaunak, edo laburkiago esateko, Urruti jaunak, aurrean zuen bidaideari begiratu eta:

—Eztinot nik —ihardetsi zion—, nekazaritzako biherrak kolejixoetan ikasten direnik, baina bai ona dala guztixentzat ikastia. Aberatsentzat ondasunak gehituteko, pobrientzat diru gehixago irabazteko, eta irabazpidiak alde batera itxita, danontzat, bizitzari gusto gehixago atarateko.

—Eta hori horla bada, eta semia ikastetxera biraldu behar badezu, nola eztiozu egiten erderaz? Eztirazu esango eztala ikasi behar erderaz ongi hortako lehendabizi.

—Egixa dinozu, adiskide. Zoritzarrez ikastetxeetan erderaz baino ezta egiten. Erderaz dagoz liburuak, eta erderaz egin bihar-ko deu gero unibersidadian be. Hain zuzen be, honegaitik egiten deusat euskeraz, eta ezteutsagu egiten erderaz etxien honixegaitik.

Une labur batean isilik egon ziren biak. Artean trenaren zarakak sendoago entzuten zirela zirudien.

—Badakit —gaineratu zuen Patxiren aitak—, bentaja haundixa kenduko deutoela erdaldunek kolejixoan lehenengo urtietan. Baina ikesiko deu, eztago bildurrik. E<sup>3</sup>noa ni erderan kontra. Ikesi deixela ondo erderaz, baina euskeraz be ondo ikesi biher deu. Neu<sup>3</sup>pe kanpoan ikesi neban erderaz, eta pilotu izateko, Bermion, Bilbon eta Cadizen, San Fernandon estudixau neban. Harrokeri barik esango deusut kosteko jatzula topetie, erderaz neuk baino obeto dakixan erdaldunik.

Bidaideak tabakoa atera zuen eta biak hasi ziren erretzen.

—Hizkuntza bi ikesi ezin deuan mutikorik eztagolakoa nago —ostera ere Patxiren aitak—, Beljikan, hiru edo lau hizkuntza ekixen mutiko asko ezautu dotez nik. Grezixen eta Turkixen, judixoen seme guztixek alemana, griegoa, arabitarra, inglesa, espai-



nola, eta nik eztakit zer dakixe. Eta euskeldunen artean be ospetsuenak erderaz eta euskeraz ekixen gitxienez. Elkano, Legazpi, Txurruka, Harizpe mariskala, Axular, eta beste mila, bi-el-dunak ziren gitxienez. Gaur be hauxe bera jazoten da Euskal Herriko semerik ospetsuenean artean. Unamunok berak pe, jakin ekixen euskeraz, gitxi baino ezpada be. Eta ez egizu sinestu euskeraz jakitiak beste hizkuntzak ikastia gatxago egiten deuenik. Hogeta hamarren bat erdaldun eta zortzi euskeldun dabiz neugaz itsasotan. Zer uste dozu egiten dabela erdaldunek, espainolez eztakian itsastarren bategaz berba egin biher izaten dabeni? Ba, deitu arin edozein euskeldun!

—Harrigarriya da! Ez nuen holakorik sinetsiko! —egin zuen bidaideak.

—Ba sinestu egizu. Bai, hizkuntza bat baino eztakixenei oso gogor egiten jake beste bat ikastia, baina bigarrena ikasi ezker, askozaz arinago ikasten da gero hirugarrena. Jakitiak ezteu ogirik jaten, eta bai askotan ondasunak emoten.

—Baliteke egi asko egotea zuk diozunean, eta euskerak batzuk uste dutena baino gehiyago baliyo izatea. Baina, baldin semeari ongi irakatsi nahi badiozu euskeraz, nola egin dezakezu hori, zerorrek ere *idatzi*, *ikastetxe-nagusi*, *aurka* eta beste euskerazko hitzen ordez, *liburu*, *topeu*, *unibersidade*, *kontra* eta beste erdel hitz asko esaten badituzu?

—Parkatu egistazu, baina oker zagoz hortan be. E'naz ni mordoiloitale bat, garbizale huts bat baino. Garbizale bai, baina ez garbitzaile. *Topeu* eta *aurkitu*, *kontra* eta *aurka*, denak dira euskera hutsezko berbak. Bitarikoak, edo zuk esango zeunken legez, bi motazkoak dira euskerazko berbak. Batzuek euskeraz bakarrik esaten dira, eta besteak barriz, beste hizkuntza asko edo gitxitan be euskeraz letxe ixa. Zuk eta zulako garbitzaileak euskeratik kanpora botako zeunkiez honelako berba guztixak. Baina *sekula*, *gorputz*, *mirakulu*, *inpernu*, *zeru*, *arima*, *liburu* eta beste berba asko, espainola, frantsesa eta beste latinaren semiak jaixo ziren denporetan hartu ebazan latinetik euskera zaharrak. Beriak deuz

euskeriek berba horreik edozein hizkuntzaren besteko eskubideagaz.

—Ez esan latinen semiak eta euskerak eskubide berdina dutenik haien amak hilikan utzi zitun hitzak erabiltzeko. Eztaiteke berdinu seme baten eskubidea arrotz batenarekin.

—Ederto! Baina latinaren semiak alde batera itxita, inglesak, alemanak eta beste Europako hizkuntza guztixak, euskeriek beste berba hartu zituezen latinetik. Latinek berak be griegotik eta orduko hizkuntzetatik hartu eban biher eban guztixa. Hizkuntza guztixek hartzen dabez berbak kanpotik. Eta gure euskera zaharrrak, beste hizkuntzen berbak bereganatuteko erraztasunik ez baleuke, ez zen helduko bizirik gure denporetara.

—Zuk aipatu dituzun hizkuntzak, beste hizkuntzetatikan ostu behar zuten bizitzeko. Euskerak, ordea, nahi aina hitz egiteko behar diran sustraiyak ditu, inoren etxera ostutzera joan gabe. Ez ditu euskerak ostu behar *metro*, *telefono*, *elektrizidade* eta honelako hitzak, euskeraz *neurkin*, *urrutizkin* eta *tximist* esaten baitira. Eta hauek atera diran bezala, behar diran hitz berri guziak atera daitezke.

—Adiskide, ezteutsut entzuten zentzuneko gauzarik. Oin be esan bi'otsut (behar deutsut) oker zagozala. Ezta hau erraza berba barrixak euskeraz asmatutia, erderaz baino errazagoa bada be. *Metro* euskeraz *neurkin* dala dinozu. Eta neurtuteko tresniari erderaz *metro* esaten jakonian, euskeraz *neurkin* esatia ez legoke txarto; *trae el metro* euskeraz esateko *ekatzu neurkina* esaten b'ozu ondo esango'zu. Baina neurtuten dauen edozer eta edonor be *neurkinak* dira, nahiz litro bateko ontzi bat, nahiz teodolito bat, nahiz termometro bat, nahiz neurtuten daben gizon edo emakumak eurak pe. Baina Pariseko Bureau International des Poids et Mesures-en gordetzen dan neurkinari euskeraz METRO esan bihar jako, beste edozein berbetatan legez, metro berbia be, hizkuntza guztietan esateko erraza zelakoan asmatu zen da. Eta *yarda*, *versta* eta beste luzerixak pe, euren izenak gorde bihar dabez euskeraz. Izena aldatzen bada, luzerixa be aldatu biher da.

Urte asko itsasoetan kapitan bezala agintzen ohitua, batzuetan lehorrean ere latz samarra zuen hizkera Urruti jaunak. Min-duta honegaitik, isil-isilik zegoen bidaidea. Baina gogoetatsu jarri zuen entzuten zuenak.

—Berba barrixen artean —erran zion leunkiago gero—, *urrutizkina* zoriontsuenetariko bat da, gehixen zabaldu diranetariko bat dan ezkerero. Baina *telephon* berbia, hizkuntza guztientzat asmatu zan, eta euskeriak, mundu honetako hizkuntza bat dan ezkerero, beria deu berba hau be. Bixetara esan lei ba euskeraz: telefonua eta urrutizkina. Baina eztabe bixak bardin balixo. Urrutizkin berbiak adierazten deuen zabalagoa da niretzat bestiak adierazten deuen baino. Telefonoz berba egiten deuan gizona bera be urrutizkina da. Bai eta urrunetik berba egiteko gauza dan edozein tresna, asmatua edo asmatuteko dagona be.

Eta isilune labur baten ostean:

—Elektrizidadiari *tximista* esatia astokeri handi bat da —erran zion berotasunaz—. Hodeietatik jausten diran tximistak, fenomenu elektrikuak badira be, eztira elektrizidadiaren konsekuentzi bat baino, ez elektrizidadia bera. Erretzan dan ikatz zati batetik urtetan daben txinpartak<sup>71</sup> be tximistak dira, elektrizidadiagaz senidetasunik pe ez euki arren.

Baketu zen honekin eta:

—Ez adiskide —jarraitu zuen—, ezta hain erraza berba barrixak asmatutia. Eta ondo asmatu ezkerero be, uste dozu hoge euskeldunetik hemeretzik ezagutzen eztaben berba bat euskerazko berbia dala? Euskel Herrixen egiten diran gauzak eztira ikusi inoiz mundu guztixan. Nun egin ete dira, egileak bakarrik uler-tzen dituzan liburuak? Negargarrixa ez balitz barrez itoteko litzake.

Beste isilune bat eta:

---

<sup>71</sup> [Txinparta: tximista, xinda].

—Ondo asmatzia gatxa bada, asmatu dana euskeldunen artean zabaltzia gatxago da. *Neurkina* eta *tximista* zabaldu diran legez, zenbat hiz barri urtian zabaldu leikezela uste dozu?

—Ba... eztaikit ba —erran zuen bidaideak, luzaro isilik egon ostein—, ehun edo... Bai, uste det urtian ehun bai zabaldu daitezkeela.

—Kendu hortik! Ehun? Nire bizitza guztian eztozaz ikusi ehun hitz barri... Baina ezta ardura. Emon deigun, urtian ehun zabaldu leikezala... Ikusi deigun ia... Honenbestegaz be, Matematiketan, Fisikan, Kimikan, Osagintzan eta beste jakintza-adarretan bihar diran hitzak zabaltzeko, ehun urte bihar litzakez. Artian beste hainbeste agertuko ziran, urtian ehun baino gehiago jaiten dira ta.

—Aski da —erantzun zuen bidaideak—, ikusten det oker negoala. Agerian dago ezta guzta gauza euskera, gai jakitunez idazteko edo hitz egiteko.

—Adiskide, e'zaitetz joan urrunegi —ihardetsi zion Patxiren aitak—. Ezin leike asmatu, ezta zabaldu be, jakitun hitzen ordeko berba barrixak bihar litzaken beste arin. Eta zorixonez ganera!... Guk bakarrik aldatu, danontzat asmatuten diran berbak? Danentzat balixo dana guretzat ona izan ez, eta guk, mundu guztitik aparte, haren ordeko berbak asmatu? Honelako zorakeriak egiten gaituez barregarri kanpotarren aurrian!... Esaiozu osagile bati, medizineko berbak bi bider ikesi biher dituzala guztixak... ikusiko'zu, inpernura bidalduko zaituz. Nahiz frantsesez, nahiz alemanez, nahiz inglese, mundu guztiko liburuetan topetan dituz berak ikasitako berbak. Mundu guztixan agertzen diran gauza barrixak irakurri daitez berba horrerik esker. Zeozer balixo dabe beretzat. Bestiak, euskeraz bakarrik erabiliko litzakezenak zetako ikasi?

—Zer egin liteke orduan? Erderatik hartu hitz hoiek, eta bakoitzak berak nahi duan bezala euskeratu?

—Ez! Hori ez; ahalik gitxien bihar dira aldatu. Euskera jakitun bakarra bihar badogu, etxake egin bihar beste alda-

kuntzik, euskeldun guztixak bardin egiten dabezenak baino. Igon latinera bihar danian, espainola eta frantsesa han bardin-zen dira ta. Bizi deitezela kalia oin arte legez, bakotxak ikasi deuzen moduan esaten. Agertuko da azkenian euskera jakitun bat, jakintzako gauzak euskeraz esan ahal izateko, euskeldun guztientzako liburuak idazteko gauza izango dana. Euskeria ezta izan bihar bakarrik baserritarren hizkuntza, bizirik iraun bihar badeu.

—Orain arte —erran zuen bidaideak—, bizitza luzea izan du euskerak, eta ezta inoiz ere izan jakintzako hizkuntza bat.


—Egixa dinozu. Ezta sekula izan jakintzako hizkuntza bat. Baina jakintzia bera be, ezta inoz zabaldu bazter guztietatik gaur zabaltzen dan legez. Dagon moduan, jakintzia heldu, eta agur egiten deusku euskeriak. Ezta zabaldu oindino baserrixetara. Bestela hilgo zan oingo.

—Jakintzagaitikan galdu behar badegu euskera —erran zuen bidaideak—, eztegu nahi jakintzarik.

—Ez esan holakorik! Jakintziak bi bider gizon egiten deu gizona! Jakintzabako herri errukarriak astokilo-herriak dira! Bitik bat, euskera ala jakintza hautu bihar izatekotan, jakintzia hautuko neuke Euskel Herriarentzat. Ezteigun negar egin jakintzia zabaltzen dalako, gauza on-ona da ta. Zabaldu daila bazter guztixetatik. Baina gertatu daila euskeria be jakintzagaz bizitzera, bizi daila gura dogu ta.

\* \* \*

Aita bidaidearekin hizketan eta Patxi leihotik zaintzen, guztiz labur egin zitzaien ibilaldia, eta ohartu gabe heldu ziren Bilbora.



# X

## MILA URTE EZ DIRA BEHAR MILA GAUZA IKUSTEKO

Berriz ematen diogu luma Patxiri. Hona berak idatzi lerroak euskara osotuz jarriak:

Azterketara joan nintzenean eta aitak eroan ninduenean, Bilboko hiriak bi arpegi ezberdin erakutsi zizkidan. Fraile erdaldunekin erdaldun hutsa agertu zitzaidan eta aitagaz joan arte ez zidan erakutsi bere euskal arpegia.

Lantola handietan, makinaz bete lekuetan, behea burdinazko txirloraz estalia, haizea suak eta keak aldika gorriz argitua, aldika beltzez ilundua, belarria makina zarataz betea, nik ezin ulertu hizketaldi luze asko egin zituen aitak koipez zikin zeuden langileekin, treneko gizonarekin bezala. Baina nik ulertu ez arren, bidai-dea izan ezik, denek ongi egiten zutela euskaraz ohartu nuen. Ongi egitea Arrigorrietan bezala egitea zen neretzat. Euskal Herri-tik kanporatu nintzenean, laster bazterrarazi zidaten giputz eta napar adiskideek euskararen neurria hartzeko era erraz hau. Egia erraiteko, arrigorrietarren artean haurrek bakarrik darabilte, baina anitz dira Euskal Herriko hiri askotan, euskara honela neur-tzen duten gizon haziak.

Ikus ezazue nolako jende zolia garen arrigorrietarrok, gure haurtzaro-neurria beste tokietako gizon hazientzat ona denean! Zoritxarrez ni ez nintzen jaio Arrigorrietan. Baina ez da axola,

arrigorrietar hutsa naiz, makina bat bider egin baintuen nere beharrak Artozubi eta Burdinate karriketean. Arrigorrietar izateko, dio Arrigorrietako lege zahar batek, herrian jaio izatea duzu beharrezkoa, bestela Artozubi eta Burdinateko kaleetan, kale bakoitzean behin gutxienez, egin behar duzu hori. Baina kontuz! Prakkak lurrean dituzula aguazilak harrapatu eta *perrerara*<sup>72</sup> eroaten bazaitu, han egin beharko duzu lo, ziudadani berria lortu gabe eta.

Padre Varelak, ikastetxeko fraile batek, bakoitza jaio den tokikoa dela, Katalunian jaio dena katalana, Madrilen jaioa madrileñoa, eta ni bilbotarra naizela erraiten du. Baina oso erraza da hau gezurra dala erakustea: Mikel Melitonenekoa itsasoan jaio zen, baina ez da arraina, Txomin Erreka, Jauregieneko ukui-luan jaioa izan arren, ez da astoa, ezta zezena ere, gizona baino.

Baina goazen harira.

Taxi batean ontzira gindoazelarik, ikusgarri zen gure ezkerrean Bilboko ibaia. Anitz itsasontzi mila kolorezkoak, handiak batzuk, handiagoak besteak, oihalezko asko, lurrinezko gehienak, bi ibaialdeak betetzen zituzten, ia txalupa batendako tokirik ere utzi gabe, guk iragan kilometroetan. Enbor zuzen-zuzenezko oihan alai batean, garabi beltzek eta ontzi-haga hori eta zuriek moldatua, zamak gora eta behera, kea handik, lurrina hemendik, lanean ari ziren itsas-langileak. Egungo bakartasun baketsuak ez du inondik oroitarazten denbora hartako Bilboko kai bizi-bizia.

Bira egin taxiak Bilboruntz eta ibai aldera joan ginen aita eta biok. Orduan, txilibitu txiki bat atera sakeletik, eta *friü! friü!* jo zuen aitak. Ontzi beltz handi baten gainean gizon bat agertu zen. Jatsi behean lotuta zegoen txalupa txiki batera, eta guganuntz arraundu zuen gizon honek.

Gure ondora heldu zenean *Egun on* erran zigun. Sartu gu txalupan, bira egin, eta ontzi beltz handiruntz arraundu zuen berriz.

---

<sup>72</sup> [Perrera: zakur-etxola, zakurtegi].



Gaineko zikinkereri askogaz hornitua, olioia bezain geldi zegoen kresala. Azaleko zirkunferentziak arraunetan jαιο, gero eta handiagoak, alboko ontziak jo arte zabaldu, eta ostera etortzen ziren guganuntz olatu ttipien itxuraz.

Azpitik iragan eta soka handi bat hunkitu nuen eskuaz. Arraiua! nere besoa baino lodiago zen!

Beste ontzi baten ingurutik bidea zerbait okertu ostean, aita-ren ontzira heldu ginen. Zurubia eskuaz oratu eta goruntz hasi zen aita arin-arin. Ni bere atzetik, eta azkenez, txalupa arraundu zuen gizona.

Ontzi-sabel ondoan eskegia, ezkerretik eskumara zebilen kilin-kolon lokarriko esku-zurubi mehea. Gizonendako baino tximinoentzat egokiagoa, ez zegoen geldi segundo batean ere. Orduan ez nekian igeri egiten, eta beheko ur zikinaren ikustea ikaragarria zen neretzat. Halaz ere, ahalgreak bultzatuta, zazpi ahaleginak egin nituen arin igotzeko, baina gibeletik zetorren gizonak nere bildurra igarrita:

—Tira gora bildur barik —erran zidan—, jeusi ezkerro be neuk oratuko zaitut eta.

Arratsaldean, errege-zurubi delako eskailera handia ipini zutenean, ez nuen gehiago halako bildurrik jasan.

Txalupako arraunlaria bermeotarra zen, eta gauza asko erakutsi zizkidan. Adiskide handiak egin ginen bera eta biok. Ontziko tripa barneko makina izugarriak Luzio bermeotarrak lagunduta ikusi nituen. Gezurra dela uste izanzen duzue, baina ingles giltz bat erakutsi zidan, gizonik altuena baino luzeagoa. Eta ontziko labak? Halakoxea ei da infernua. Eta ikatza botatzen zuten gizonak? Gerritik gora biluzik, izerdiz busti-bustirik, suaren argiak bularretan distiratzen; Satanas, Luzifer eta beste demoni-noak izateko adarrak eta buztana bakarrik falta zitzaien.

Ontziko jangela nagusia, erderaz *camara*, ez zen lehorreko jangelen antzekoa. Ez zen oso goratua sabaia, aitak eskuaz hunki baitzezakeen, baina gela eder bat zen. Leihoak ez ziren handiak, baina bai ugariak, eta arras argitsu eta guztiz alai egiten zuten

toki zabala. Bana bi ate-alboetan, bi ate aurreko horman, eta lau sartzetakoan ezkerreko aldean; biribilak, leiar lodizkoak, urrea bezain distiratsuzko latonezko estunez inguratuak. Mahai luze eder bat erdian, urrutiko herrietako zur gorri aberats batezkoa, aulkiak eta altzariak bezala. Aulkiak behean josiak. Hormak erdiraino, aipatu dugun zur gorri ederrezkoak, erditik gora, sabaia bezala, troskaki bezain zuri eta distiratsuak. Argia emateko tresnak bitarikoak: elektrizidadez eta petrolioz elikatzeak, eta —aitak irakatsi zidan bezala— guztiak Cardan-ek asmatu eran eskegiak (irakurleak jakinen duen bezala, ontzia edozein aldera okertzen delarik, zutik eta albokera egin gabe gelditzen dira Cardan-eskegiez dagozan tresnak). Zerbait zeukan gela eder hark, itsasoko olatuak, ekaitzak, kresala eta urruneko herriak gomutazten zituen.

Bazkal ostean, *hari-gabeko-telefonoaren* entzutera eroan gintuen Marconik aita eta biak. Marconi erraiten zieten itsasontzietan telegrafariei. Hari-gabeko-telefonoa, egungo arradioaren aitona zen. Arradioa ez zen oraino gauza ezagun bat gehienentzat. Nere-tako behintzat gauza berria zen, eta harrituta eta aho bete hagin-gaz geldituko nintzelakoan zeuden aita eta Marconi.

Hitz egin, bai, egiten zuen. Musika ere, lohi edo garbi, jotzen zuen. Baina zer? Zer dago hemen inor harritzeko?

Aitortu behar dizuet halaz ere, asmaketa miragarriak aho bete hagin-gaz utzi ninduela. Bi gauza zeuzkan edonor harrituta uzteko. Lehenbizik: Hari-gabeko telegrafi tresnan ez zen ikusten besterik hariak baino: hari urdinezko mila bira, hari gorrizko beste hainbeste, hari beltzezko kilometro bat bueltaka batua. Orain banekien nik nondik zetorkion halako tresna bati *hari-bako* izena. *Eperdibako* esaten zioten Arrigorrietan neska lodi bati, ipurdi handi-handi bat zuelako. Halan ipini zioten noski *haribako* edo *hari-gabeko* izena hariz betetako tramankuluari. Bigarrenez: aita eta Marconi ez ziren nekatzen tramankuluak zerion zarata entzuten. Egun ere, hauxe da neretzat arradioaren gauzarik miragarriena: gaizkien entzuten denean aditzen dutela zaletasunik han-

dienaz benetako arradio-zaleek. Eman iezaiozue azken modeloko aparatu bat, musika eder-ederra garbi-garbi zabaltzen duena, eta berehala aspertuko zaizkizue. Baina gaizki entzuten den edozer aditzearren nahi aina denbora egonen zaizkizue zain isil-isilik. Orduan ez dira gogaitzen. Honelako radio-txotxoloak<sup>73</sup> mundu guztian daude sakabanatuta. Honetariko bat, gau guztian egonen zaizu ohera joan gabe, biharamun goizean lanera joan behar izan arren, eta goizeko lauretan Australiako txotxolo batekin hitz egin duela eta, milioi bat ogerleko aurkitu balu besteko bihotz-taupadaz poztuko zaizu.

(Agerian dago ez zaiola atsegin arradioa Patxiri. Baina honegatik ez litzaieke burlarik egin beharko arradiozaleei, ezta askaketa honen merituak ezetsi ere. Dena dela, ez ditugu aldatu nahi berak idatzitako lerroak, bizkaieratik euskara osotura itzultzeko ez bada).

Aita eta Marconi ez ziren aspertzen eta ni gogaituta nengoen entzunaldi aspergarria noiz bukatuko zen igurikitzen. Piperrak prijitzen zituelarik, zarata berdin-berdina egiten zuen amak etxean.

—Ez duka musikea entzuten? —itaundu zidan aitak erderaz. Marconi erdalduna zen, eta telegrafi-gelan, tramankulua izan ezik, inork ere ez zuen egiten erderaz baizik.

—Musika hori hirurehun kilometrotik dator —erran zidan Marconik.

—Uuuuuuuuuuuuu —egin zuen tramankuluak, lehoiaren orroaz hasi, otsoaren irrintzi luzeaz jarraitu, eta hezurak ikaratzen zituen txistu zorrotz batez bukatu. Gero urruneko sukalde bateko zaratak ekarri zizkigun. Piperrak prijitzen ari ziren sukalde hartan. Piper berri bat olio beroaren gainean ipintzen zuten bakoitzean, izugarriak egiten ziren zaratak. Zoritxarrez ez zituz-

---

<sup>73</sup> [Radio-txotxoloak: radio-zoroak, radio-eroak].

ten prijidu orainan piper guztiak, eta olioaren tirri-tarrek estaldu egiten zuten musika gehienetan.

—Uhuuuuuit... hiiuuu —egin zuen hizkinak. Azkenean iga-  
rri nuen zein soinu jotzen zuten sukaldez beste aldean; “El Diego  
Montes es un valiente bandolero”, erderazko kantu bat.

Gabaz hobeto entzuten zela esan zuen telegrafozainak eta,  
Jaungoikoari eskerrak, bukatu egin zen entzunaldia.

Handik urten eta,

—Aita! noz joango gara Bilbora? —esan nion aitari—. Oingo  
lau t’erdixak joko eben aspaldi.

Arratsaldeko lau t’erdietan Bilbora eroanen ninduela agindu  
zidan aitak goizean.

—Lau t’erdixak? Hi burutik hago, txotxo! —erantzun zidan  
aitak—, ondino ordu bata t’erdixak baino eztozak!

—Zelan ordu bata t’erdixak! Eztogu bazkaldu denpora asko  
dala?

—Ai txotxo! Hire erlojua tripan xauk eta gaur aurreratuta  
xabilk. Eztakit hamaiketan bazkaltzen dala ontzixetan?

Aita bere zereginetara joan eta ni bakarrik gelditu nintzen.

Ontzigainan, pilotuaren agindupean, lurrin-makinatxoaz  
ziharduen itsas langileek, ontzia beste toki batera astiro-astiro era-  
maten. Gerritik gora biluzik eta koipe beltzaz oparo zikinduta, itxu-  
ra zantarra zuten langileek pilotu euskaldun garbiaren ondoan.

Makinatxoak fra-fra-fra-fra egiten zuen arin-arin, hortz-txi-  
rringak biraka zebiltzalarik eta deadarka esaten zituen aginduak  
pilotuak. Aitaren txilibitua lako bat jotzen zuenean, batera isildu  
eta gelditu egiten zen makinatxoa. Beste deadar batzuk, beste txi-  
libitu ukaldi batzuk, eta ostera hasten zen fra-fra-fra-fra maki-  
natxoa, eta ontzia lotzen zuten soka lodietariko bat biraka batzen  
zen ardatzean. Ontzia geldi-geldi zegoela zirudien; hain astiro  
mugitzen zen honela.

Ez zeuden opor egiten beste ontzietan ere. Batean garia leho-  
rretatzen, bestean burdin-lur gorria ontziratzen. Leihorrean ere,  
erne zeuden langileak zamak trenetan ipintzen lorretarako.

Alboko ontziko marinel batzuk inglesezt hasi ziren gurean lan gabe zeuden batzuekin, txalupa txiki batetik gora. Ulertu ezinik, Luzio deitu zuten gure marinel erdaldunek. Nere adiskideak jījau-jījau egin zuen inglesezt eurekin. Gero azalpen bat egin zidan: ontziko euskaldun guztiek zekiten konpontzeko behar den beste ingles; erdaldunek ordea hitzik ere ez.

Berriz joan ginen jangelara lauretan, beste janari baten hartzera. Goiz-aparia, edo bigarren bazkaria bukatu zenean, lehorreratu eta Bilbora joan ginen aita eta biok. Zirkora eroan ninduen aitak.

Ez dut ipiniko hemen zirkoaren berririk, berri zaharregiak idaztea litzatekeelako. Haurrak eta zirkoa! Ba ote da oraino zer-bait esan gabe gai honetaz?

Ontziratu ginenean ilun zegoen. Jo txilibitua aitak, eta argi bat hasi zen ontzigainetik zurubiruntz. Txalupara jatsi eta gugana etorri zen klikli-kloklo uretatik. Luzio zen. Arraun bakar batekin, popan zutik, ontzirat eraman gintuen.

Elektrizidaderik ez, eta ilun-ilun zegoen. Amarratuta zegoelarik, gabeko hamaiketan kentzen zuten elektrizidadea ontzian, eta gero petrolioizko argia baizik ez zen egoten. Hamaikak arte berriz argi ederra, akumulatoreek emana.

Hirugarren pilotua etxean zegoela eta, bere gelan atondu zidaten ohe bat.

Arasa baten gainean zegoen ohea. Gela ttipi hark ere itsas-kutsu atsegingarria zuen. Horma zuriak, aulki bakarra, eta argi tresnak, *camarakoen* antzekoak. Burko ondoan leiho biribil bazarrak maratila lodi bat zeukan. Bira batzukaz lotu ezker, ez zen sartuko handik ur tantarik ere. Ez zegoen bildurrik, olatuen zar-tadek ez zuten hautsiko leiar lodia.


Ohean sartu nintzenean, petrolioizko argi-tresnaren ardatza biraturik, bihurria gorde garra ito arte, eta argia itzali nuen. Orduan begirakada bat bota nuen buru ondoko leiho biribiletik. Ontzietako argiak eta berriz euren irudiak ur distiratsuan, biziro nabartzen ziren iluntasunean. Ontziak, iluntasuna baino beltzagoak, erdi ikusi erdi susmatu egiten ziren.

Itsaso haserrean, leihoretik urrun, olatuak leiho biribilaren kontra ikusten nituela iruditu zitzaidan.

Nola bekaizten nion hau hirugarren pilotuari! Honelako leiho batetik olatuak itsaso erdian ikustearren, honelako toki batean gauoro lo egitearren, edozer emanen nuke.

Bai! Pilotu izanen nintzen gizon-arora heldutakoan.

Eta asmo honekin lo gelditu nintzen.



# XI

## ADISKIDE DU ZAKURRA, BERA IZAN ARREN LAPURRA

Uda hartako oporraldiaren erdia iragan orduko oso ederra egin zen eguraldia. Hamabost egun ziren aita itsasoratu zela. Patxik ez zuen egiten etxean jan eta lo baizik. Osterantzeko denbora guztia kanpoan igarotzen zuen lagunekin.

Olgetan bakarrik egin balu, ez legoke txarto, baina Patxik eta, sagarrak ostuten zituzten. Badakit hau zorigaitz handia dela liburuarentzat. Nik nahiago nuke guztientzako erakaspen onak idaztea, baina Patxi ez zen liburuetan ipintzeko behar litzatekeen bezain on.

Kutxa handi bat eman zion behin izebak opiltxo gozoz beterik etxera eramateko eta Patxik, mutiko on baten modura tentazioari gogor egin beharrean, doi-doi urrats batzuk egin eta bat jan zuen. Orduan, damututa besteak etxera eramane eta amari egia esan eta barkatzeko eskatu beharrean, gustu ona zuela eta, beste bat jan zuen. Uste duzuaia, irakurle, etxera eramane zituela beste opiltxoak? Bai zera! Beti bategaitik ez zela igarriko eta, banan-banan, azkenean denak jan zituen. Bat baino ez zegoela ikusi zuen harrিতuta gelditu zen. Baina ez zen joan etxera eta belauniko jarrita ez zion esan amari:

—Ama! Geiztua izan naiz! Kutxa bete opil emon deust izebak etxera ekarteko eta bat baino ezta kart, besteak danak jan ditut.

Eta negarrez eta damututa zegoela ikusirik, amak ez zion bar-  
katu musu asko eta besarkada bategaz. Ez! Azkenekoa ere jan,  
kutxa bota, eta ezer ere ez zuen erran etxean.

Sagarrondoetara igotzen zenean sagarren ebastera, ez zen  
hausten adarra, eta ez zitzaion lokatzen<sup>74</sup> besoa, eta gero ez zion  
egiten haginka jabearen zakurrak, eta ez zen egoten gero ohean  
zaurituta, damututa eta betiko on izateko asmoarekin. Ez! Nahi  
aina sagar sartu kolkoan eta gero zakurrari ere harrika egiten  
zion.

Ezin beraz idatzi Patxirekin ikasgai oneko libururik.

Sagarrek ez zuten baliorik beretzat. Egarrria kentzeko ura  
edaten den bezala, ogia edo sagarrak jatea nahi zuenean sukalde-  
an edo baratzeko sagarrondoetan har zezakeen nahi aina. Amak  
sagar bat ematen zionean arrats-askarirako, burua makurtu,  
kopeta ilundu, eta ezpainak U esateko legez:

—Nik eztot gure sagarrik —hasten zen erdi negarrez.

Eta amak:

—Isilik ezpahago sagarra be kenduko deuat gero...

Baina etxeko sagar ederrak ezetsi arren, gogotik jaten zituen  
lagunekin ostutako sagar ttipi ezeak.

Patxi eta bere lagumentzat ez zen hobena<sup>75</sup> sagarren ebastea.  
Apez batek, edo euren iritziz gezurrik esaten ez zuen edozeinek  
hobena zela erran balie, ez ziren harrituko gutxi. Patxirentzat,  
errekan igerikatzera joatea eta tabakoaren erretea ziren munduko  
hobenik handienak. Batez ere lehenbizikoa. Errekara igeri egi-  
ten!... Hain pekatu handia egiten zuten mutikoak infernurako  
jaioak ziren! Hobendun ausartiak ere harro-harro ibiltzen ziren  
errespetagarri eginda. Hemendik atera liteke nolako sinestarazle  
bikainak ziren Arrigorrietako etxeko-andreak, ume batzuk erre-  
kan ito zirelako bildurrez semei igeri egitera ez joatea irakatsi  
nahi zietenean.

---

<sup>74</sup> [Lokatzen: destokitzen].

<sup>75</sup> [Hoben: pekatu].



Dena dela, bere etxeko baratzean sagar bila sartzen zena, lapur bat baino ez zen Patxirentzat. Baina ttipiegia zen oraino, berak eta besteek egiten zutena neurkin berdinarekin neurtzen jakiteko. Handi edo txiki, ikasi ote du hau inork?

Arratsalde hartan sagar asko ostu zituzten. Patxik bete-bete zeukan kolkoa eta jan eta jan zebilen. Atsegin ote zitzaizkion jakiteko, aski zen botatzen zituen muskilen ikustea. Nekez aurkituko zuten jatekorik kurloiek, euren partea bilatuko zutenean.

Patxi eta Juantxurekin, Seberino eta euren anai txiki biak zetozen, denek sagar hezeak jaten. Lau anaiek, auzoko harategiko semeek, Sultan ekarri zuten eurekin. Sultan, zakurrrote izugarri bat zen. Bere bizkarra, anai ttipienaren bururaino iristen zen.

Ederki bete zuen Sultanek bere eginkizuna arratsalde hartan, eta pozik zeuden sagar-lapur guztiak bere laguntasunaz.

—Sagar bila goazenian —esan zion Patxik Seberinori, zakurra burutik bizkarrera maiteki igurtzitzen zuelarik—, beti eroan bi'xoaguk geugaz (behar diagu).

—Bai! —erran zuen Seberinok.

—Bai, bai! Hori, hori!! Horixe ein bi'xoaguk! —esan zuten beste guztiek batera.

Eta denek igurtzitzen zioten bizkarra zakurrari. Sultanek ez zuen esaten ezer ere. Bakarrik, mihia zintzilik, erdi barrezka begiratu.

Bezperako sagar-lapurretan, asko ibili eta gutxi ebatsi<sup>76</sup> egin zuten. Sagarrak basetxe ondoan aurkitzen dira gehienetan, eta basetxeetan zakurrak. Sagarrondo oparoak ikusi, hasi arin-arin eurengana, eta ia heltzear zeudenean, zaunkaka agurtu zituzten zakurrek, eurek maite zuten isiltasuna osoro hondaturik. Etxeko jaunak orduan:

—Xxxxxx! Bul! Listo! ven aquí! —egin zien zakurrei. Eta, zaunkaka oraindik, Listok jaramonik ere egiten ez zuela eta:

---

<sup>76</sup> [Ebatsi: ostu].

—Txakur madarikatua! —esan, eta harri bat hartu zuen. Gero, Listo ere isilduta, begira gelditu zen, ea zeintzuk ote zetozen.

Agertu zirenean, azkarki jarraitu behar izan zuten aurrera gure mutikoez disimulatzeko. Halaz ere, baserritarrak bota zien begirakadan, zerbait susmatzen zuela ikusten zen.


Beste toki askotan ere, ez zioten utzi onurako biltzerik egiten zakur madarikatuek euren zalapartakaz.

Sultanekin diferentea izan zen. Gehienetan ihes egiten zuten txakurrek isil-isilik, zakurrote izugarria ikusten zutenean. Txakurtxo ausarti batzuk halaz ere zaunkaka egin zien; baina hanka egiten zuten laster Sultanen aurrean. Or handiak atzeman ezker, ihes egiten zuten, buztana hankartean, negarrez eta oihuka.

Lehenagotik ezagutzen zuten Sultanen zintzotasuna. Edonor hasi ezker anaien bat jotzen, zaunkaka eta marmarka hasten zen berehala, eta jotzailea gelditzen ez bazen, ausiki eginen zukeen zalantzarik gabe, hau egiaztatzen, badaezpadan, inor ez bazen ausartu ere.

Sultan lagun-taldeko kide bat izendatu ostean, arrats-askari bila joan zen bakoitza berera.

Gero zibaka<sup>77</sup> jokatu zuten afalordu arte.



---

<sup>77</sup> [Zibaka: tronpaka].

## XII

# HILAK LURPERA, BIZIAK MAHAIRA

Arrigorrieta inguratzen duen herria, mendiz eta ibarrez betea, bide zabal askok zehartuta dago. Anitz kilometro ibili gabe, nekez aurkituko da bost kilometroko bide zati zuzen eta leun bat; hainbeste okertzen dira bide zabal hauek, aldapaz gora eta behe-  
ra, eta biraz eskumara eta ezkerrera.

Euskal Herriko Txirrindulari Inguruua, edo erderaz nahiz “La Vuelta al País Vasco”, nahiz “Le Tour du Pays Basque”, Arrigorrietatik iragaiten zen, eta herritik sei edo zazpi kilometro urrunduta, Inguruaren aldaparik gogor eta ospetsuenetariko bat zegoen.

Inguruko herriz eta fotografiaz bete-beterik agertzen ziren orduko egunkarien orrialdeak. Mutikoek xehetasun guztiak ikasten zituzten. Interesa da irakaslerik onena. Alperrik saiatzen dira maisuak, erlijio, geografia edo gramatikako xehetasun eta izenak umeei irakasten. Ez dituzte ikasiko urtebetean Euskal Herriko Inguruan ikasten zituzten beste xehetasun eta izen arrotz. Arrigorrietar guztiak ezagutzen zituzten Sardui eta Barruetabeña, hiritik hurbil bizi ziren txirrindulari bizkaitarrak. Bi izen hauek eta klasifikaziokoen artean aintzinatuen zeudenek betetzen zuten gizonen jakintza guztia, izeneko gai honetaz. Baina ez haurrena. Haurrek izen guztiak zekizkiten.

Patxi, Juantxu, Seberino, Krispin, eta azkenekoen bi anai txikiak, Erramon sei urtekoa, eta Pedro Manuel laukoa, hiru t'erdie-

tan atera ziren Arrigorrietatik, X-eko aldapari buruz, han izanzen txirrindulari-lehia gogorraren ikustera.

Gure mutikoez zekiten bezala, bostetako gutxi gorabehera iraganen ziren txirrindulariak X-etik. Bidean aurrera hasi zirenean, beraz, ordubete eta erdi zeukaten oraindik.

Hodei-estalgirik gabe, ahaleginak egiten zituen eguzki distiratsuak seien buruen kiskaltzeko. Eskerrak bide ondoko zuhaitzei, euren adarrak, orriz hornituak, ezker eta eskumatik erdiruntz maiteki zabaldu, eta galazo egiten zutelako eguzkiaren asmo gaiztoa. Nahiz eta ostoen gerizpetik eta zuloetatik zehar iragan, indar kaltegarri guztia galtzen zuten bidean distirek.

Sultan ibilketa hartan ez ekartzea erabagi zutenean, erdi negarrez gelditu zen zakurra, eta ia damututa hasi ziren mutikoen X-eruntz. Ora ekartzeko gogoaz azaldu zutenei, txirrindulariei zaunkaka egiten zela erran zien Seberinok, eta iskanbilaren bildurrez, han utzi zuten euren lagun zalapartari maitea.

X-eko aldapa baino lehen, moja komentu bat zegoen. Baratzeko hesi gainetik, anitz madari ikusten ziren komentu honetan; heldu-helduak, begirako ederrak, gogorako linburgarriak<sup>78</sup>.

Isil-isilik zegoen dena. Lotan ote zeuden moja guztiak? Noizik behin automobil bat iragan eta isiltasunaren ordeztarata egiten zen nagusi. Baina laster gelditzen ziren gauzak osteraren lehen bezala, eta belarra jaten zuten ahuntz batzuen arranotsa, edo urrungo asto baten orroa izan ezik, ez zen ezer ere entzuten.

Orduan,

—Egon apur baten —erran zuen Seberinok—, egarrixa kentzeko madari bat hartu bi'xoat eta (behar diat eta).

Eskuz eta abarketen puntaz horma koskatik horma koskara, hamar hatz eta hamar behatzen laguntzaz, hesi gainera igon zen. Beheko aldetik baietz iruditu arren, ezin zuen handik adarrik atzeman, eta zirkoko clownek soka gainean bezala urrats batzuk

---

<sup>78</sup> [Linburgarriak: labangarriak, tentazioan erorrerazleak].

hesi gainetik egin ostean, beste aldera jeisten hasi zen isil-isilik. Laster joan zitzaizkion besteak atzetik, eta ez ziren iragan oraino hiru minutu, Juantxu, Patxi eta Krispin ere, hesiz barneko aldean zeudeneko. Erramon eta Pedro Manuel kanpoan gelditu ziren.

Hango udareen gozoa!

Bat hartzea zen Seberinoren asmoa, baina ezin despreziatu zituen esku ondoko madari eder-ederrak. Kolkoa bete-bete egin, eta atzera joan zen lehengo bidetik. Sabela narraztu hesi gainetik, eta kanpora jatsi zen.

Berak egin zuena zegiten besteek baratzean, moja bat agertu zenean, mutikoengana arin-arin, isats<sup>79</sup> bat eskuan zuela.

Denak batera, gure adiskideak hesiruntz joan ziren. Baina handik iragaiteko toki erraza banan-banan igon behar zuten. Orduan Krispinetik, hau da, denetarik okerrenak, gerrikoa askatu eta lurrera erortzen utzi zituen prakak.

Begiak estaldu eskuekin, eta geldi-geldi geratu zen moja.

Orduan denek ihes egin ahal izan zuten trankil-trankil. X-eko aldaparako bidea astiro-astiro egin zuten, udare eztiak jaten. Jende asko zegoen X-en, txirrindularien iragaitea igurikitzen.

Alde batera eginda, aldapa gaineko belardietan geratu ziren automobil bat eta moto-txirringa batzuk. Laster zabaldu zen beribil tresnetan etorri zirenek ekarri berria: Bottechia zetorren lehenengo, bost minutuko aurrerapenaz.

—Ala Botetxia! Animo! —zioten beheko ikusleek. Eta gero eta sendoagoak, gero eta hurbilagoetik zetozen abotsak.

Txirrindulari bat agertu zen orduan errautsez eta izerdiz estalduta, bide zabala okertzen den lekutik.

—Animo Botetxia, hori'ok eta! —egiten zuten Patxik eta bere lagunek, jende guztiarekin batera eroturik.

Berriz hasi ziren abotsak beheko aldetik gero eta sendoago igoten, eta beste hiru txirrindulari agertu ziren. Bata Henri Pellier, bestea X, eta hirugarrena XX.

---

<sup>79</sup> [Isats: eskoba].

Beste korrikalari batzuk eta... Sardui eta Barruetabeña!!!

Orduko abotsak! Orduko txaloak!

Patxi ta, bidetik aurrera jarraitu ziren. Noizik behin txirrindulari talde bat agertzen zen, lehenbizikoak baino arinago aldats-beheran.

Kilometro batzuk ibili orduko ez zen gehiago jenderik ikusten, eta orainan txirrindulari bakan batzuk igarotzen ziren noizik behin. Eserlekutik oratu eta ehun edo berrehun metro bultzatu zuten hauetako bat eta erderaz galdetu ea nor zen. Berak Telmo García madrildarra zela erantzun zien. Beste gauza batzuen artean, ea zenbat denborako aurrerapena zeraman lehenbiziko txirrindulariak galdetu zien. Artean geldirik zeuzkan pedalak.

Seberinok madari bat eman zion.

Etixeruntz hasi zirenean, ordubete edo zen azkeneko txirrindularia iragan zela. XXX-eko herri ttipia igarotzerakoan, bide-laster batetik sartu ziren.

Patxi sakel-aizto bat zeukan, eta bidea oihan ilun baten erditik ebagiten zuelarik, urrats batzuk basotik sartu, eta adar bat eskuan zuela agertu zen. Gero adarrari apaingarriak egiten, azala kendu eta adarra zatika zuritzen, adapoak<sup>80</sup> mozten, adabegiak<sup>81</sup> berdintzen, eta makiltxoak gero eta laburrago egiten ibili zen etxerako bide guztian. Halaz ere parte hartzen zuen eztabaidetan.

Ez ditugu idatziko hemen Patxi eta lagunaren arteko hizketa eta eztabaida luzeak Euskal Herriko Ingurua zela iturburu. Bedi nahikoa, eurek ere arratsalde hartan inguru luze bat egin zutela, eta Arrigorrietako etxeak ikusten hasi orduko ilunabarra zela jakitea.

Orai zetozen aldetik, hirian sartzeko fraile-komentu baten ondotik iragaiten da, eta mojenean legez, hemen ere frutu eder asko ikusten ziren baratzean hesi gainetik.

---

<sup>80</sup> [Adapo: adar txikiak moztu ezker, adar batean gelditzen diren puntak].

<sup>81</sup> [Adabegiak: adar txikiak errotik kendu ezker, adarrean gelditzen diren zuloak].

Nahiz mojekin izan zuten kausitzeaz<sup>82</sup> ausarditurik, nahiz arrats-askaririk hartu ez zutela eta goseak akulatuta, denek batera izan zuten oldozmen berdina madariak eta sagarrak ikusi zituztenean. Gainera errazago zen komentu honetan hesitik gora igotea bestean baino, harri bitarteetan ikusten ziren hutsuneakaitik. Pedro Manuel bera ere igon zitekeen goraino. Garaia ere ona zen, zaratarik entzuten ez baitzen.

Berehala ikusi zuten Krispin goian denei keinuz igoteko esaten.

Igon ziren denak.

Bideko aldetik baino sakonagoa, beste aldeko lurra, hesi gaineratik hiru metro behera aurkitzen zen. Mojekin gertatu zitzaizena oroitzapenez, denek zeukaten begi bat udarondoetan eta beste bat ihes egiteko bidean. Zorionez oraingoan ez zegoen banan-banan ateratzeko behartasunik.

Halako batean, fraile handi ikaragarri bat agertu, eta denak, bildurraren akulua ipurdian, iheska hasi ziren.

—A lapur zikinok! —zioen fraileak arineketan zetorrelarik—, harrapetan bazaitudaze!...

Denak igon ziren hesitik arin-arin. Baina anaietarik txikiak, Pedro Manuelek, ez zuen astirik. Hesi ondora heldu orduko, metro batzuk atzetik zetorren frailea. Orduan:

—Seberino! Seberino!... —hasi zen mutikoa bildurrez ikararuta.

Anai hauen arteko elkartasuna izugarria zen. Harri handi batzuk zeuden hesi gainean, gutxienez sei kilokoak, anitz urteko euriek hesitik askatuak. Hesi gainean zegoen Seberino, eta hesi gaineratik gora hasten zen bere anaia, frailea heldu zenean. Orduan Seberinok harri handi-handi bat eskuetan hartu eta, asto handiak! frailearen gainean utzi zuen erortzen.

---

<sup>82</sup> [Kausitzeaz: ondore onez, irabazteaz].

Buruan jo eta konorte<sup>83</sup> gabe erori zen lurrera frailea zaku bat bailitzan.


Lurrean geldi-geldi ikusi zutenean, hilda zegoela uste zuten denek.

Inori ezer ez esatea erabagirik, isil-isilik joan ziren etxeruntz.

Ametsetan gau hartan, frailea ikusi zuen Patxik.

Erahilaren berria zabalduko zelakoan, bildurrez zeuden denak biharamunean, baina ez da gehiago ezer ere entzun egundaino frailearen heriotzaz. Ezta egunkariak ere, ez dute inoiz azaldu bere azkena.

Beste fraileek lurperatuko zuten noski komentuko baratzean, inori ezer erran gabe.



---

<sup>83</sup> [Konorte: zentzu].



## XIII

### EZ DAKUSAN BEGIAK EZ AHALGERIK

Hainbeste bider aipatu dugun harategian, Seberino eta Krispinenean, hamalau urteko morroi bat zegoen.

Giputza zen, mutiko baketsu eta isila; ez zuen beste lagunik lau anaiak baino, eta gure adiskideak baino askozaz haziagoa izan arren, laster adiskidetu zen Juantxu eta Patxirekin ere. Blas zuen izena.

Behin, amu bat erosi eta puntatik eskegi zion hari luze batekin kainabera handi bati. Arraintzatzera joateko besterik ez zela behar erraiten zuen, eta arrainketan joan ziren denak Blasekin.

Hori ez zela nahikoa arrainak harrapatzeko, erraiten zuen Patxik, Anttonek Errekondon amuari harrak ipintzen zizkiola eta. Baina lau urte zaharrago izanik, gehiago zekien Blasek, eta berak zioena hartu zuten ontzat.

Luzaro egon ziren geldi-geldirik ibai ondoan, baina ez zen arrainik agertu.

Blasentzat hau ez zen harritzeko. Arrantzale kainaberadun batek eroapena eta pazientzia behar du gauza guztien gainerik, esaten zuen berak.

Besteak aspertu zirenean, bakarrik gelditu zen Blas ibai aldean, amua uretan sartuta eta kainabera goruntz apuntatzen.

Oren bi edo igaro, eta atzera beregana etorri zirenean, han aurkitu zuten geldi-geldi lehen bezala. Hain zuzen ere (hau zori-

txarra!) orduantxe hasten zen arrain bat amua irentsi nahiez eta gutxi falta zitzaion harrapatzeko, baina etortzen ziren mutikoen zalapartaz ikaratu eta ihes egin zion.

Igandea zen. Arrats-askari ordua heldu zenean, arrainketako ekipoa bildu, eta etxeruntz joan ziren.

Askaria hartu eta zibaka hasi ziren harategi aurrean. Bakoi-tzak bestearena hautsi behar zuen bere zibaz. Oso txarra da joko hau eta burrukak sortarazten ditu jokalarien artean. Orduan Seberino eta Krispin haserretu ziren elkarrekin honegaitik.

Krispinen tronpa hartu eta lurraren kontra jaurtitzen hasi zen Seberino indar guztiaz. Hau ez da bidezkoa. Etsaiarena eskuaz hunkitu gabe erabili behar du bakoitzak bere ziba joko honetan. Bestearena hausteko, iltzez behera jaurti behar du berea.

Krispinek:

—Ekarri nire tronpie! —eskatu zion.

Baina *itxerain* esan eta, jarraitu egin zen Seberino Krispinen ziba harriaren kontra botatzen. Irrist egin eta urrunena joan zen ziba. Krispin eta Seberino atzetik. Biak batera heldu eta eskutik kendu zion Seberinok Krispini. Orduan, *labaañas* esan, eta ihes egin zion Krispinek bere anaiari.

Hau esatea laidorik txarrena zen Seberinorentzat eta entzuten zuenean amorruez irakiten hasten zen. Ez da harritzeko. Behin, bi edo hiru urte zirela, buruan zaldar bat zuelako, moztu egin zizkioten ileak bizar-labaina bategaz.

Bazter batean harrapatu eta jo egin zion. Bestea negarrez hasi zen, eta zerbait urrundu zenean,

—Labaaañas! Labaaañas! —esan zuen berriz.

Tximistak botatzen zituzten Krispin eta Seberinok, Patxi eta Blasen ondotik iragan eta harategiko atetik sartu zirenean. Ate ixte eta zabaltzeak entzun ziren. Laster agertu zen Krispin iheska atzeko atetik, eta urrats batzuk gibeletik Seberino. Ingurua egin eta berriz sartu ziren etxeko ate nagusitik. Lehen bezalako atezaratak ostera ere. Krispinek ate guztiak ixten zituen atzetik, Seberinok astia gal zezan. Azkenean harrapatu eta plist! plast! bi

belarrondoko jo zizkion, burua makurtu eta besoakaz arpegia estaltzen zegoelarik.

Han bukatu zen lasterketa. Krispin negarrez gelditu zen. Seberino, Patxi eta Blasengana joan zen.

Ez luzarorako baina. Esna-erloju bat eskuan zuelarik, atzeko atletik agertu zen Krispin. Konturatu zenean, arineketan hasi zen Seberino atzetik. Baina beranduegi. Krispinek indar guztiaz jaurti zuen zeruruntz.

Ez dut ezagutu inor, Krispin baino trebeago harria botatzen. Gero pelotari ospetsu bat izanen zen. Orduan inork baino urrunago jaurtitzen zuen harria.

Etxeko teilatua baino askozaz gorago igon eta gero, plaust! erori zen lurrera Seberinoren ondoan.

Lurretik hartu eta belarria ipini zion gainean beronek. Ukal-di gogorragaitik axola gutxi, klin-klon-klin-klon-klin-klon... egiten zuen oraino.

Han zeuden Blas eta Patxi ea erlojua zelan hausten zen ikus-tera etorriak.


Soinua entzun eta argitu egin zen Seberinoren kopet iluna, eta etxe barnera eraman zuen ordularia, bere tokian eskegitera.

Blas eta Patxi harrituta gelditu ziren. Eta arrazoiarekin. Nekez aurkituko da munduan, halako ukaldia hartu eta betiko deskantsatzen geldituko ez den erloju bat. Non eta zenbatean erosi zuen Seberinok jakin gura duenak, hemen irakur dezake: León Salvador izeneko saltzaile berritsu batek saltzen zituen bi pezeta eta erditan. Baina baldin salneurria komeni eta erosi nahi badu, ez du aurkituko. Hil zen saltzailea aspaldi.

Nahiz eta ordua ematen gelditu ez, itxura barregarria zuen ordulariak. Seberinok erosi zuenean biribila zuen arpegia. Baina Krispinegaz hasarratzen zen bakoitzean, zerura joaten zen ordua ematera. Anaien arteko haserraldia bestela ez zela bukatuko, eta ez gelditzeko agintzen zioten zeruan. Baina lurreratze bakoitzak bere aztarna uzten zuen, eta konkorrak eta koskek, biribiltasunaren ordeztu itxurarik ezberdinena eman zioten erlojuaren arpegiari.

Igandeetako janzki berriek besteetan bezala jolas egiteko askatasuna kendu eta, hizketaldi luzeak egin zituen Patxik Blasekin arratsalde hartan.

Hamaika lizunkeria irakatsi zizkion Blasek. Barkatuko digu irakurleak hemen ez ipintzea lizunkeria hauek, baina liburua irakurri nahi duela esan dio Patxiri moja joateko dagoen lehengusina batek. Patxik ez du nahi bere lehengusinak halako gauzak jakin ditzan, ez deritzelako egokiak moja batentzat. Ezin ditugu idatzi hemen beraz. Sentitzen dugu.



# XIV

## JAN-EDANAREN GOZOA

### KONTU-EMANAREN GAIZTOA

Arrigorrietako auzotegi batean, Goienkalekoan, mutiko-talde handi bat batu eta elkartu zen, hamar urteko agintari gaizto baten azpian.

*Lebatzaren kuadrilia* erraiten zioten batasun honi, agintaria-  
ren izengainagaitik.

Hogeiren bat gutxi gorabehera, ttipiak eta gaiztoak, munduko mutikorik okerrenak ziren. Esan beharrik ere ez dago, askotan joaten zirela igerikatzera, hoben egile handi guztiak bezala. Izan ere, igerikari onak ziren denak, bat ere kendu gabe. Ikusgarri zen benetan hamar edo gehiago batera, beste hainbeste igel bailirean, ugesi ondoan igeri egiten zutenean.

Baina beste gauza batean zen oraino distiratsuago euren trebetasuna, eguzkia bezain distiratsu: harriak botatzen.

Lehendik dugu errana, Arrigorrietako mutikoen artean bi maila zeudena: burruka irabazle eta burruka galtzaileena. Garai-leek, bururatzen zitzaizkien kasketaldi guztiak eginarazten zizkieten garaituei, Ameriketari aspaldi nagusirik harroenak esklabo beltzei eginarazten zizkieten bezala.

Ez ziren sei edo zazpi baino gehiago oinaze-emaile kankailu alperrek. Askozaz ugariagoak, makal eta ttipiak, oinaze-jasale gaixoez edozer emanen zuketena sendotzeko eta loditzeko. Egin

ere, eginahalak egiten zituzten batzuek honetako, atsegin ez zitzaiena jan eta jan, zerbait jan nahi ez zutenean, haxe jan behar zela gizon sendo izateko esaten baitzieten gurasoek.

Zoritzarrez hau ez zen igarten ezertan ere. Denbora asko falta zen oraindik horrendako. Gutxienez bi edo hiru urte. Arin esaten da! Bi urte! Ia bizitza guztia...

Oinaze-emaileengana joan zenean euretariko bat bailitzan, inork ere ez zekien oraino Lebatza kuadrila ikaragarriaren agintaria zena.

—Txo! Ekak sua! —erran zion bati, zigarroa eskuan, ukondokada bat emanaz.

Halako ausardikeria ikusirik, harrituta gelditu ziren denak. Su-eskatuak, sua eman beharrean, bultzatu egin zion lurreratze-ko asmoz, behin, birritan, hiru bider... Baina su-eskaleak, igerikatzen eta tabako erretzen bezain ongi, eri txistua jotzen zekien. Sartu bi hatz ahoan eta huuuuuuuuuu! egin zuen.

Berehalaxe hasi ziren harriak Lebatzaren arerioen gainean indar handiarekin erortzen bazter guztietatik. Telegrama bat eraman behar zuela oroitu balitz bezala, bakoitza bere aldetik joan zen arin-arin, Lebatza tokiko jaun utzirik.

Hurrengo egunetan, lehen baino harrokeri handiagoz sua eskatu ziotenean, bai bai, berehala eman zioten, eta harrezkero, askozaz ttipiago izan arren, eurak baino harroago izan zen beti Lebatza euren artean.

Aldi bakan batzuetan izan ezik, ez ziren ibiltzen Patxi eta bere lagunak Arrigorrieta barneko kaleetatik. Euren auzotegia inguruetan zegoen eta herritik kanpora joaten ziren gehienetan. Honegaitik, bakarrik jakile izatera heltzen ziren gehienetan oinaze-emaile eta jasaleen hartu-emanetan.

Kateak eten ezin zituztelarik, usain txarreko suge higuigarri batzuk ziren euren etsaiak menperatuentzat. Hautzarotik irten da, adiskidetu egiten ziren arrigorrietar guztiak elkarrekin eta ez zegoen gehiago harrezkero lehen erranikako mailarik. Jan eta jan, azkenean morrosko handiak egiten zirenean, lehengo menpera-

tzaileen usain txarra haizeak eraman, eta gizondu egiten zitzaizkien sugeak. Makaltasunetik morroskotasunerako bidean, orainan indarrak osta-ostan berdindu, eta garaitu egiten zituzten banan-banan euren etsaiak, menpekotasunetik aske gelditurik. Eta han bukatzen zen arazoa.

Merezi zuketen menperatzaile ohiek menpekotasuna zer zen orai ikastea, lehen ematen zituzten oinaze guztiak harturik. Baina lehenbiziko garaituak ez ziren oroitzen. Bera bezalakoak azpian zapalduz atsegin hartzeko, honetako jaioa izatea behar du gizon batek.

Beste tokietakoen antzekoak ote ziren Arrigorrietako mutikoak? Besteen aintzinean, menperatutzat baino nahiago zuten menperatzailetzat agertzea. Badirudi lehenbizikoen apaltasuna baino bigarrenen harrokeria ahalgegarriago litzatekeela. Baina Arrigorrietan hau ez zen izaten honela.

Sultanekin herri barnetik zebiltzalarik, harrituta gelditzen ziren denak zakurrote izugarria ikusten zutenean. Hau oharturik ez ziren harrotu gutxi Patxi eta bere lagunak. Gauza bat zegoen ageri-agerian: halako lagun batekin zihoazenak ez ziren menperatuak.

Gaztainondo handi bat zegoen herri erdi-erdiko enparantzan, eta zurezko esertoki biribil batek inguratzen zion enborra zuhaitz honi. Ikasle batzuk zeuden han hogeiren bat urtekoak, udako oporraldiak pasatzeko zer egin ez zekitela.

Gure adiskideak heldu zirenean, zuhaitz handiaren gerizpetik zetorren Lebatza. Ikasleak begira zegozkien.

—Gur'ok etorri gugaz sagarrak ostuten? —itaundu zion Juantxuk.

Baina Lebatzak ez zion jaramonik egin. Arazo bat zerabilen buruan bueltaka. Ikasleak ezeze, mutiko asko ere begira zegozkien. Gure adiskideek eta beste mutikoek, Lebatza eta ikasleak inguratu zituzten, ea zer gertatzen zen ikusteko.

Txakur handi bat (bi sos, hamar zentimo) emanen ziotela agindu zioten Lebatzari ikasleek, baldin eskaintzen zioten gauza zikin bat jaten bazuen.

Bi edo hiru bider hasi zen ikasleengana.

Han hurbil zegoen mokordo bati zati txiki bat kendu zotz baten puntaz eta Lebatzari eskaini zioten.

Azkenean:

—Ja txakur handixe! —erran zuen Lebatzak.

Eta bat batean, zikinkeria iruntzi, txakur handia hartu, eta joan egin zen.

Ez zara harritzen, irakurle? Ez litzateke izanen nahikoa behar-bada egungo mutiko batentzat hamar pezeta; ikus ezazu... ehun aldiz gehiago!! Lebatzak hamar zentimogaitik egin zuena egiteko. Nok susmatuko zukeen honenbeste garestituko zela bizitza!

Orduan Paconera joan ziren gure mutikoak, edo Paco nor zen ez badakizue, Arrigorrietan irakurtzen ziren egunkari eta liburu guztien eroslekura, eta TEBEO bana erosi ostean, herritik zeihar iragan ziren, denak santuak ikusten, Sultan izan ezik.

Gero ibai aldetik hasi ziren banan-banako zerrendan, edo argi-ago esateko, bakoitza bestearen atzetik. Patxi aurrean zihoan ibai ondoko harresi gainetik. Ehun metrotik ehun metrora zati bat faltatzen zitzaion harresi honi. Hutsuneak, alde batetik bertikalak ziren eta beste aldetik zurubiak zeuzkaten txalupetatik lehorreratzeko.

Arrigorrieta ez dago itsasotik urrun. Ur beheara aldian, ibaia idortzen denean, buztin beltzez estalia agertzen da hondarra. Ustela eta usain txarrekoa, buztin honek izen bat dauka Arrigorrietan, beste tokietan sekula entzun ez dudana: *kakamelena*. *Melena* bakarrik ere esaten zaio, baita *kakatza* ere.

TEBEOa irakurtzen zuelarik, Patxik ez zuen ikusi harresiaren hutsunea, ez zuen aurkitu oinak non zapaldu, eta kakatzara erori zen handik goitik. Aidean zihoalarik, pilota bat bezala biribildu zitzaion brusa haizez beterik eta blaust! gerriraino sartu zitzaion ipurdia kakamelenan. Ez zuen minik hartu melena biguin-bigui-  
nean eta aurrean zeuzkan zurubietatik igon zen.

Arrigorrietako mutiko batzuek, Patxiri gertatu zitzaiona ikusi, eta usain txarreko buztinaz ipurdia lohituta etxerako bidean iragan zenean,



—Kakaaati! Kakaaati! Kakaaati!... —hasi zitzaizkion.

Patxi atzetik joan zitzaien haserretuta. Sultanek zaunka-ka egin zien. Baina, nahiz iheska, nahiz urruntasun egoki batetik, euren leloarekin jarraitu ziren mutikoak luzaro. Hona zergaitik erraiten dioten Kakati Patxiri, eta Kakatitxu bere seme-ari.

Handik bi edo hiru egun, berriz joan ziren sagarren bila Sultanekin. Baina orduan ikasi zuten ez zela Sultanen laguntasuna eurek uste izan zuten bezain ona.

Patxirenetik hiru edo lau kilometro, zabalgun bat dauka handik dabilen erreka batek. Arrautza esaten diote zabalune honi. Mutiko asko hara joaten ziren igerikatzera. Mutiko onak izanik, Patxik eta, ez zuten igeri egiten. Bakarrik, ortozik eta prakak izterretan batuta, belaunetaraino sartu uretan. Eta ez ziren ausartzen sakontasun handietan ibiltzen, alde batetik pekatu ez egitearren, eta beste alde batetik igeri egiten ez zeki-telako.

Beste erreka aldean goian, solo bat zegoen eta han, sagar gorri eta eder asko ikusten ziren. Bere kalterako, sagar batzuk hartzea gogoratu zitzaion Krispini, eta janzkiak pilo batean utzirik, uretan sartu, eta beste aldetik gora agertu zen biluzik. Sagarrondo bate-ra igon, eta sagarrak hartzen hasi zen.

Denentzako sagarrak batuko zituelakoan, adi-adi zeuden besteak, hango baserritarra agertu zenean.

Bera zegoen tokitik Krispinek ez zuen ikusten baserritarrik, eta besteak:

—E! e! Baserritarra! Baserritarra! —esan zioten.

Baina sagarrondotik lurreratu orduko, harrapatu egin zuen baserritarrak.

Berehalaxe hasi zen Krispin oihuka eta deiadarka, baina baserritarrak ez zion jaramonik egin. Esku batekin oratu, besteaz gerriko ugela askatu, eta astintzen hasi zen larru gorritan zegoen sagarzale gaixoa.

Uste dugu Krispinen oihuak Bilbotik entzun zirela.

Beste erreka aldetik ikusten zuten dena bere lagunek, baita Sultanek ere, trankil-trankil tripa gainean etzanda. Zakurraren patxada ikusi zutenean harrিতта gelditu ziren Seberino eta:


—¡A ese! ¡a ese! —egin zion Seberinok.

Dena alperrik. Sultan ez zen igitu ere. Begirakada loti batekin eta hitz egin gabe:

—Útz nezazue bakean. Logale nago. Hau ezta nere arazoa. Hor konpon —esan zien.

Artean Krispinek negar eta deiadar egin, negar eta deiadar egin, eta baserritarrak blaust! blaust! blaust!...

Handia izan zen Sultanen laguntasuna hau gertatu orduko, inglesen Home Fleet-ena bezala, *in being*, hau da egotez eta bestei bildurra sartuz. Baina ez zitzairen izan batere atsegin orduan erakutsi zuen axolagabetasuna... edo bildurra, eta ez zioten barkatu inoiz. Ez zuten gehiago eroan eurekaz.



## XV

# DEUS EZ DAKIENAREN JAKITATEA ISILIK EGOITEA

Blasek egindako pilota gogorra eta astuna sakelean, eskuak handituak eta minduak, Patxik begi aurrean zeukan liburua, baina pilota jokoan burua. Partidu bat zuten hasia berak eta Juan txuk, eta berau zegoen irabazten sei tantugaitik.

Goizeko zortzi eta erdietan hasten zen ikastetxean egunoroko mezea. Joareak<sup>84</sup> bederatzietan deitzen zituen ikasleak gela handi batera, han ordubete egoteko liburua ikasten. Hamarretan berriz entzuten zen joarea, eta guztiak, binako lerroan, frailea erdian, isuritegira joaten ziren. Gero ordubeteko klasea eta gero jolasaldia, Juantxuri sei tantuko bentajea kentzeko garaia.

Baina oraindik hogeit hamar minutu egon behar zuen Patxik gela handian eta ordulariak geldigeldi zeuzkan orratzak. Eskuturra belarrira eramane eta kli-kli-kli-kli... egiten zuen. Bost minutu ibiltzeko, gutxienez ordu erdi behar zuen orratz handiak. Edo behintzat hau da Patxiri iruditzen zitzaiona.

Isuritegiratzeak hain ongi neurtuta egon arren, ematen zuen batzuetan baimena fraileak komunera joateko garaia izan gabe, eta Patxiren galderari baietz erantzun zion orduan.

---

<sup>84</sup> [Joare: kanpai txiki, ezkala tipi].

Kaiolatik ihes egiten duen txoria bezala poztu zen gelatik irtanda. Zurubietatik jatsi orduko, pilota sakeletik atera eta tanga! bota zuen hormaren kontra. Gero besagain eta besazpi batzuk, punpa-laster<sup>85</sup> bat ezkerragaz, eta kliniki! klanka! leiar bat hautsi zuen.

Hartu pilota, sartu sakelean, igon, eta atzera bere tokira joan zen klase handira.

Bitartean ez zen egon lotan ordularia. Bazirudien berak ere, gela handitik irten behar zuela nagiak ateratzeko. Minutu batean hamar egin zituen eta laster entzun zen joarea. Liburu guztiak hertsi zirelarik komuneko bidea hartu zuten bi lerro luzeek.

Klasean eguneko ikasgaiaren zati bat galdetu zioten. Gure adiskideak ez zekien ezer ere, eta isil-isilik egon zen.

Deus jakin ezik isilik egoitea ez da edozeinek dakien gauza bat, eta anitz dira, zenbat eta gutxiago jakin, hanbat eta berrieketa luzeagoak egiten dituztenak. Baina fraileak ez zuen ikusi Patxiren meritu handia, eta zigortu behar zitzaizalakoan, zutik eta liburua ikasten egonarazi zuen bere gela aurrean hurrengo jolasaldian. Zertarako erran fraileari Juantxugaz jokatu behar zuela pilotaka? Alperrik izanen zen, ez baitzuen ulertuko. Joan zen ba isil-isilik garaia heldu zenean eta bete egin zuen zigorra.

Lehenago, Patxiren bizitzaz egiten den liburuan ikasgai onik idatzi ezin litekeela esan nuen. Pozik aitortu behar dut orai, oker nengoela. Eta liburua azkeneraino irakurtzen baduzu, ikusiko duzu nola gero eta zuhurrago egiten den. Astia eman behar zaio bakarrik, ttipiegi da oraino gaixoa.

Ezagutzen duzu, irakurle, Patxiren liburu-zaletasuna; oraino haur txiki bat baino ez zela, Espasa liburu-taldea gehiegi maite zuelako amak ipurdia nola berotzen zion irakurri baituzu.

Halaz ere, hamaika urteak bete gabe, ikastetxeko mutiko guztiari gauza bat fraileak galdetu, eta berak bakarrik jakin zuela

---

<sup>85</sup> [Punpa-laster: bote laster, bote pronto].


erraiten badizut, ez dakit sinetsiko ote didazun, eta areago hirurehun ikasle baino gehiago zeudela ikastetxean eta gehienak Patxi baino askozaz haziagoak zirela gaineratzen badizut. Eta berak bakarrik jakin arren, isil-isilik gelditu zela esaten badizut, baliteke batek baino gehiagok idazlearen lepotik barre egitea.

Barre-egile sinesgogor horiei, gauza bat erranen nieke nik: Ez dakizue jakitunek ez dutela ezagutzen harrokeria? Eta jakin arren isildu egiten direla, besteak baino jakitunago ez agertzeko?

Arratsaldean, ikastetxeko ikasle guztiak, hamar urteko adinekoetatik hamasei edo hamazazpi urterainokoak deitu eta:

—Zeinek hautsi du zurubi ondoko leiarra? —galdetu zien fraile batek haserretuta.

Batzuek ezin dute isilik egon gauza bat dakitenean, batez ere besteek ez dakitelarik. Patxi ez zen haietariko bat.



## XVI

### EDALE ON GUTI LANGILE ON

Urte guztietan, Tomas guren egunean, antzerti edo teatro jai bat egiten zen ikastetxean. Erderaz egiten ziren antzerti-hizketak eta erderaz hobekien zekitenen artean hautatzen ziren antz-egileak.

Aberatsen semeen artean egiten zirela hauteskundeak erranen dizute gaizki-uste maltzurrek. Ez dugu ukatuko, gurasoak semea ikustera beribil handi batean etorri ezkeru, eginkizunik nagusienetako bat edukiko zuela semeak teatro-jaian. Baina, ez ote dira aberatsenak hobekien mintzatzen direnak, nahiz erderaz, nahiz edozein hizkuntzaz?

Padre Varelak liburua aukeratu, eta aldatu egiten zituen solasak, emakume eta neska guztiak kendu, eta euren ordez gizon eta mutilak ipintzeko. Billar birla baten itxurazko burudun fraile honi *Kaskamotz* erraiten zioten mutikoek.

Hilabete aurretik ematen zizkien solasak antz egin behar zituztenei, zeharo ikasteko. Arin ikasi zuen Juantxuk berea, erraz eta labur izanik. Zaku handi bat txirloraz betea sorbaldan hartu, antzertokian sartu, *Buenos días* esan, zakua behean utzi eta irten. Hona berak egin behar zuen guztia.

Laster hasi ziren *ia-oraiak* edo entseguak. Garaian sartzen ikasteko, ia-orai guztietan agertu zen Juantxu, eta teatrotik bizi den edozeinek bezain ongi betetzen zuen bere beharra.

Patxiri eginkizun luzeago bat eman zioten. Baina ez zuen Juantxuren besteko trebetasuna eta gainera akats bat zuen; akats handia teatroan antz egin nahi duen batentzako: lotsati samarra zen. Baina hau ez zen axola. Kaskamotzek erran zuen legez agerrialdia baino goiztxoago, ardo zurrutada batekin kenduko zitzaien ahalgea.

Ez zait atsegin elizgizon bat aipatzean Kaskamotz idaztea, lotsa gutxiko gaitzizen bat iruditzen zait eta. Noizik behin Padre Varela esan beharrean Kaskamotz hitzak ihes egiten badit, ez nioke lotsa galdu nahi abade bati. Mutikoak mintzatzen ziren bezala idaztean, egiaren usaina irakurleari ekartzea nahi dut bakarrik. Eta ez esan mutikoak ahalgegabeak zirenik hau erraiten zutelako. Eurek ez zieten ezartzen gaitzizenik apezai. Padre Varela ez zen beste apezan antzekoa. Ez zegoen ikastetxean zer edo zer bere kontra ez zuen ikaslerik. Gehienak Padre Varelak ehun bider zigortuak ziren, bai eta buruan hezurrezko ukabilkada gogor asko jasanak. Gainera Padre Varelak egunoro egonarazten zituen liburuak gainean isilik. Zer eginen zenuke zuk, zeuk baino indar handiago duen batek honelako bidegabekeriak jasanaraziko balizkiuzu?

Tomas gurenetan, jai handia izan zuten. Arratsaldeko zazpitan dena zegoen gertu teatroa hasteko eta ikusle goiz zaleak, Patxiren ama, Katalin eta neskamea euren artean, esertokiak betetzen hasten ziren.

Argi askorekin hornitua, distiratsu eta benetan eder zirudien leku handiak. Apainki jantziak, elkarren artean agurtzen ziren ikasleen ahaideak, jaunak burua makurturik, eta andreak, ezpain bazterrak jaso eta irriñoak ahal beste liluragarri eginik.

Arrigorrieta eta beste tokietatik etorritako jende nagusi asko batu zen toki hartan, anitzek urrunetik bidaltzen baitzituzten semeak Arrigorrietako ikastetxera.

Padre Valentinek, musika-irakasle eta abesbatzaren zuzendariak, Schumannen sonata bat jotzen zuen pianoan, eta teatro-oihal handia, misteriozko harat-honatek beste aldetik bultzatua,



doi-doi egoten zen segundo batzuk geldirik. Pianoari inork ere ez zion egiten jaramonik.

Azkenean pianoa isildu eta goruntz hasi zen oihal handia. Frontoietan jokadarik ederrenak egiten direnean besteko berotasunaz, txaloka hasi ziren ikasle guztiak.

Mahai baten gainean ur pitxer bat, ondoan edontzi bat, eta atzean Laguna, laugarren urteko ikasle erdalduna agertu zen.

Txaloak amaitu zirenean, eztulak hasi ziren, eta gero bazter guztietatik hasi ziren xxxxxx! Xxxxxx! Xxxxxxx!... eztulak isilarazteko.

Lagunak paper batzuk zeuzkan eskuetan. Dena isildu zenean, neska-abots mehe batekin hasi zen irakurtzen.

Teatrora etortzeko deietan *La Filosofía Tomística y el Escolasticismo, por el alumno de cuarto curso don Daniel Laguna* irakurtzen zen.

Ez gaitezen ibili aiko-maikotan<sup>86</sup>. Denok dakigu ez zituela idatzi Lagunak paper horiek, eta azterketan beti *matricula de honor* atera arren, ez zuela ulertzen irakurtzen zuena. Ezta hitzik ere.

Misterio handi bat zen guztientzat, nork idazten ote zituen paper horiek.

Lagunaren aitak, bere tokian eserita, ez zuen jarraitzen semeak irakurtzen zuenaren haria. Oinetako saltoki handi baten jabea Bilbon, *tomístico* eta *escolástico* hitzak latin ziren beretzat. Poztutzen zen semeak halako gauzak irakurtzen zituelarik, eta hitz horiek ezagutzen ez zituela inork ez igarteko, zuzendu egin zen bere tokian, eta alboko entzulea aho zabalik eta erdi makur zegoela ikusirik, —Honek eztu ulertzen hitzik ere! —esan zuen bere kolkorako—. Nolako jakinezekin nere burua nahasi behar!— jarraitu zen.

---

<sup>86</sup> [Aiko-maikotan: ezdeuskerietan].

Ez. Aitak ez zizkion idatzi Lagunari paperak.

Handiak eta makinaz idatziak, denbora asko irauten zuten Lagunak irakurtzen zituen orriak. Bazirudien hiru edo lau baino ez zeudela esku artean zeukan piloan, baina luzaro irakurtzen egon, eta ez ziren bukatzen. Orri baten amaia irakurtzen zuenean, denak zeuden begira, ea azkenekoa ote zen, baina mahai gainean utzi eta beste batekin hasten zen, entzule guztien itxaropena hurrengorako luzetuaz. Gehienak harrituta zeuden, ezin konpreniturik zelan sortzen zen esku arteko multzo mehetik mahai gaineko pilo handia.

Behin, paper batetik beste batera iragan zelarik, bekokira eroran zituen eskuak fraile batek, filosofiako irakasleak. Lagunak huts egin zuen. Bat zelakoan, bi orri utzi zituen mahaian eta aurrera jarraitu zen irakurtzen igarri gabe. Padre Venancio atsekabetuta zegoen. Hau istripu izugarri bat zen beretzat. —Zer egiten duk astokilo horrek! —erraiten zuen bere baitan—. Eztuk ikusten haria galtzen dela? Alperrik idatzi ditut nik astiro-astiro orri horiek, liburu sakonetik sakonena aterata. Ezer ere eztute ulertuko orai. Adiadi egon dira orai arte. Laster hasiko dira elkarren artean hizketan.

Ez zaite artega Padre Venancio gaixo hori! Ez da izan istripu bat zuk uste duzun bezala. Dena dago lehenbiziko moduan. Inor ez da konturatu, zu izan ezik. Lehenbiziko hamar edo hamabi hitzak entzun eta gero, inor ere ez zen konturatuko, orri horien orde z Terentiusen Heautontimorumenos, edo burdin-bideetako ordu-liburua irakurtzen jarraituko balitz. Eta orri bat utzi duena ohartuko balute, poztu egingen lirateke, denak baitaude zain, orriak noiz bukatuko diren. Hobe duzu eskuak burutik kendu eta zure tokian bakean egon, bestela igarri egingen da zuk idatzi dituzula Lagunak irakurtzen dituen orriak.

Jendez bete-beterik zegoen tokia eta gero eta handiagoa zen berotasuna. Anitzek haizea ematen zioten arpegiari paper lodizko deiekin.

Eskerrak eman behar dizkiogu Jaungoikoari Lagunaren azkeneko orria heldu zelako. Lagunak orri guztiak amaitu zituenetik

ez du oraindaino inork egin jendeari atseginago izan zaion gauzarik. Atanok berak ere, ez du inoiz entzun Lagunari egin ziotenaren besteko txalo-zaparrada.

Gorputz makurkada batekin Lagunak alde egin zuenean, oihal handia jatsi, eta pianoaren soinua hasi zen berriz.

Padre Varelaren kaska distiratsua, toki batetik bestera zebilen. Mun egiten zioten eskuan jaun kanpotar batzuek. Ohitura hau ez da Arrigorrietakoa.

Honela luzaro egon, eta aspertzen hasi zen jendea. Padre Varela barnera joan eta oraindik beste hamar minutu iragan ziren.

Azkenean oihal handia goruntz hasi, eta berriz bete zuten hai-zea txaloeak.

Esku soinua amaitu orduko, barre-algarak hasi ziren bazter gutzietatik. Bizar luze bat arpegian eta aintzineko janzki miragarriekin apaindua, antzoki erdian zegoen Patxi. Bere sudurpeko luzeak sortarazten zituen jendearen irri-karkailak. Asto buztanezko ileekin egina, aho ondoan zeukan zintzilik, alde batera okertuta.

—Xxxxxx! xxxxxx! —hasi ziren osterera ere. Isildu ziren honekin barre-egileak.

Ezpata bat eskuan, lehendik ikasitako solasa esaten hasi zen. Ahalge tanta bat ere erakutsi gabe, oso ederki erraiten zuen bere zatia. Baina ezpatea jaso zuenean, gutxi faltatu zitzaion oholen gainean erortzeko, eta ezkerretik eskumara ibili zen.

—Ezta izango! —esaten zuten ikusle batzuek—, mozkortuta dago mutiko hori!

Ez zen erori Patxi, baina gero eta argiago erakutsi zituen ordikeriaren ezagupideak. Bere abots sendoak ere, ardoaren soinua zekarren.

Padre Varela ez da sekula haserreago ibili. Ez zituen atera ileak sustraitik, non oratu ez zuelako.

Batzuek barre egiten zuten. Batez ere mutikoeak. Baina jaun-andre asko, banan-banan jaiki, eta kanporuntz hasi ziren seme-alabekin. Fraileek mila aitzaki erraiten zieten atean.

Eta honela bukatu zen Tomas gurenetakoko teatro-jaiak ikaste-txean.

Agerraldia baino ordu erdi goizago, sakristiara eroan zuen Patxi Padre Varelak, ardo-zurrutada bat edan zezan ahalgea kentzeko. Baina ez zuen gorde giltza.

Honela ikasi zuen gure adiskideak non gordetzen zen meza-ardo on gozoa. Gero, ahalge guztia kendu ez ote zitzaion bildu-rrez, berriz sakristiara joan eta beste baso bete edan zuen. Biga-rreneko zurrutadak ez zuen egin lehenbizikoak baino gehiago, ezta hirugarrenak ere. Ez daki Patxik zenbatgarreneko zurruta-dak kendu zion ahalgea, baldin ahalgerik inoiz izan badu, baina bai ia erdiraino beterik zegoen botilea hustu zuela.

Etixerako bidean, ama negarrez ikusi zuenean, bihotza samur-tu zitzaion Patxiri.

—Ai ene! Ai ene Jaungoiko maitia! Hau lotsa... —erraiten zuen amak negarrez.

—Ama! ez eizu negar egin !... —esan zuen Patxik amagana hurbilduz abots negarti batekin.

—Kendu hadi hortik mozkorti zikin hori heure ardausainagaz! —erantzun zion amak.



## XVII

### ZERBAIT DEN LEKUAN BEGIAK ARGI, EZER EZ DEN LEKUAN ESKUAK GARBI

Aratusteak! Urteko jaietarik alaiena! Zomorroak!<sup>87</sup> Serpentinak! Confettiak! Mila kolorezko jantziak! Zomorroen abots meheak!... Joan zarete betiko!

Inauterietan egin hobenez arras damaturik gaudela eta barkatzeko eskatzen dugu aratuste osteko otoitzetan. Ezin ikusi mutikoen gaindegitik inauteri eta pekatuaren arteko senidetasun ezkutua, eta aratusteak haurtzaroan bakarrik ezagutu ditugunok ez dugu ulertu hau gizon-arora heldu arte. Pekatari handiak ziren gero gure asabak... Euren aldean gu aingeru batzuk gara. Utz dezagun hau bakean gehiegi eragin gabe.

Haserre zeuden Arrigorrietako gizonak mutikoen kontra (mutikoen, hamazortzi urtetik iragan guztiei esaten zieten gizon). Axola gutxi norainoko zehaztasunaz eta zeinen ongi zomorroz jantzi, irten karrikara, urrats batzuk doi-doi egin, eta ezagutu egiten zuten. Ez litzateke hau ezer, isilduko balira, baina berehala hasten ziren zomorroen izenak abots sendoz esaten, eta laster, denek zekiten nor zen bakoitza, arpegia agerian balute bezain ongi.

---

<sup>87</sup> [Zomorroak: mozzorroak, marroak].

Adi-adi zebiltzan mutikoak zomorro baten atzetik. Bat-batean:

—Gibelaundi! Gibelaundi! —hasi eta arin-arin joaten ziren gero beste batengana.

Minutu bat edo, haren begira egon eta:

—Babalasto! Babalasto! —hasi ziren.

Ez ziren izan zoriontsuagoak Pitxerripurdi, Erramon, Karra-marro, Tripikallo eta beste zomorroak.

Beste bat agertu da enparantzan. Inork ere ez daki nondik etorri den. Baserritar janzkiak daramatza. Arpegia handia eta biribila, matel<sup>88</sup> potolo eta gorriekin, sudurra izugarria, begiak arrautze pare baten antzekoak, ile gorriak txapel petik iheska. Halako baserritarrik ez da inoiz ikusi Arrigorieta.

Mutiko guztiak hurbiltzen zaizkio. Alde guztietatik inguratzeko dute eta ez diote uzten ibiltzeko tokirik ere. Azkenean haserretu egiten da, eta abots meheaz egin beharrean, bere abots naturala aterata:

—Ala umiak hortik! Joan amagaine titixa hartzen! —erraiten die.

Mutikoek orduan:

—Joxe Pirri! Joxe Pirri!... —esan eta badoaz, Joxe Pirri haserre bizian utzirik.

Joxe Pirri gaixoa lotsati samarra zen. Logurea kentzen zion neska batek, eta berak ez zion oraino ezer esan. Neskaitsuak ez zituen ohartzen bere maitalearen bihotz taupadak, edo hala uste zuen behintzat Joxe Pirri. Anitz bider ibili zen, neskagana joateko asmoari buruan birak ematen, baina ez zen ausartzen. Bildur zen, ahalgez mutu geratuko ote zen. Inauterietan, arpegia estalduta zuelarik ez zion igarriko, baldin gorritzen bazitzaion, eta honela apurka hasiko zen berarekin hizketan. Baina dena galdu

---

<sup>88</sup> [Matel: matraila].

zen alperrik mutiko madarikatuakaitik. Bazekiten honez gero pasileku<sup>89</sup> guztian, nor zen baserritarrez jantzirik zebilen mozo-roa.

Biharamunean Joxe Pirri beste soineko batekin agertu zen. Praka zahar batzuk eta txamarreta lodi bat jantzirik, hartz-buru ikaragarri batekin estaltzen zuen burua, Goienkaleko aldetik Arri-gorrietan sartu zenean.

Mutiko guztiak hurbildu zitzaizkion, enparantzara heldu zenean. Ezin zuen urrats bat egin ere, ume talde handiaren artean. Haserretu zen azkenean eta:

—Zegaitik ezarrie joaten amagaine titixa hartzen? —erran zien abots mehearekin.

—Joxe Pirri! Joxe Pirri!... —egin, eta joan ziren beste bategana.

Arraiua! Hurrengoan ez zen deskuidatuko. Sagu bat baino isilago egonen zen. Hirugarren inauteri eguna baino ez zeukan.

Azkeneko aratuste egunean pierrot bezala jantzi zen Joxe Pirri. Bi edo hiru minutu atzetik ibili zitzaizkion mutikoak, nor ote zen igarri gabe. Bera isil-isilik, mutikoz inguraturik eta patxada handiarekin. Halaz ere (demoninoa baino zoliagoak ziren mutiko haiek) igarri egin zioten, eta besteetan bezala,

—Joxe Pirri! Joxe Pirri! —hasi ziren.

Honekin bakean utzi zuten, edo hobeto esateko, haserre bizian. Hemen bukatu ziren bere asmoak.

Ilunabarrean, arpegia agerian, oraino pierrot jantzita, ezkerreko besapean kutxa bat eta makila bana eskuetan, enparantzara etorri zen. Bestea baino luzeagoa, ezkerreko makilak piku idor bat zeukan hari batetik zintzilik.

—Al aliguí! Al aliguí! —esaten zuen erderaz, eskumako makilaz ezkerrekoa tan! tan! tan! jo, eta pikua aidean saltoka erabilirik.

---

<sup>89</sup> Pasileku: Gernikakako *pasealekua*, erdiguneko baratze zabalaren goienean dagoena.


Mutiko-talde handi bat batu zen bere aintzinean. Denak aho zabalik, pikua haginekaz oratzeko samak luzatzen zituzten.

Ezkerrean zekarren kutxa piku ederrez bete-beterik agertzen zen, eta makila luzearen ongi erabiltzeko eragozpen handia zirudien. Utzi zuen ba behean, pikuari saltoak errazago eginarazteko.

Joxe Pirriren deskuidoa ikusi, eta hoge esku sartu ziren batera kutxan. Ezer ez den lekuan lapurren eskuak garbi egoten badira, oso zikindurik atera zituzten eurenak mutikoek.

Gainean pikua, baina azpian... Barka iezadazu irakurle, ez zait atsegin usain txarreko gauza bat aipatzea, baina uste dut, egia ez erraitea baino hobe izanen dela.

Joxe Pirri zikinak kakaz beterik zekarren kutxa.





## XVIII

### ASTOA SAL, ZALDIA EROS

Goiz guztian euria izan zen. Haize garbi zorrotzak hedoiak isastu eta zerua garbitu, eta eguzki berri bat agertu zen eguerdirako.

Etxeak, kalea, zuhaitzak, belarra eta begiek iristen ahal zituzten gauza guztiak bernizatuak ziruditen.

Ostegun deuna zen. Patxiren aita etxean zegoen. Denak, lekat<sup>90</sup> ama, prest zeuden karrikara irteteko, soineko berriak jantzita.

—Mari! —deitu zuen aitak (Mari zuen izena Patxiren amak)— Badakizu ze ordu den? Jo dabe hamabixak. Nozko jantziko zara, arratsalderako?

—Banoa, gizona! Banoa! —erantzun zion bere emazteak—, Jesus! Zu zara bai urdurixa!

Hamabiak eta laurdenetan atera ziren Patxi, aita, ama eta Katalin, denak janzki eta zapata berriekin. Aitak kapela biribila (*hongo* edo *chapeau rond*) eta amak mantalin beltza zeramatza-ten buruan.

Eskekoei eman edo bendejetan uzteko, kilo erdi txakur handi (ogerleko bateko txakur handiak!) eman zieten Patxi eta Katalini

---

<sup>90</sup> [Denak, lekat ama: denak, ama izan ezik].

irten orduko. Amaitzen zireneko, beste hainbeste zeraman amak esku-sakelean.

Beste familia asko zebiltzan kaletik gora eta behera, Patxirena bezala apainduta. Kapela kendu, eta gutxienez arra bat jasoten zuten burutik etxeko jaunek elkarren ondotik iragaiten zirelarik.

Eliza ilunetan sartu, eta gurasoen ondoan belauniko jarri ostean, familia guztiaren otoitzak igoten ziren zeruruntz, beste askorekin batera, zurrumurru batean nahasirik. Jesus Sakramentatuaren oroigailua, mila kandelen gar dardarakor ttipiek argitua eta lore zuriz apaindua, benetan distiratsu eta ikusgarri agertzen zen.

Bi eliza nagusi eta anitz kapera zeuden Arrigorrietan. Komentu bakoitzean bat, ospitalean beste bat, eta bana mutiko eta nekatoen ikastetxeetan.

Berandu bazkaldu zuten egun hartan Patxirenean. Heldu etxera hiruretan, erantzi arin zapata berriak, min egiten baitzioten, eta mahaira joan orduko hamabost txakur handi<sup>91</sup> gorde zituen Patxik bere isil-poltsan.

—Ai Patxi, Patxi!... egiten duzun guztia zikindu behar duzu itsuskeriren batekin? Zure otoitzek ez zuten balio intxaur bat ere.

Otoitzak bukatu ostean, Katalinekin aldarera joan, belaunikatu, musu bat eman Jesus Haurraren irudiari, eta bi edo hiru txakur botatzen zituen bakoitzak bendejara. Kalerakoan, anitz eskale aurkitzen ziren atartean, eta txakur handi bana ematen zieten denei. Katalinek ohartzen ez zuenean, bendejara bota edo eskekoei eman beharrean, beste sakel batean sartzten zituen diruak. Katalini bukatzen zitzaizkionean, berak ere eskatzen zuen gehiago.

Arratsaldean zapata zaharrak jantzi, eta bere gordailuarekin aberastuta, lagunengana joan zen. Bere adiskideak ere aberastuta zeuden.

---

<sup>91</sup> [Txakur handi: bi sos].

Biharamunean, Andra Mariko elizara abiatu ziren, ilunpeak edo tinieblak *ikus*i eta zarata egitera. Sermoi bat entzun zuten, zeini, hamabietan hasi eta hirurak arte irauñ arren, *Zazpi Hitezkoa* erraiten baitzioten.

Dena ongi egitea gehiegi da Patxirentzat, eta *ilunpetan* zaratak eta soinuak egiten ongi saiatu bazen, isilik eta geldu egon beharrean, sermoian ere egin zituen zaratak eta ibili zen harat-honatakat egiten lagunekin.

Han zeuden prozesioko irudiak, arratsaldean irteteko prest, eta sermoia bukatu gabe, biraka hasi ziren euren inguruetan.

—Atzo kendu ein jeutsozan Krispinek diruak Judasi —esan zion Juantxuk, apostoluengana zihoazelarik.

Hamabi bidaliak eta Jesukristo, mahai handi baten inguruan zeuden afaltzen. Buruak eta eskuak zurezkoak baina janzkiak oihalezkoak zituzten. Judasek, oihalezko sakel bat oratzen zuen ezkerregaz.

Eskuaz jo eta klin-klin egiten zuela entzunik,

—Arraiua! —erran zuen Krispinek—. Dirua xaukak osterat be?

Eta eskua poltsan sarturik, berriz kendu zizkion berrogei eta hamar txanponak. Diruak burdin zurizkoak ziren, balio gabeak, musean jokatu eta hamarrekotzat ez bazen.

Beste irudi batean, han zegoen *Judas Tronpetero*, Arrigorrietan baizik ezagutzen ez den Judas berezi bat, erromatar gudari bezala jantzirik, eta tronpeta jotzen Jesusen ondoan.

Eta *Simon Zirimino*, hau ere arrigorrietar hutsa.

Bizkaitar guztiek ezagutzen dute *zirimino* hitza, baina beste euskaldunentzat azaldu behar dugu hemen. Denek dakizue *ziria* zer den, bai eta *zirikatu* ere. *Zirimino* hitzak ere, *ziri* du sustraitzat. Gauza bat esku artean erabili eta erabili, eta bakean utzi ezinik, azkenean apurtu egiten duenari erraiten zaio *zirimino*. Ematen badiozu zerbait konpontzeko zirimino bati, erloju bat, lapitz bat... edozer, konpontzen badizu, ken iezaiozu arin gehiago gabe! Bestela, hobeki konpondu behar duela eta, ibili eta ibili azkenean apurtu egingen dizu eta.

—Eres un zirimino —erran nion nik behin erdaldun bati.

—Zer da hori? —galdetu zidan berak erderaz, eta hitz honek adierazten duena azaldu nionean,

—Hitz egokia benetan! —erran zidan—, zoritxarrez eztaukaigu antzekorik erderaz, eta behar genuke guk ere horren adierazgaiko hitz bat —jarraitu zuen ziriminoak, esku artean zerabilena bakean utzirik. Poztu nintzen ni, honelako hitzak erdaldun baten-gandik entzuteaz, baina ez diot gehiago inoiz esan *zirimino* erdaldun bati, bildur naiz, *agur*, *hamarreko* eta *hordago*, erderazko *abur*, *amarraco* eta *órdago* egin zaizkigun bezala, hitz honek ere erderara ihes egingen ote digun.

Bazkalostean Mendiurira joaten ziren arrigorrietar asko, hango prozesioaren ikustera. Arrigorrieta ondoko mendi baten gainean dago Mendiuri izeneko herri txiki hau. Bihotzez abestuten zuten baserritar jaungoikozaleek, sinismen handiko prozesio hartan. Barre egiten zieten kaletar zantar askok Mendiuriko santuei, burua tente eta gorputza tantai bat bezala zuzen zutelako. Hone-la ipintzen zuten agerian kaletar harro hauek, euren jakineza eta barne hutsa. Ez ziren joaten Mendiurira arrigorrietar zintzoak barre egitera, eta Patxi eta, ez zuten irrik egiten.

Ostirale Santuan, ilunabarrean hasten zen Arrigorrietako prozesioa, eta igurikitzea luzeegi egiten zitzaielako, asko ziren Mendiurira joaten zirenak, itxaronaldia laburtzeko.

Mendiko prozesio polita bukatzen zenean, bete-bete egiten zen bidea Arrigorrietaruntz jaisten zirenekin.

Damututa zegoen Patxi, bendejetan utzi behar zuen dirua beretzat gorde zuelako. Elizara joan eta bendejan utzi zuen.

Krispin infernurako bidetik zebilen. Ogerleko bat zeukan, txakur handi baten truke bendeja batetik hartua. Jaun bati ikusi zion, nola ogerleko bat bota eta lau pezeta hartzen zituen bendejatik, eta gero berak, txakur handi beltza bota, eta zilarrezko ogerleko zuri handi bat hartu zuen. Eta Krispin ez zen lapur garbaia<sup>92</sup>, Patxi bezala. Axolarik ere ez zitzaion.


---

<sup>92</sup> [Lapur garbaia: lehenbizi lapur izan, gero damutu, eta orain ez dena].

Kandela ttipi bana eskuan, lerro luzean sartu ziren lau lagunak. Aste Gureneko soinu triste politak jotzen zituzten musikeroek, eta gure mutikoek bihotzez abestu zuten ostearekin batera:

Jesukristori kendu ezker  
Pekatuagaz bizitza  
Baldin negar egiten ez badot  
Harrizkua dot bihotza  
Guztiok lagun  
Kantatu daigun  
Bere penazko heriotza  
Bere penazko heriotza

Kilin-kolon zebilen Simon Ziriminoren irudia, sorbalda gainean zeramatarik. Bazirudien, gure Jaunari gurutzea bizkar gainean hobeto ipini nahirik, ibili eta ibili, azkenean hautsi egingen ziola.



## XIX

### PATXI, KAKA EGIN ETA BERTAN ITXI

Udako oporraldietan egun guztian olgetan ibiltzen ohitua, ikastetxera hasi eta lehenbiziko egunetan, luzeegia egiten ziztaion ordubete liburuekin eta beste ordubete klasean jolas egin gabe egotea. Ikasgela handian arin nekatzen zuten liburuek eta maiz begiratzten zion erlojuari, jolasaldirako ea zenbat falta zen ikusteko. Baina hiru edo lau hilabetez gero, ahaztu egin ziztaion ohitura itsusi hau. Ohitura berriak pixkaka ikasi behar dira.

Orai ez zen lehenbiziko egunetan bezala. Ordu erdi baino gehiago zen gela handian zegoela, eta oraino ez zuen begiratu ordularia behin ere.

Alde batetik, bazekien ez zeukala erlojurik eskumuturrean. Hiru edo lau hilabete erabili orduko, hautsi egin zuen.

Beste alde batetik, orai ez zuen sentitzen lehen besteko gogoa jolasaldira heltzeko, gela handian bertan jolas egiten baitzuen.

Otoitz-liburua eskuetan, begiak liburutik kendu gabe, eta gomazko oinetako isilak oinetan, bazterretik bazterrera, joan eta etorri, joan eta etorri zebilen Padre Varela.

Liburua zabalik mahaitxoaren gainean eta bere aurrean zuelarik, gela erdiko toki batean zegoen eserita Patxi. Frailea atzetik zetorrelarik, bildurrez egoten zen, burua eskuetan eta ukondoak mahaian, liburuari so. Ondotik iragan eta bizkarra erakusten zio-

nean, bildur guztia ahaztu eta paper bat mahai azpitik atera ostean, burua okertu eta Juantxurengana begiratzen zuen. Hatz keinu batzuk elkarrekin trukatu eta, fraileak bira egiten zuenean papera gorde, eta berriz jartzen zen liburuari so eta ukondoak mahaian. Berriz bizkarra ematen zionean, papera atera eta gurutzetxo bat egiten zion lapitzarekin.

Ikastetxe guztietan ezagutzen da joko hau. Hatz keinuz erraiten diote jokalariek elkarri non erortzen diren bonbak edo kurutzetxoak, eta bestearen paperean dauden itsasontzi guztiak urperatzen dituenak irabazten du jokoa.

Corde dena arin-arin eta ukondoak lehen bezala, liburuari begira jarri zen adi-adi. Inoiz baino bildurrago zen orai Patxi. Sekula baino isilago zetorren atzetik Padre Varela. Oso luzeak iruditu zitzaizkion segundoak. Ez zuen entzuten, baina bihotzak esaten zion hurbil zegoela. Begiak ertsi, hatsa gorde, eta klask!!!!... min handi bat sentitu zuen buruan.

Atzamar-txokoz jo, mahai azpian gordetzen zuen papera kendu, eta belauniko jarrarazi zituen Kaskamotzek adiskide biak ikasgela erdian.

Gero klasean beste fraileak, ikasgaia ez zutelako ikasi, giltzapean sartu zituen klasea amaitu zenean, bakoitza gela batean, arrats-askariko jolasaldian, bostetatik seiak arte egoteko.

Beste mutikoen abotsak entzun, eta kaiolatik ihes egin ezinik, Patxik leioa zabaldu zuen. Berdin egin zuen Juantxuk, ondoko ikasgelan.

Beheko egoitzan zeuden gela biak, ikastetxeko baratzaren ondoan. Burdin-sare batek debekatzen zuen kanpora irtetea.

Handik bost minutura edo, mar-mar hasi zitzaizkion tripak Patxiri. Beharrezkoa zuen handik ateratzea. Geroko utzi gabe, barnea hustu behar zuen, eta ez zen ausartzen ikasgelan bertan zama handia uzten. Burua burdin artetik sartzen hasi zen, baina ez zegoen belarrientzako tokirik. Larri ibili zen gero, belarri bat kanpoan eta beste bat barnean, ez aurrera, ez atzera, handik mugitu ezinik. Izerdiz bete-beterik, burua askatu orduko ia negarrez zegoen.



Alboko leihoan Juantxuk ere, eginahalak egiten zituen irteteko, baina alperrik berak ere.

Patxi urduri-urduri, gelatik harat-honatak egiten hasi zen. Baina laster ohartu zuen ez zirela berdin-berdinak, burdin arteko hutsune guztiak. Oker samar zeuden burdin batzuk. Hutsunerik zabalena hautetsi eta handik erraz iragan zen burua. Gero sorbaldatik hasi eta bularra atera zuen. Jatsi lurrera eta aske geratu zen.

Nora jo orai? Han arriskuan zegoen. Minutu baten han egon ezkerro, bildur izateko zen fraileren batek ikusiko ote zuen. Urrats batzuk eskumara eta:

—Ene! —esan zion Juantxuk—, nundik urten dozu? (irten zara?)

Ezer ere erantzun gabe, Juantxuren leihoa zehatz-zehatz aztertu, igon, burua sartu, eta gela barnean aurkitu zen Patxi berehala.

Arin-arin joan zen irakaslearen mahaipera. Gero gerrikoa askatu, eta lurrera jatsi zituen prakak.

—Eeee!! Ze'itte'ok? (zer egiten duk?) —erran zion Juantxuk—. Ez ein hori hor, mecasen!!! —eta ileetatik tiratzen zuen.

Patxik, pirri! parra! par! par!! pun!!!! fla fla fla, hustu zuen barne guztia irakaslearen mahaipean.

Lau kiloz arinduta jaiki zen handik.

Gero, Patxi sartu zen tokitik jalgi ziren biak, eta baratzetik zeihar isil-isilik eta gorputza makurtuta, alde egin zuten, inork ikusi gabe.

Handik hurbil zegoen Juantxuren osaba baten baserria, eta hara joan ziren. Han arrats-askari eder bat eman zieten.

Gero, jolasaldia bukatzeko gutxi falta zenean, bakoitza bere zigor-gelara sartu zen lehenbiziko toki estutik zeihar.

Minutu batzuk bakarrik jasan behar izan zuen Juantxuk usain txarra. Gutxi berandu zitzaion Padre Varela, baina atea edegi zioneko, usainaz ohiturik, ez zuen gehiago sentitzen, eta lore artean balego bezain ongi zegoen.

Gero adiskide biak, ikasgela handira joan ziren beste mutikoenekin. Haiek ziren elementuak!



## XX

# AHALEGINAK ZAZPI DIRA

Udaberriko eguraldi ederrek azterketen bildurra ekarri zioten. Hasi zen orduan liburuekin ahaleginak egiten, eta hilabete askotan ikasi ez zuena, maiatzean ikasi zuen.

Ikasle bezala, ospe txarra zuen, eta *kalabazak* ekarriko zituela igurikitzen zuten guztiek ikastetxean (azterketan huts egiteari erraiten diote *kalabazak ekartea* Arrigorrietan), baina batxilera-toko liburuak errazak ziren beretzat, eta beti pasatzen zituen etsaminak kalabazarik ekarri gabe.

Lehenbiziko orritik hasi eta ia liburu guztiak zeuzkan ikasita loraileko<sup>93</sup> azken egunetan. Halaz ere, bildur zen oporraldi luzeak hondatuko ote zizkioten, libururen bat udan ikasteko utzirik kalabaza batez, eta ekin eta ekin saiatzen zen, kalabazarik ez ekartzeko.

Baina batzuetan, gaitz egiten da liburuetara burua lotzea, batez ere eguraldi onaz; eta noizik behin, kanpoko haize freskoak, jolasaldietatik etorrira, sartu egiten ziren irakurgela handian, ikasteko gogoari amore emanarazirik.

Arratsalde hartan mutiko asko ibili ziren XX-ko harrobian, mota guztietako pizti ttipien bila. Hogeita hamar baino gehiago

---

<sup>93</sup> [Loraileko: maiatzeko].

ziren, harrobi gaine eta inguruetan, matxinoak<sup>94</sup>, kirkirrak, kotxorroak, karrakaldoak eta abar batzen zituzten mutikoak. Txapelean gordetzen zituen batek kirkir guztiak, matxino guztiak ematen zizkieten beste bati gordetako, eta hala egiten zuten beste pizti ttipi guztiekin ere, mota bakoitzekoak txapel batean sarturik.

Patxik zeuzkan kotxorroak, eta ezkerrekin eta poltsa baten itxuraz oratzen zuen txapela mahaitxoaren atzean ezkutaturik, Kaskamotzek ikus ez zezan, ikasgela handian eseri zenean.

Bat atera eta esku gainean ipini zuen. Kotxorroari aldapaz gora zaio atsegin ibiltzea. Zenbat zutago bidea, hanbat atsegina-go. Eskutik dabilela, nahi duzun tokira joanarazi dezakezu. Honetako, ez duzu behar besterik, toki hori goratzea baino. Gailurrera heldutakoan, zer eginen ote du? Patxik geldi-geldi utzi zuen eria, kotxorroa puntara heldu zenean. Gehiago ibili nahi bazuen aldapaz behera hasi behar zela ikusi zuenean, segundo batzuk egon zen geldi-geldi, zer egin ez zekiela, eta gero, hego gogorren azpiko hego meheak patxada handiaz atera, eta azkenean hegaz egiten hasi zen.

Kotxorroaren zunburruntxoak entzunik, mutiko guztiek okertu zuten burua, bere harat-honatak ikusteko, hormaren kontra jo eta jo zebilelarik.

Hau oso atsegingarri zen, ia gela handian zeuden guztientzat. Bati bakarrik ematen zion atsekabe: Padre Varelari. Hain diferentek ziren bere gustuak eta mutikoenak!

Patxik, beste kotxorro bat atera zuen txapeletik, eta berau ere, hegaz egiten hasi zen, hatz puntara igon ostean.

Kaskamotz kentzen bada, denek zekiten nondik jalgiten ziren kotxorroak. Frailea haserre zebilen, nundik arraio sartzen ote ziren igarri ezinik.

Hau jolasaldia baino pozgarriago zen mutikoentzat. Liburuak ahortzi, eta denak zeuden irriz. Batzuetan, Kaskamotz begira

---

<sup>94</sup> [Matxino: saltamatxino, matxinsalto, larrapote].

zegoela ohartu gabe, elkarrekin hizketan hasten ziren. Orduan fraileak belauniko jarrarazten zituen gela erdian.

Hogeigarren kotxorroa hegaz egiten hasi orduko, gehienak zeuden gela erdian belaunikaturik.

Padre Varela haserre bizian zegoen. Hogei kotxorro rruuuuum tapa! rruuuuum tipi! eta mutikoak barrezka liburuetara begiratu gabe, gehiegi zen beretzat.

Esku batean txapela, bestean liburua, aho zabalik eta irriñoa ezpainenetan, kotxorroen harat-honatak zaintzen zituen gela erdian belauniko, matxinoak gordetzen zituen mutikoak, beste batek zartako batekin txapela kendu zionean eskutik.

Matxino guztiak txin txin txin hasi ziren saltoka. Bazirudien mila baino gehiago zeudela.

Padre Varelaren haserreak leher egin zuen.

—Basta! —erran zuen, mutikoek burrukan galtzen dutenean bezala—. Todos depié! (Denak zutik!) —gaineratu zuen erderaz.

Hartu matxino-zainaren txapela, eta leihotik jaurti zuen. Mutikoa negarrez hasi zen.

Sekula ez zen gertatu antzekorik. Isuritegi ordua heldu gabe, beheruntz hasi ziren bi lerro luzeak. Padre Varela, ikastetxeko zuzendariaren bila joan zen, eta beronek hizketaldi haserre bat bota zien mutikoei. Hurrengo egunetako jolasaldi guztietan, jolas egitera joan beharrean, liburuekin eta zutik egonen ziren denak.

Loraila amaitu orduko, bazekien nahikoa Patxik. Halaz ere, ezer ez zekiela uste zuten etxeokok eta ikastetxeokok, Bilbora joan zenean.

Oraindik astebete falta zen azterketak hasteko, Edurne aurkitu zuenean etxerako bidean.

—Nora hoa, Edurne? —galdetu zion.

—Hola, Patxi (Kaxo Patxi) —ihardetsi zion Edurnek erderaz—, ¿Sabes quién está en tu casa? (Badakik nor dagoen zuenean?)

Arrigorrietako neska guztiak bezala, etxean bakarrik mintzatzen zen euskaraz Edurne. Kanpoan, ez zuten inoiz ere hitz egiten baserritarrek eta txiroek bezala.

Ez zen poztu Patxi, osaba etorri zela jakin zuenean. Bazekien ez zuela itxaron behar agirakak eta zartadak baino.

Jai zuen arratsaldean, ostegun guztietan bezala.

Bazkal aldian, sagu bat baino isilago egon zen, baina ihes egiteko betarik utzi gabe,

—Ekak<sup>95</sup> liburua —eskatu zion osabak bazkaria bukatu orduko.

Eraman zionean, edozein tokitatik zabaldu, eta bat-batean, galdera bat jaurti zion. Patxi,

—Eeeeeee, mmmrmmmm... —hasi zen.

Osabak liburua beste toki batetik zabaldu eta,

—Orografía de la península escandinava —galdetu zion.

—La orografía de la península escandinava... mmmrmmm, la orografía de la península escandinava... eeeeeee...

Hauxe gertatu zen beste liburu guztiakin ere.

—Mínimo común múltiplo de varios números.

—El mínimo común múltiplo de varios números... eeeeeee... el mínimo común múltiplo de varios números... mmmm...

Eta liburuak bukatu zirenean:

—Ez haz lotsatzen? Eztok ikesi ezer!!! Ai neure semie bahintz!!!...!

Patxi harrিতuta zegoen. Osabaren aurrean ez zuen jakiten ezer ere. Zer gertatzen ote zitzaion bere aintzinean mutu geratzeko?

—Jan ta lo! Zure semiek ezteu ein besterik kolejixoa hasi zanetik. Horra zer dakarren bigunegixa izateak —erran zion osabak bere arrebari gelan sartu zenean.

—Ai Patxi, Patxi! —esan zion amak—. Lehen mutiko ona hintzan. Ez heunstan esan ba, ahaleginak eingo heuzala?

—Bai ama, ahaleginak eiten nabil, ta ikusko'zu Bilbora joaten garanien.

---

<sup>95</sup> [Ekak: ekarri ezak].

—Ahaleginak hik? Ahal beste jateko bai! —erran zion osabak—, hi gero ta alperrago haz. Lehen —jarraitu zen amari begira—, zeozer ikest'eban dotrinen. Oin lehen baino gitxiago daki. Ia— ostera ere Patxiri—, zelan xeukoan izena Pilatosek?

—Pilatosek... Pilatosek... Pilatosen izena... eee, Pilatosen izena... mmmmmmm.

—Ponzio!! astokilo hori! Ponzio!!! Hori be eztakik?

Joan zen Patxi handik. Isuritegian sartu, eta atea hetsi zuen maratilaz. Handik ez zen aterako osaba joan arte.

Osabak zioenez, Patxi ez zen ikasteko gauza, ez zuen ikasten ahal. Kolejiara gabe, lan egitera bidaltzea hoba zuketen gurasoek.


Ez zuen behar besterik gure mutikoak ikastetxea maitatzeko.

Bilboko azterketak, ez ziren osabarenak bezain gogor. Hango galderak josten ziren elkarrekin zelanbait, eta osabak batetik bestera tipuski<sup>96</sup> salto egiten bazuen, Bilboko azterkariak beta nahikoa eman eta gainera lagundu egiten zioten. Hitz gutxitan erraiteko: Bilboko azterketen helburua, ea zenbat zekien jakitea zen, eta osabarena, ezer ez zekiela erakustea.

Ez zuen ekarri kalabazarik.

---

<sup>96</sup> [Tipuski: bat-batean, derrepente].





## XXI

### ZURETZAT LATIN, NIRETZAT JAKIN

Hogei urte iragan dira... edo, egia esateko, bost baino ez, baina ez ohiturazkoen antzekoak, bost urte luze-luzeak baizik, gero-ko hogei aina luze.

Aintzinako mutikoak orai morrosko batzuk dira.

Ez da erre ikastetxea. Uholde batek ere ez du estaldu urez lurra, eta ez dira ibili txalupak, ia itozteko zeuden mutikoak ikastetxeko teilatutik leihorrerat ekartzen, Patxik eta Juantxuk, fotografiaz beteriko asterokoetan ikusi zituzten mutiko zoriontsuak bezala. Halaz ere, laster beteko dira euren ametsak, laster amaituko da betiko ikastetxera joatea.

Historiarako dokumentuak erderaz idatzi ohi zituzten aspal-diko euskaldunek. Patxik ere, ikasgela erdian, gizon bat egina dugun Patxik, erderaz idazten du, bere mahaiaren gainean, sakel-aito zorrotz baten puntaz, bere bizitzako gertakizun astun baten berria, hurrengo gizaldientzat. Hona Patxiren idazkia:

FRANCISCO URRUTICOARAUNABEITIA,

23 DE MAYO DE 19\*\*

ULTIMO AÑO DE PRISIÓN EN ESTE COLEGIO

Hurbil daude azterketak, eta gehienak liburuekin saiatzen dira ikasgela handian. Beste etxeko aldean dago Kaskamotz mutiko koskorrekin, lehen bezala. Mutil haziak daude hemen liburuekin ikasten, eta beste fraile bat dute zaindari.

Ez dira gauzak gela honetan mutikoenean bezala. Fraileak ez ditu gomazko oinetako isilak. Ez dabiltz ikasle haziak bonbaka elkarren kontra ontziak sakoneratzen, frailearen gibeletik mutikoak bezala.

Gomazko zapaten ordeaz fraile honek abarketak, espartinak daramatza, gomazko zapatak baino isilagoak. Paper zatiak tolestu, haginekaz oratu, eta goma mehe bati eskuekin tiraturik, elkarren kontra bota egiten dituzte mutil haziek frailearen atzetik, berau, otoitz-liburua eskuan, gela bazterretik baztertera dabilelarik.

Arpegiz datorrela, Patxik adi-adi begiratzen dio liburuari. Bizkarra ematen dionean, zozpal ttipi-ttipiak kentzen dizkio mahaiari, idazkia bukatzeko.

Eguraldia ona da. Leiho zabalduetatik zeihar, eguzkiaren distira ederrek, urregorritzko argia sarrarazten dute beste aldeko hor-maraino.

Gela handiko bazter guztiak betetzen ditu asto baten orroak bere soinuekin. Buruak jaso, eta barre-algarazka hasten dira denak. Gehienetan asto baten orroak ez du adierazten ezer, baina zerbait du asto honek, fraileak ere, otoitzak ahantzirik barre egiten baitu.

Laster izanen dira azkeneko azterketak, batxileratoa bukatzeko. Harrezkero, ez da egonen gehiago ikastetxera etortzerik. Zabaldu eginen dira azkenean Patxirentzat munduaren atak.

Praka luzeak egin dizkiote azterketara joateko. Hau poza!... Agur betiko praka laburrak! Agur betiko ikastetxea!

Denbora hartan praka luzeak zerbait ziren. Behin jantzi ezkerro, ez lituzke jantziko atzera praka laburrak mutiko batek, munduko diru guztiagaitik ere.

Azterketatik Arrigorriataratu zirenean uda hartan, gizonbata etorri ziren Patxi eta Juantxu. Praka luzeekin ikusi zituztenean, lotsa eta errespeto handia hartu zieten Krispinek eta beste adiskide gazteagoek.

Igandean Café Iruñara joan ziren bi batxiler berriak Seberinorekin. Besteek *zerbeza* eskatu zutenean, garagardoa eskatu zuten Patxik ere.

—Uste dot —erran zuen Juantxuk—, edeerra izengo dala gaurko pelikulie. UFAkoa ei da.

—Ba! UFAkoa? Astune orduan —azaldu zuen Seberinok.

Patxik garagardo txurrutada ttipi bat hartu zuen. Arraioa! Edari higuigarria! Eskerrak garaian oroitu zela gure gizon berria gizon zena! Gutxi faltatu zitzaion, pua!! egin eta lurrera botatzeko.

Betiko garagardo-edale baten antzera ezpainak milikatuta:

—Astune? —itaundu zuen—, Emmil Jannings-ena ta astune?

—Ze mile janiz ta ze mile edaniz! —esan zuen Seberinok—, izen deile Urlixena edo Berendixena gure bozue, baina emoistazue niri *El Fantasma de París*, edo *El Hombre de las Tres Caras*, edo *Carpanta*, edo... Niri emoistazuez pelikule bizixek, mobimientokuek, lehengo lakuek, eta ez honelako pelikule astunek... Dena astiro-astiro... hemendik horra joateko ordu erdi...

—Jeseeeeus! —erran zuen Patxik, beste txurrutada higuigarri bat harturik—, UFAko pelikulen teknikie háren aldien ipini be...

—Zer dok ba teknikie? —itaundu zuen Seberinok.

—Ba ...ixe letrero barik eee... pelikule guztixe aittuerazo... Ambientie... fotografixe... Horra zer doken teknikie —erantzun zuen Patxik.

—Letreroak! ambientie! fotografixe!... tie tie tie... —egin zuen Seberinok—. Txotxolokeri galanta! Etxegoan fotografirik lehengo pelikuletan ala? Eta ambientie! Letreroak!... UFAko pelikuletan eztok letroririk ala?

—Ez ez ez... —ebagi zuen Juantxuk—, UFAko pelikuletan eztok agertzen ixte letroririk.

—Zelan? Eztagola ixte letroririk?... ta zer ...ze ardure dabe ba letreroak? Eztagoz leidu oin arte ala? —galdetu zuen Seberinok.

—Arraiua! —erran zuen Patxik bere kolkorako—, egia da! Axola gutxi guri azalpenak irakurri behar izateagatik. Zerri honek arrazoa du!... Beraz:

—Letreroak? —galdetu zion Seberinori erdain eta desprezio askorekin—, ez najeunkek ikusiko letreroz betetako pelikule bat... ezta duen be! Ezta ganien ogerleko bat emonda be!

—Kirten madarikatu honek arrazoia du! —erran zuen Seberinok bere baitan—; azalpenez betetako pelikulek intxaur bat ere ez tute balio! Beraz:

—Ba Mendiurin, berixendie hartzen gajenduenien —esan zion sututa Patxiri—, nok esaten joan *goazen arin, goazen arin, beste-la belu helduko gozak zinera ta, goazen arin*, ta nok eragiten joazan pedalak aldatsbehera zoratute lez Arrigorrietara zinerako sasoiari helduteko?

Ederra bota zion honekin Seberinok! Egi handi-handi bat erran zion. Orduan zirela bi edo hiru urte, igandero joaten ziren Mendiurira bizikletaz hiru lagunak eta pelikula luze bat botatzen zuten Arrigorrietako zine nagusian. Bi hilabete aurretik hasia, zati asko zeuzkan pelikula honek. Igande bakoitzean atal bat botatzen zuten. Onak eta gaiztoak beti elkarren kontra, aurreko igandean, zinea bukatu zenean,

FIN DE LA NOVENA JORNADA  
EL PRÓXIMO EPISODIO SE TITULARÁ:  
*EN LAS GARRAS DE LA MUERTE*

irakurtzen zen azalpen batean. Eta onak, euren automobil zaharrean, arkaitz handi batetik behera erortzen ziren bederatzigarren atala bukatzen zenean.

Anitz bider oroitu zen astebete hartan onek pasatzen zuten arriskuaz eta irakiten egon zen, igandea noiz helduko, hamargarren atalean ea onak hain arrisku handitik nola aterako ziren ikusteko.

Arrigorrietara heldu, bizikletak gorde, eta arin-arin joan ziren hiru adiskideak. Zinea aurkitzen zen kalera heldu zirenean, rrrrrrrrrriiiiiiiiiinnnn... entzun zuten trinbea, eta ate gainean argi gorri bat ikusi. Erakustaldi guztian egoten ziren biztuta trinbea eta argi gorria, eta ezin egon zintezkeen kanpoan trinbea jotzen eta argia biztuta zeudelarik, baldin txartela erosteko dirua baze-

neukan. Patxi eta, berandu heldu ziren komika ikusteko, baina pelikula nagusia hasi gabe.

Baina goazen harira. Guk denbora asko galdu badugu, ez du atera behar hemendik irakurleak, Patxi eta Seberinoren arteko eztabaida gelditu zenik. Osta-ostan bukatu zituen Seberinok bere hitzak, Patxik,

—Beste pelikularik etxegoalako —erantzun zionean—, gaurko pelikulak ikusteko, trenien etorten dok jentie. Orduen be, honelako pelikula bat bota baleijuek eee, ez gintzoazan ibiliko aiko-maikotan, ez gajenduen galduko komikie be...

Irri egiten dugu egun, orduko pelikula zahar ilunak ikusten ditugunean. Ez orduan komikak izan ezik. Komikekin leher egiten genuen barrez. Zelako golpeak!... Gelditzen zen automobil ttipi bat enparantza batean, eta hasten ziren barnean zetozenak kanpora irteten bata bestearen atzetik, eta bat, bi, hiru,... hoguei, hogueita bat... enparantza guztia betetzen zen automobil ttipitik irtendako jendearekin... Edo sorbalda zurubi bat zeraman gizona!... Deitzen zuen batek eta, dinbi! zartako bat ematen zion buruan ohartzeke beste bati zurubiarekin. Egiten du bira, ea zer gertatu den ikusteko, eta danba! beste bati buruan... Edo bati pastel zuri handi bat arpegira botatzen ziotenean... Edo automobil bat albotik iragan eta rast! arropak kendu, eta gizona arraiazko galtza luzeekin eta emakumea barneko janzki zuriak age-rian!...

Baina benetako pelikula luzeak —egun barre egiteko ikusten diren pelikula zaharrak— ez ziren barregarriak euren denboretan. Arrigorrietako zine nagusian (beste bi ere bazeuden, bata kafe batean, bestea frontoian) benetako pelikula luzea, pianoarekin batera hasten zenean, inork ere ez zuen barrerik egiten.

Zinea gizonen jostailu bat da, eta jostailu garesti eta merkeekin gertatzen dena jazoten da zinearekin ere. Ezin ukatu ordutik honat aurrerapen harrigarriak egin dituela, nahiz fotografian, nahiz kolorean, nahiz soinuan. Denetan gauza bakar bat kentzen bada, ikusleari ematen dion poza!

Gu ohargabetu garen artean gizon bat etorri da gure adiskideen mahaira eta:

—Txomin! —deitu du morroia gizon honek—, ekarri akeita, txola eta txokorra!

Aho bete haginegaz gelditu dira gure adiskideak. Zer ote du eskatu?

—Ez dakizue zuek itz egin ondo euskeraz —esan du etorri berriak astiro-astiro eta soinu berezi batekin—, ni entzun zaitu, zai, dautsuet, digo, ez ez, *nik* entzun dautsuet, al sujeto de verbo activo hay que ponerle una ka y entzun es un verbo activo. Nik entzun dautsuet euzkeraz itz egin oso txarto. Ez bear da esan itzak erderazko noz itz egiten da euzkeraz.

Txominek kafea, koinaka, eta habano bat ekarri zuen. Orduan jakin zuten gure adiskideek, *akeita, txola eta txokorra* zer zen.

—Ez da esaten *trena* euskeraz —jarraitu zuen Selinpiak (honela deitzen zuten gure adiskide berria)—, *trena* deituten da euskeraz *bultzija*, eta *bizikletia* deituten da *lasterkestuna*.

Gure mutilak harritura zeuden. Hiru urte ziren Selinpia Arrigorrietara etorri zela, eta eurak baino hobeki mintzatzen zen euskeraz. Etorri zenean ez zekien hitzik ere. Orai inork ere ez zekien berak beste, ezta berari ulertzeko behar den beste ere. Astiro-astiro mintzatzen zen, eta halaz ere, Patxi eta lagunentzat latin zen berak erraiten zuena. Hain garbia zen Selinpiak zerabilen euskara.

Neguko arratsalde batean, kutxa bat besapean, inork ere ez zuen ezagutzen, kafe-etxeetatik zapatak garbitzen hasi zenean. *Se limpia* esaten zuen, zapatak hatz batekin apuntatzen zituelarik. Eta beste izenik ez zuelakoan, *Selinpia* bataiatu zuten Arrigorrietan. Baina Selinpiari ez zitzaion atsegin bera maketotzat hartzea. Arrigorrietako edonor baino *euzkotarrago* zela erraiten zuen. Elizako paper zaharretan bere herrian, apellidu guztiak ikusi zituen hogeita hamargarrenekoraino (!) zioen berak, eta euskaldunak ziren guztiak. Liburu bat erosi, eta hasi zen euska-

raz ikasten. *Euzkel iztija* zuen titulua liburu honek. Bide batez, bizikletak konpontzen hasi zen. Denda ttipi bat hartu zuen alogeran, eta bizikleta zahar bat erosi. Bizikletak konpontzeko lanik ez zuenean, zapatak garbitzen zituen. Selinpia oso trebea zen. Motozikletak ere konpontzen zituen, eta laster hasi zen bera ere parrapatapa! moto zahar batekin. Igandeetako janzki berriak erosi, eta gero eta gorago igon zen. Euskaraz ere arrigorrietar guztiek baino hobeki zekien. Baliteke ondoegi, ezin baitzioten ulertu arrigorrietar arruntek eta jakinezek. Honegaitik, euskaraz hiru edo lau hitz esan ostean, erderaz hasten zen beti azkenean. Eta berekin hitz egiten zuten arrigorrietarrak, poztu egiten ziren, euren euskara mordoiloaz ahalgeturik, beragaz erderaz hobeto konpontzen zirelako. Txominek, Café Iruñako morroiak, laster ikasi zuen zer ekarri behar zitzaion *akeita*, *txola ta txokorra* eskatzen zuenean.

Patxi eta, musikara joan ziren gero, eta handik trikitrixetara. Patxiri ez zitzaion laket dantzan egitea, ondo-ondo ez baitzekien, baina praka luzeek eskatzen zuten bezala gizonen moduan egitearren, neska bati galdetu zion ea berarekin dantzan egin nahi ote zuen, eta neskak ezetz. Beste bati, eta ezetz hark ere. Bera lako gizon bati, batxilerato eta guzti ezetz? Infernua jakinen zuten zer nahi duten emakumeek. Ez zion galde-tu gehiago inori.

Zinetik irten eta etxerako bidean Patxik, piper-pote bat aurkitu, eta tanga! ostikada bat eman zion. Baina ez zen joan atzetik beste ostikada bat ematera. Jainkoari eskerrak, garaian oroitzen gizon bat zena, eta ahalgez beterik, begirakada bat bota zuen ingurura. Zorionez inork ere ez zuen ikusi halako umeke-ria egiten.





## SUTONDOAN SORTA

1. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Egunekoa*  
Aukeraketa eta hitzaurrea: Xabier Perea  
Aurkezlan eta moldakuntza: Jesus M<sup>a</sup> Agirre
2. Jose Manuel Etxeita: *Josetxo*  
Moldakuntza eta sarrera: Adolfo Arejita
3. Estepan Urkiaga *Lauaxeta: Azalpenak*  
Aukeraketa eta hitzaurrea: Jon Kortazar
4. G.C. della Croce – Bernardo M<sup>a</sup> Garro *Otxolua: Bertolda eta Bertoldin*  
Aurkezlana eta moldakuntza: Adolfo Arejita
5. Eusebio Erkiaga: *Jaioko dira*  
Sarrera: Lino Akesolo
6. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Edo geuk edo iñok ez. Euskerearen alde*  
Sarrera eta hautapena: Xabier Perea  
Moldakuntza: Xabier Perea, Adolfo Arejita
7. Mikel Zarate: *Ipuin antzeko alegi mingotsak*  
Aurkezlana: Igone Etxebarria
8. Eusebio Erkiaga: *Batetik bestera*  
Moldakuntza eta aurkezlana: Iñaki Sarriugarte
9. Txomin Agirre: *Auñemendiko lorea*  
Moldakuntza eta sarrera: Rosa Mari Arano
10. Txomin Agirre: *Kresala*  
Moldakuntza eta sarrera: Mirari Alberdi eta Jon Arretxe
11. Jose Manuel Etxeita: *Jaioterri maitia*  
Aurkezlana eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
12. Eusebio Erkiaga: *Txurio Txoria*  
Aurkezlana: Igone Etxebarria

13. Txomin Agirre: *Garoa*  
Moldakuntza eta sarrera: Bingen Zupiria
14. Resurrección M<sup>a</sup> Azkue: *Latsibi*  
Moldakuntza eta sarrerak: Mirari Alberdi eta Karmele Olano  
Adolfo Arejita eta Luis Villasanteren hitzaurreak
15. Jean Barbier – Bernardo M<sup>a</sup> Garro *Otxolua: Ixtorio-Mixterio. Ipuin-  
Mipuinak*  
Sarrera eta moldakuntza: Igone Etxebarria
16. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Guda Nagusia (1914-1918)*  
Testu-aukeraketa eta sarrera: Xabier Perea
17. Jose Antonio Oar-Arteta: *Zaar-Barri*  
Sarrera: Segundo Oar-Arteta
18. Xabier Goitia: *Eusko umeak atzerrian*  
Eratzaila: Jaime Kerexeta
19. Eusebio Erkiaga: *Arranegi*  
Sarrera eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
20. Sorne Unzueta *Utarsus: Idazlan guztiak*  
Testu-aukeraketa: Igone Etxebarria
21. Ipolito Larrakoetxea *Legoaldi: Grimm anaien berrogeita hamar ume  
ipuin*  
Sarrera, oharrak eta moldaketa: Miren Atutxa
22. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) I*  
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
23. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) II*  
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
24. José Basterretxea *Oskillaso: Euskaldunak Madrilen*  
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
25. Karmelo Etxenagusia, *Gotzaina: Euskerea nire bizitzan*  
Testuaren ardura: Igone Etxebarria
26. Jean Hiriart-Urruti: *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*  
Sarrera eta edizioa: Xabier Altzibar

27. Mikel Zarate: *Haurgintza minetan*  
Sarrera: Jesus Etxezarraga
28. Domingo Agirre: *Kresala*  
Sarrera: Sebastián García Trujillo
29. Xipri Arbelbide: *Zoriona. 31 eta esku*
30. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Abarrak*  
Sarrera eta edizinoa: Miren Atutxa
31. Gorgonio Renteria: *Izartu euskaldunak! Elantxobetar baten olerkiak eta artikulua*  
Biltzailea: Jule Renteria  
Sarrera eta edizinoa: Igone Etxebarria
32. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Aberriaren alde. Artikulu politikoak*  
Testu-aukeraketa: Javier Perea  
Sarrera: Cesar Gallastegi  
Edizinoa: Igone Etxebarria
33. Estepan Urkiaga *Lauaxeta: Gure aberriaren elea. Kazetari-lanak*  
Sarrera eta testu-aukeraketa: Xabier Altzibar  
Edizinoa: Igone Etxebarria
34. Balentin Berrio-Otxoa Santua: *Neure amatxo maitia. Euskerazko gutunak*  
Sarrera: Roman Berriozabal  
Hizkera-azterketa: Adolfo Arejita
35. Eusebio Erkiaga: *Goizean eta arratsean. Eskubete neurtitz • 1*  
Sarrera: Igone Etxebarria
36. Eusebio Erkiaga: *Goizean eta arratsean. Eskubete neurtitz • 2*  
Sarrera: Igone Etxebarria
37. Bitoriano Gandiaga: *Hitz lauz idazten*  
Sarrera eta edizinoa: Iñaki Sarriugarte Irigoien
38. José Basterretxea *Oskillaso: Kurloiak. Mutiko kaletarrak Bizkaian*  
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita

